

# JAKIN

JAKIN  
BIZI-ITXAROPENA

JAKIN  
RIKARDO ARREGI ETA JAKIN: 25 URTE

IDOIA FERNANDEZ  
EMAKUMEA, HEZKUNTZA ETA NAZIOA  
EUSKAL HERRIAN

MIGEL ANJEL UNANUA  
ANTZERKIAREN KRISIAZ

JOAKIN BALENTZIA  
MACHIAVELLI-REN «PRINTZEA»

JEXUXMARI ZALAKAIN  
KAZETARITZAREN AJEAK, KAZETARIEN MALURAK

JOXEAN MUÑOZ  
INAKI IRAZABALBEITIA  
ELIXABETE GARMENDIA  
XABIER MENDIGUREN ELIZEGI  
BEGOÑA DEL TESO  
KIKE AMONARRIZ  
EGUNEN GURPILEAN

83

UZTAILA-ABUZTUA 1994



# JAKIN

83

UZTAILA-ABUZTUA 1994



1981 AHTSURA-AHATSU

*Kultura eta Turismo Sailak diruz lagundutako aldizkaria*

SECURUS LAGUN AHO  
ASTORRIAK

# AURKIBIDEA

|   |                                               |     |
|---|-----------------------------------------------|-----|
| Z | ENBAKI HONETAN                                | 7   |
| G | URE IRITZIZ                                   | 9   |
|   | JAKIN                                         |     |
|   | BIZI-ITXAROPENA                               |     |
|   | 21                                            |     |
|   | JAKIN                                         |     |
|   | RIKARDO ARREGI ETA JAKIN: 25 URTE             |     |
| G | AIAK                                          | 29  |
|   | IDOIA FERNANDEZ                               |     |
|   | EMAKUMEA. HEZKUNTZA ETA NAZIOA EUSKAL HERRIAN |     |
|   | 49                                            |     |
|   | MIGEL ANJEL UNANUA                            |     |
|   | ANTZERKIAREN KRISIAZ                          |     |
|   | 57                                            |     |
|   | JOAKIN BALENTZIA                              |     |
|   | MACHIAVELLI-REN "PRINTZEA"                    |     |
| H | AINBAT ABURU                                  | 67  |
|   | JEXUXMARI ZALAKAIN                            |     |
|   | KAZETARITZAREN AJEAK, KAZETARIEN MALURAK      |     |
| E | GUNEN GURPILEAN                               | 85  |
|   | JOXEAN MUÑOZ                                  |     |
|   | INAKI IRAZABALBETTIA                          |     |
|   | ELIXABETE GARMENDIA                           |     |
|   | XABIER MENDIGUREN ELIZEGI                     |     |
|   | BEGOÑA DEL TESO                               |     |
|   | KIKE AMONARRIZ                                |     |
| I | IBURUAK                                       | 115 |
|   | IDAZKARITZA                                   |     |
|   | JASO DITUGU                                   |     |

AURKIBIDEA

© JAKIN

JAKINEKO IDAZLANEZ INON  
BALATZERAKOAN AIPA BEDI,  
MESEDEZ, ITURRIA

JAKIN

ALDIZKARI IREKIA DA ETA EZ  
DATOR NAHITAEZ IDAZLEEN  
IRITZIEKIN BAT

ZUZENDARIA

JOAN MARI TORREALDAI

ERREDAKZIO-BATZORDEA

PAULO AGIRREBALTZATEGI - JOXE AZURMENDI - JOSEBA INTXAUSTI

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1. C - 20009 Donostia - Tel. (943) 21 80 92 - Fax 21 82 07

1994ko PREZIOAK

| <u>BARRUAN</u> | <u>HARPIDEDUNA</u>  | <u>EZ HARPIDEDUNA</u> |
|----------------|---------------------|-----------------------|
| Harpidetza     | 4.500 pta.          | —                     |
| Ale arrunta    | 750 pta.            | 1.125 pta.            |
| <u>KANPOAN</u> |                     |                       |
| Harpidetza     | 5.000 pta. (235 FF) | —                     |
| Ale arrunta    | 850 pta. (40 FF)    | 1.300 pta. (60 FF)    |

# SUMMARY

## PUBLIC ADMINISTRATION AND CULTURAL MAGAZINES

*JAKIN*

The Jakin team carries out a critical analysis of Basque cultural policy in respect of Basque language magazines as undertaken by the Cultural Council of the Basque Government, with regard both to financial aid and the criteria

used.

Behind its analysis, Jakin presents various theoretical and practical proposals with a view to improving the status and function of these cultural magazines.

## RIKARDO ARREGI AND JAKIN: 25 YEARS

*JAKIN*

Jakin recalls the figure of Rikardo Arregi. Rikardo Arregi passed away 25 years ago, a key personage in the cultural renaissance of the 1960s. Rikardo concerned himself with editing at Jakin and for it published his finest essays. In the month following his death in an acci-

dent at the age of 27, the pro-Franco administration decided to do away with the Jakin magazine. By doing this, the Franco regime attempted to suppress the modernization of the magazine, a work in the main of Rikardo Arregi.

## WOMAN, EDUCATION AND THE NATION IN THE BASQUE COUNTRY

*IDOIA FERNANDEZ*

Doctoral research by Idoia Fernandez focuses on the participation and role of women in the historic process of construction of the Basque nation in its educational standing. By means of oral his-

tory methodology, the author analyzes the different ideological codes and pedagogical practices developed by women in the shape of Basque education in the 20th century.

## ON THE CRISIS IN THE THEATRE

MIGUEL ANGEL UNANUA

Gabriel Aresti, author from the 1960s and better known as a poet, is also a playwright and theorist on the theatre from its social perspective. This is the subject which interests the author of the article who at times criticizes Aresti's views on theatre. He affirms at the same time that Aresti's views coincide to a large extent with those ideas put forward by Bertold Brecht on the theatre.

## «THE PRINCE» BY MACHIAVELLI

JOAKIN BALENTZIA

«The Prince» by Machiavelli, an important work in Western culture, had not been translated into the Basque language until the present edition from the Elkar publishing company. Its political thought, on the other hand, has been widely extended among us. A somewhat similar situation occurred in the case of the Spanish version, banned under the Inquisition and not translated until the 19th century, despite the fact that the work could be found on the bookshelves of the nobility and the high clergy.

## VICES OF JOURNALISM, MISFORTUNE OF JOURNALISTS

JEXUXMARI ZALAKAIN

This article starts from those documents issued by the «Platform for Freedom of Expression» and the writings which six of its most distinguished members published in number 81 of *Jakin*. The author, Lecturer of the Faculty of the Information Science of the Basque Country (UPV) contributes a series of reflections designed to deepen and widen the debate initiated by the said documents and to criticize the points which he considers stand out the most, in particular the «syndrome of two parts» which leads the Platform to compare the constant news aggression suffered by the MLNV with the strident replies of some of its members. Moreover, it supports the thesis that the loss of objectivity and almost total homogenization (against the dogma of pluralism) of the media in the face of the MLNV is an example of the latter's capacity.

## NEWS TODAY

VARIOUS AUTHORS

This section gathers together current trends in subjects related to culture, art, the world of entertainment, science, literature, language and society. The following participate throughout all issues published during the year: Hasier Etxeberria, cultural critic; Jozean Muñoz, art critic; Inaki Irazabalbeitia, Doctor of Chemistry; Elixabete Garmendia, journalist; Kike Amornarriz, socio-linguist; Xabier Mendi-guren Elizegi, literary critic; and Be-goña del Teso, film, theatre and television critic.

# ZENBAKI HONETAN

Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 83. zenbakia da eta 1994ko laugarrena.

Gure iritziz sailean bestetan urri ibiltzen bagara ere, orain bi lan ematen ditugu argitara, bi.

Lehenak «Bizi-itxaropena» du izenburu eta *Jakin*-ek eta euskal kultur aldizkariak bizi duten kinka gaiztoa agertu nahi luke. 1992an, *Jakin* 68an, «Eman ta zabal zazu. Kultur politika berriaren alde» izenpean idatzi genuen editorialaren haritik dator hau, aldizkarien arazoetan murgilduz oraingoan. Aldizkariakiko laguntza-politika 1980tik hona aztertu ondoren, aldizkariak bere iritzia azaltzen du aldizkarion kultur status eta funtzioaz, subentzio-sistemaz, tratamendu ekonomikoaz, fiskalizazioaz, etab.

Bigarren lanean Rikardo Arregi dugu gogoan. Asko zor dio Rikardori *Jakin*-ek. Horixe aitortzera gatoz atzera. Aitortzare-



kin batera oroitzapena: duela 25 urte hil zitzaigun Rikardo, uztailean; eta hurrengo hilean, abuztuan, debeku administratiboa jasan zuen *Jakin*-ek.

*Gaiak* sailean, hogeigarren mendean zehar euskal nazioaren eraikuntza-prozesuan hezkuntzak izan duen eragina eta garrantzia aztertzen du lan honetan Idoia Fernandez-ek, eta horren barruan emakumearen eskuhartzea eta lekua azpimarratzen.

Bigarren lanean antzokiaren (eta antzerkiaren) lekuaz, funtzioaz, historiak eta etorkizunaz ari da Migel Anjel Unanua, Gabriel Arestik bere garaian botariko iritzietatik abiatuz.

Joakin Balentziak politikagintzaren diskurtsu modernuaren hasierakotzat hartzen du Machiavelli-ren «Printzea», eta zenbait gogoeta mamitzen ditu Makiavelismoaren inguruan eta «Printzea»ren euskal edizioaren gainean.

... *hainbat aburu* sailean, duela bi zenbaki ( 81. zenbakian, hain zuzen) atera genuen dossierra arakatzen du Jexuxmari Zalakainek. Euskal Herrian kazetaritzak bizi duen egoera aztertu nahi zen han. Bertan esandakoa luzatu eta sakondu nahian, zenbait puntu eztabaidatu, kritikatu eta salatu egiten ditu gaurkoan Zalakainek.

*Egunen gurpilean* sailean ohizko lankideen (salbu Hasier Etxeberria) ohizko gaurkotasuna, bizitasuna eta piperra aurki genezake.

*Jaso ditugu* saila, azkenik. Noizbehinka atera ohi dugu sail hau, bulegora iritsi zaizkigun liburuen berri emanez.

# GURE IRITZIZ

## BIZI-ITXAROPENA

Euskarazko aldizkariak, nazionalak zein herrietakoak, denek batean, aurten jaso dezaketen diru-laguntzarik handiena 75.500.000 pta. da (3.283.000 libera inguru).

Diru-laguntza horretatik *Jakini* 5.500.000 pta. (240.000 libera inguru) dagokio, kasurik onenean.

Diru-laguntza hau kasurik hoberenean jaso daitekeena da. Egiazki jasoko dena gutxiago izan daiteke, jaso ahal izateko bete behar diren baldintzak «behar bezala» betetzen ez badira. Azken urteotan ohizkoak izan diren baldintzez gain aurten berri bat jarri da indarrean, oso problematikoa: urte-hasieran aurrikusi eta aurrekontuetan aitorturiko defizita bere horretan mantendu behar da urteburuan. Defizit hori jaistea lortzen baduzu, diru-laguntza ere jaitsi egingo zaizu. Horra.

Hiru paragrafo hauetan laburbildurik dago ondoko lerrootan landu nahi dugun gehientxoena. Egia da bere testuingu-

ruan eta eboluzioan kokatu gabe, deus gutxi adierazten dutela bai aipatu ditugun diru-kopuru horiek eta bai azpimarratu nahi dugun berauen banaketan erabili diren irizpideek.

Hori argitzen saiatuko gara, bada, orain eta hemen, bi partetan. Lehen zatian, aldizkarietzako diru-kopuruen historia eta egoera ikusiko ditugu. Bigarrenean, berriz, diru hori banatzeko erabili ohi diren irizpideak eta mekanismoak ikusi nahi genituzke. 1992an, «Eman ta zabal zazu» editorialean (*Jakin 68. zenb.*) markatzen genuen bidea indarragotu beharra ikusten dugu gaur. Argi esan genuen han kezkarriena ez zela 1992an 1.500.000 pta. gutxiago izatea euskara eta euskal kulturarentzat, baizik eta aurrekontuen aurkezpenekoan eman ziren justifikazioetan antzeman genituen aurrerantzeko kultur politikarako irizpideen seinaleak. Gaur esan dezakegu 1992an inaurguratu zen kultur politika martxan dagoela.

Kultur politika, diogu. Ez *Jakin*-i dagokiona soilki, ezta aldizkariei dagokiena bakarrik ere, baizik eta euskal kultur-gintza osoa. Baina gu orain eta hemen aldizkariei dagokien alorrera mugatzen gara.

## DIRU-LAGUNTZAK

Aldizkariei emandako diru-laguntzen aurkezpen honetan erreferentzi urtetzat 1991 hartzen dugu. Alderaketak egiteko berau dugu urterik egokiena: 1992ko aldaketaren justu aurrekoa izaki, hurbilena berau da, batetik; aldizkari nazionalak eta herrietakoak bereiz dauden azken urtea da; *Jakinek* orduantxe hartzen ditu bai oraingo eite juridikoa eta bai gaurko formatoa.

Urte hauetan gertatu denaz konstatazio eta gogoeta batzuk egingo ditugu.

## DIRU-LAGUNTZA, URTETIK URTERA TXIKIAGOA

Aipatu aldi honetan, hots, 1991tik 1994ra, aldizkariak laguntzeko Eusko Jaurlaritzak ematen duen dirua ez da igo,

esateko. Garaiko prentsari sinesturik, aldiz, 45 milioitik 75 milioitara igoa behar zuen laguntzak. Itxura gezurtia zen hori. Gertatu zena hau zen: 1991n bi partidetan zegoena, aldizkari nazionalak eta herrietako aldizkariak alegia, partida bakarrean jartzen dela 1992an.

Urte hauetan, diru-laguntza hori ez bakarrik ez da handitu baizik eta aldizkari bakoitzarentzat, gehienetan, jaitsi egin da. Izan ere, aurrekontuetako laguntza-sapaia finko mantendu da, nahiz eta urtetik urtera gehiagoren artean banatu diru-kopuru bera. Aldizkari bakoitzari legokiokeena honela da batezbestekotan: 1991n % 3,9; 1992an % 2,2; 1993an % 1,6; eta 1994an % 1,5. Honen esplikazioa beste honetan dago: 1991n 18 aldizkariren artean egin zen banaketa, eta aurten 49 aldizkariren artean.


Engainugarria da, hortaz, diru-kopuru bera mantenduz aldizkarietako laguntza bera ematen zaiela uste izatea. Are ustelagoa da uste hau urtetik urterako bizitza-igoera aintzat hartzen bada.

|              | 1991             | 1992             | 1993             | 1994             | %<br>1994/1991 |
|--------------|------------------|------------------|------------------|------------------|----------------|
| ARGIA        | 13,000,000       | 12,000,000       | 12,629,000       | 13,000,000       | 0              |
| Elhuyar      | 8,500,000        | 8,300,000        | 7,496,700        | 6,348,100        | -25'4          |
| Ipurbeltz    | 6,000,000        | 6,000,000        | 4,252,200        | 5,074,000        | -15'5          |
| <b>Jakin</b> | <b>9,000,000</b> | <b>8,668,000</b> | <b>6,892,800</b> | <b>5,513,900</b> | <b>-38'8</b>   |
| Kamel        | 1,000,000        | 1,000,000        | 492,000          | 628,900          | -37'2          |
| Kiki-Kili    | 3,500,000        | 3,500,000        | 3,189,000        | 2,082,300        | -40'5          |
| Aizu!        | 3,000,000        | 2,800,000        | 2,884,800        | 2,753,000        | -8'3           |
| Bertsolari   | 1,000,000        | 1,336,000        | 622,200          | 651,800          | -35            |
| GUZTIRA      | 45,000,000       | 43,604,000       | 38,458,700       | 36,052,000       | -20            |

HERRIETAKO ALDIZKARIEK DUTE LEHENTASUNA

Lau aizetara aldarrikatua ez bada ere, Kultura Sailaren borondate aitortua horixe da, 1992tik aurrera behintzat, prentsa lokalari eta herrietako aldizkariei besteen ondoan lehentasuna ematea.

Aldizkari-mota guztiak multzo eta pakete berean daudenez azken deialdietan, ez da nabarmentzen hobespen hori, baina hala da, urtetik urtera aldizkari lokalen alderago doa laguntza. Urteroko laguntzak oro, aldizkari nazionalen eta lokalen artean alderatuz, argi ikusten da Kultura Sailaren borondatea. Aldizkari lokalek 1992an laguntzaren % 32,7 jaso zuten; 1993an % 37, eta aurten, 1994an, % 46. Iaztik hona egin da jauzirik handiena. Eta datorren urtean?



## JAKIN KALTETUENA

Banaka bat bada, ez asko, 1991ko diru-kopuru berdina edo handiagoa 1994an jaso duena. Gehienok gutxiago jaso dugu, aldizkari nazionaletan bederen. Baina batzuen eta besteentzako jaitziera ez da ikusten proportzionalitatekerik. 1991n aldizkari nazional gisa diru-laguntza jaso zuten zortzi haiek % 20 gutxiago jaso dute 1994an. Baina *Jakin*-ek ia bi halakoren jaitziera izan du: % 39 gutxiago eman zaigu guri. Bizitzaren gorakada kontuan izanik, *Jakin*-i gaur egun 1991n baino % 50 gutxiago eman dio Kultura Sailak. Labur: hiru urtetan, *de facto*, erdira jaitzi zaigu diru-laguntza.

Eta, hala ere, guk produktua bere horretan mantendu nahi dugu, nola maiztasunean hala kalitatean. Ondorioz, lan-baldintzak okertu zaizkigu zeharo. Eta okerreana: Jainkoak edo deabruak erremediatzen ez badu, laburra da gure bizi-itxaropena.

Egoera hitz batez laburbilduz: aldizkariari laguntzeko politikan, 1992an abiatu zen birmoldaketan *Jakin* gertatzen da zigortuena. Hedadura nazionaleko aldizkariaren laguntza ekonomikoak ere murriztu doaz, herrietako aldizkariaren faboretan. Baina kopuru bera geroz eta gehiagoren artean banatu behar denez, hauetako bakoitzarentzat ere diru gutxiago dago urteak pasa ahala.

Politika honen arriskuzko joera da, ezarian-ezarian eta ia-ia oharkabean, itzuli ezineko egoera ekonomiko gaiztoan aurki daitezkeela aldizkariak. *Jakin* aurretik doa; atzetik datozke besteak. Ura pasa ondoren alferrik da urari eutsi nahi izatea.

## IRIZPIDEAK

Aldizkariarentzako diru-kopurua erabakitzean eta berdin diru-laguntzak banatzerakoan bistan da atzetik badagoela filosofia bat eta, ondorioz, politika bat. Jokamoldetik abiatuz zein den azpiko pentsamoldea aztertzea joko dugu.

## ALDIZKARIAK, BIGARREN MAILAKO KULTUR PRODUKTUAK

Eusko Jaurlaritzaren lehen gobernualditik gaurdaino euskarazko kultura idatziak orokorki, eta oso bereziki aldizkariak, bigarren —oso bigarren— mailako tratamendua izan dute ikusentzunezkoen ondoan. Irrati-telebista publikoaren aldekoa izan da apostua. Minimoetan mantendu dira bestiak. Komunikabideen alorrean, lehentasuna ez ezik ia monopolioa izan dutela ikusentzunezkoek esatera ausartuko ginateke. Aldizkarien lekua eta funtzioa aztertu gabe dago, teorikoki zein praktikoki. Hauekiko politika subentzio soilera mugatu da, barne-araudiak etengabe aldatuz gainera.

## 1992KO BIRMOLDAKETA

1992an agintzen den birplanteaketak ez du hobetzen aldizkarien egoera. 1992 urte giltzarria da euskal kulturarentzat. Ez bakarrik urte hartako diruen banaketagatik: Sevillako Expo, Anoetako Futbol-Estadioa, «Los Vascos y América» programa, Guggenheim. 1992 urte erabakiorra da batez ere Kultura Sailak prozesu berri bat martxan jartzen duelako. Guggenheim izan daiteke politika berri horren aurpegi ikusgarriena, nahi bada. Baina hori ez da bakarra, eta ez da bakarrik hori. Subentzio-politikaren ordeztu nahiago da azpiegitura erraldoien politika bat martxan jarri, eta aldi berean egitasmo berri (eta «handiak») finantzatu. Subentzio txikien politikan berrikusketa planteatzen da argi eta garbi. Horren ondorio dira murrizketak. Harrez gero bide hau 1992an diseinatua dago.

Etekin ekonomikoak ateratzeko asmo eta helburu gabeko erakunde txiki eta taldeen azpiegitararik eta pertsonen egoera-hobekuntzarik ez da lagunduko.

Zeharbidez bada ere, ordurarteko konpromisuak arindu egiten bide zaizkio Sailari eta eskuak libre ditu bere gogoko proiektuak laguntzeko eta babesteko.

## DEIALDIETAKO IRIZPIDEAK

Edozein erakunderen berrondatearen neurgailurik hobereana aurrekontuak aztertzea omen da. Kultura Sailak aldizkarien-

tzako gordetzen duen diruaz balorazioa arestian egin dugu. Hau bezain adierazgarri izan daiteke gure kasuan ikustea aldizkariak laguntzeko deialdietan erabili diren irizpideen etengabeko aldaketa. Balorazio-sistema, gutxi ala asko, ia urtero aldatu izan da. Ñabardurak aldatu dira sarri. Baina izan dira aldaketa nahiko erabakiorrak ere. Luzeegi joko liguke guztien berri emateak. Interesgarri da, dena den, aldaketa nagusitxoena seinalatzea, balorazio-sistema nondik nora ibili den ezagutzeko.

- Hasieran, 1980-1983, aldizkariaren ezaugarri nagusiak bakarrik hartzen dira kontuan, besterik gabe: maiztasuna, orrialde-kopurua, tirada.

- 1984an hasita, aldizkariaren eduki edo izaerak lehentasun-indize gisa jokutzen du.

- 1985-1986 urteetan defizitariotasun-maila eta orijinaltasun-maila baloratu egiten dira.

- 1987an bi laguntza-mota planteatzen dira: oinarritzko laguntza (saldutako ale-kopurua  $\times$  prezioa) eta aldizkari-motari dagokion laguntza.

- 1988tik 1990era bitartean aldizkarien tipologia oinarritzen da laguntza, aldizkari-tipo bakoitzak diru-kopuru jakina duelarik.

- 1991n oinarritzko ezaugarri nagusietara itzultzen da balorazio-sistema.

- 1992-1993 urteetan, herri-aldizkariak ere deialdi berean sartzen direla eta, irizpideak ere gehitu egiten dira. 1992an, lau elementu berri agertzen dira: doantasia, berezko zabalkunde-eremua, publizitatea eta harpidedungoa. Baina hurrengo urtean, 1993an, sartu berri diren lau irizpidetatik bi erori egingo dira (doantasia, harpidedungoa) eta lau gehiago erantsi: autofinantzaketa-indizea, EAEn argitaratzea, euskalkien erabilera eta erakundeetatik jasotako diru-laguntzak.

- 1994an, azkenik, balorazio-sistema arras berria planteatzen da. Hona lau irizpide nagusiak: defizit aitortua, mota bereko aldizkarietate batezbesteko autofinantzaketa-indizeare-



kiko desbiderapen negatiboa, erakundeetatik jasotako diru-laguntza eta defizitaren indize zuzentzailea.

Zerrenda honen ondotik esan daitekeen gutxiena zera da, Kultura Sailaren buruzagitzan izan diren pertsonen eta ekipoen aldaketak baino hagitx ugariagoak direla aldaketok balorazio-irizpideetan. Aldaketak ezeze etenak ere badira tartean. Ez dugu sekula ulertu zergatia.

## KONTROLBIDEAK

Deialdien hastapeneko urte haietan, nahiko berandu arte, diru-erabileraren kontrolak arinak ziren oso. Inprimategiko fakturak eta berauen ordainketak erakutsi, eta kitto. Eta geroztik, aurren arte, hartutako diru-kopuruaren pareko gastu-zurriak aurkeztean zetzan kontrola.

Salbuespen bakarra gertatu zen jokabide horretan, 1987an. Aldizkariak ematen zituzten datuak egiaztatzeko, Kultura Sailaren inizatibaz, OJDren kontrola pasatu behar izan genuen.

Baina aldaketa nagusia irizpideetan bezala kontrolbidean ere 1994ko hau da. Defizitean oinarritzen da aurtengo diru-laguntza eta defizita da kontrolgunea ere. Aldizkariak aurkezten duen aurrekontuetako defizitaren ehuneko hainbesteko bat hartzen du bere gain Kultura Sailak. Diru hori bi txandatan aurkezten zaio aldizkariari eta gero, urteburuan, azken kitapena egingo da. Urtearen hasieran aitorturiko defizitak eta urtearen bukaeran justifikaturikoak berdina behar du izan. Handiagoa bada defizita, Administrazioa ez da egiten horren kargu. Txikiagoa balitz, ordea, emandako proportzio berean kenduko litzaioke aldizkariari aurretiaz luzaturiko dirua.

## GURE USTEZ

Gaingiroki eta lerro nagusitan bada ere subentzioek adierazten duten kultur politika argitzen saiatu gara, horrekiko gure jarrera agertu aitzin.

Argitasunaren mesedetan puntuz puntu arituko gara.

- *Jakin*-en historia hurbilak duela bost urte du hasiera. Euskara Zuzendaria zen Josu Legarretaren deiaren ondoren (1988ko urria) eta Iñaki Zarraoa Sailburuarekin (1989ko otsaila) akordiora iritsi ostean, jauzi kuantitatibo-kualitatiboak ematea erabaki genuen. 1989an lau zenbakitik seira gehitu genuen maiztasuna eta hilabetekari bihurtzeko proiektua, eskatu bezala, entregatu genuen Kultura Sailean 1990eko udazkenean. Bide beretik, 1991n, formato berri eta modernoa eman genion aldizkariari, eta enpresa gisa normaldu egin genuen taldea, *Jakinkizunak* elkarte anonimoa sortuz.

Aurrerapide hori guztiori arras mozturik ikusten dugu, 1992an hasita. Eta ez krisi ekonomikoaren erruz, baizik eta irizpide-aldaketak direla medio. Bizi-pozetik bizi-itzaropenera pasa gara lau urteetan.

- 1992an, esan bezala, Kultura Sailaren kultur politikak bide berriak hartu ditu, hamar-hamabost urtetarako balio izango duen politika kulturalaren oinarriak jarri asmoz. Zer esan bide berri horietaz?:

- Azpiegitura handiak laguntzea ez da txarra, baina inola ere ezin da euskal kultura biziaren esparruaren kaltetan egin hori. «Humus» hori gabe jai du euskal kulturak.

- Proiektuak, proiektu berriak (eta handiak) laguntzearen aurka nola egon? Baina ez da zuhurra egon badauden proiektu mamituen egiturarik, profesionaltasunik eta lan-baldintzarik kontuan ez hartzea irizpideetan.

- Kultur proiektuetan autofinantziazioari bideak zabaltea, errentagarritasuna aintzat hartzea eta bultzatzea nola egongo da ba gaizki? Baina euskarak, euskal aldizkariak, euskal kulturak berez dituzten defizitak zuzentzeko eta orekatzeko diskriminazio positiboa behar dute oraingoz, euskaldungoaren esparru txikia dela medio ez direlako (ezin daitezkeelako izan, oraingoz) zeharo autonomo eta nahiko konpetitibo.

- Gizartearen protagonismo beteagoa, gizarte zibilaren eskuhartze handiagoa, herri-ekimenaren autonomia guk ere desiatzen, amesten eta bilatzen ditugu. Baina gaurko egoera hori

delakoan ezin da subentzioen politika berrikusi eta gutxiago baztertu, euskal proiektuak babesten dituzten erakundeak (erakundetxoak, egia esan) arriskutan jarri gabe. Gustatu ala ez, berezko defizit-maila bat zoritxarrezko baldintza da gure lanean. Horregatik diogu, eta ez gehien maite dugun formula delako, subentzio-politikarekin jarraitu egin behar dela aurrerapausoak emanaz aldi berean, hori bai, gizartearen nahiz Administrazio publikoaren aldetik oraingo muga estuak gainditze-aldera. Mezenasgoak eta esponsorizazioak huts egiten duten bitartean, militantziak bai, baina erakunde publikoen laguntzarekin, euskarri biek izan behar dute.

- *Jakin*-ek badaki amesten duen aldizkariaren egoera jatorrena zein den: autonomia ekonomikoa, independentzia. Gizarteak, euskaldungoak, asumitu egiten duela aldizkaria esan nahiko luke horrek. Ameskeria da, gaur, hori. Bihar-etzi agian ez. Baina: kantitatez eta kultur kalitatez aski urria den euskaldungo honekin; euskal kultur azpiegitura ahularekin; gure herri-gizon eta enpresa-munduko jendearen kontzientzia eskasarekin, utzikeria da botere publikoak bere interbentzio subsidiarioari uko egitea.

- Zuzen-zuzenean aldizkariari dagokienean esandakotik azpimarratu nahi genuke, hortaz:

- Autofinantzaketaren bila ere jo behar du kulturak. Gaur ezin dena agian bihar-etzi posible beharko luke. Kultur enpresa baten horizontean autofinantzaketak presente egon behar duela esan nahi dugu. Bere-bere dituen kultur helburuak galdu gabe, hala ere. Horizonte hori urrutixeago edo hurbilxeago egon daiteke, segun-eta aldizkari-mota, adibidez. Baloratu egin behar da hori ere, baina ametsak ameskeria bihurtuz geure burua engainatu gabe.

- Fiskalizazioa, hots, emandako diruen erabileraren kontrola, beharrezkoa ezeze onuragarria da, eta justiziazkoa. Fiskalizazioak, haatik, ezin du ahaztu kultur politikak herri-tarren ekimena bultzatu eta sendotzea behar duela helburu.

- Begi onez ikusiko genuke orain arteko subentzioen sistema gainditzea. Enpresak berak autofinantzaketaren bidez

ezin duen neurrian, Administrazioaren eskuhartzea behar da hitzarmenaren bidetik. Baldintzak? *Jakin*-en kasuan bai, noski: hipotesi batean, aldizkariaren helburuak eta funtzioa elkarrekin definitu?; enpresa-egitura diseinatu, elkarrekin?; eta Administrazioak berezko defizita estaltzea onartu, gestio-plangintza ~~ekin~~ batera? Baldintza hauetan egindako hitzarmena, esaterako, limosnaren kutsua darion subentzioa baino sanoagoa litzateke mila bider, hipotesi hutsean ere.

- Aldizkariak eta aldizkariak daude. Eta bereiztu egin behar dira. Zer duda, urteotan aldizkari berri asko sortu da, herrietako aldizkariak bereziki. Hori arazo bat da gehiagotu gabe dagoen diru-kopuruarentzat. Baina agian ez arazo nagusia: zein da aldizkari-tipo bakoitzaren funtzio kulturala eta zein irizpide dago aldizkari-mota batzuen ala besteen laguntzarako? Tipoak berezi beharra eta irizpideak definitu beharra dagoela, alegia. Aldizkariak oro deialdi berean sartzeari kalterako da. Lehenik eta behin, eta batez ere, herri-aldizkariak eta besteak ongi bereiztea komeni da, deialdietan, irizpideetan, diru-laguntzetan. Onuragarria litzateke, baita ere, aldizkari-tipo bakoitzari (kulturazkoak, pentsaerazkoak, zientziazkoak, literaturazkoak, informaziozkoak, etab.) tratamendu berezitua eta espezifikoa ematea.

- Kultur birmoldaketaren barruan leku berezia zor zaie kulturazko eta pentsaera- zein saio-aldizkariari. Orain arteko kokagune apalak, apalegiak, zaildu ezeze ia ezina bihurtzen du aldizkariok pentsaera propioaren sorkuntzan, iritzi-aniztasunean eta, noski, pentsaera nahiz iritzien trukaketa aberasgarrian eta eragiketan izan beharko luketen leku naturala lantzea. Beste horrenbeste esan daiteke euskararen eta euskal kulturaren normalizazioan bete behar duten lanaz.

- Eta bukatzeko. Aurtengo deialdiari dagokionez, hiruzpau kontsiderazio egin gabe ez genuke amaitu nahi:

— Diru gutxi, gutxiegi, destinatzen da aldizkariarentzat. Diru-kopuru hori ez zaie egokitzen aldizkariaren egiteko proiektuei eta ezta berauen premiei ere.

— Eskasa da diru-laguntza, eta urtero-urtero, gainera, gutxiago tokatzen zaio bakoitzari, aldizkariak ugalduz joan ahala ez delako diru-sapaia igotzen.

— Mekanismo gaiztoa, tranpa saduzeoa da kitapenerako jarri den baldintza nagusia, hots, aitorturiko defizita mantendu beharra baldin urteburuan diru-laguntza osorik jaso nahi bada. Guretzat, bi helburu bateratu eta nahasi egin dira hor: kontrola eta laguntza. Bi txori batera hil nahiak ez dakigu kontrola lortuko duen baina bai urrundu aldizkariaren zorra arintzea, gestio onaren saria diru-laguntzetan zigorra baita.

Lehen kolpez logikoa dirudien kontrol-sistema honek normalizaziora barik hondamendira eraman dezake aldizkaria. Ez baitu kontuan hartzen enpresa defizitarioen aurrekontuen izaera eta, ezta ere, kudeatzailearen egitekoa.

*Donostia, 1994.07.21*

# RIKARDO ARREGI ETA JAKIN: 25 URTE

25 urte da Rikardo Arregik gure artetik aldegin zuena. Abaguneaz baliatuz komunikabideetan Rikardori egin zaizkion gorazarre eta txaloak ez dira hark merezi gabeak. Gehiago ere merezi du, eta badugu egingo zaion esperantzarik.

Nola isilik egon *Jakin*? Duela 25 urte, 1969a, urte beltza izan zen *Jakin*-entzat. «Bi heriotza izan ditu *Jakin*-ek 1969an», idatzi zuen *Jakin* taldeak 1981eko 21. zenbaki extran. «Bata, Rikardo Arregirena, uztailaren 10ean, bide-istripuz; eta bigarrena, aldizkariarena berarena, abuztuaren 29ko debekuz». Rikardoren heriotzarekin aski ez balute bezala, honen plataforma eta pentsamendu-tresna zuen aldizkaria ere desagertarazi egiten dute. *Jakin*-en debekuak Rikardorekin uste baino zerikusi handiagoa du, hain zuzen ere Rikardok amestu eta

indarrean jarri zuen aldizkari-mota baita aginte frankistak desegiten duena.

## RIKARDO ARREGI, JAKINLARI

«Jakinlari»: honelaxe izendatzen zuen beren burua *Jakin* aldizkariaren lehen aldiko lankideek eratzten zuten lantaldeak. («Jakinlari» izateak zera esan nahi zuen: gazte izatea, 56.eko belaunaldiko partaidea, euskara eta euskal kultura berritu eta modernotu nahi izatea, ideia berrietara emana izatea).

Rikardo Arregik bere burua «jakinlari»tzat zuen, eta berak harro zioenez «aspaldi batean JAKIN'erako idatzi nuen artikulua batean ikusi nuen lehendabizikoz nere izena inprimaturik». (ZA, 1966, garagarrilak 28).

Rikardok aipatzen duen idazlan hori *Jakin* 15.ean, 1961ean, atera zen: «Balmes eta Kant jakinduriaren asieran».

Gerra, dozena t'erditik gora aldiz idatzi zuen *Jakin*-en, luze eta motz. Gure aldizkarian publikatu zituen garaiko euskaldungoa astindu zuten bere saio sonatuak: «Sozialismoa modan dago» (24 zenb., 1967), «Ezkertiar berriak» (25 eta 26 zenb., 1967), «Euskaltzaleen jainkoa ill behar dugu» (27-28 zenb., 1968). Saio haiek oso garrantzizkoak izan ziren bere garaian. Gerraosteko lehen belaunaldiaren zenbait alderdi nagusi ezin hobekiago laburbildu, formulatu eta azaldu baitzituen Rikardo Arregik artikulua horietan.

Rikardoren alderdi horiek, bere saiogintza, bere kazetaritza, etab., gutxi edo asko ezagunak dira eta jendearen eskura daude. Gutxiago ezagutzen den bere «jakinlari»tasuna azpimarratu nahi dugu hemen.

## RIKARDOREN GOGOKO ALDIZKARIA

*Jakin*-ek bere lehen hamar urteak egiten dituela eta, Joxe Azurmendik idazten ditu sarrera-orrialdeak. 1966an gaude. Iraganaren zenbait datu eta azalpen eman eta gero, «geroari

begira» atalburuan hartu beharreko bideetaz ari da Joxe Azurmendi.

Azken puntu honi heltzen dio Rikardok *Zeruko Argia*-n (1966.garagarrilla.28). Hiru bide posible ikusten dizkio *Jakin*-i, baina bat aukeratzen du berak. Hona bideak eta aukera:

JAKIN zertarako jaio zen ikusirik eta bere asmoak zer ziran ikusirik nik uste dut iru posibilidade auen artean egin behar duela aukera:

1.- Gaur egun JAKIN'en idazten duten nahiko laiko, baiñan ez dugu ahaztu behar aldizkariaren zuzendaritza prailleen eskuetan daudela. Jose Azurmendi'k dio egin ditekela sakristi usairik gabeko theologi berri bat. Ni ere ortan nago ta ori uste dut JAKIN' ek duen posibilidade bat. Euskalerrria'k ainbeste apaiz eta aiñ jakintsuak izanik ez ditu euskaldun bezela theologiaren prolemak pentsatu. Ori izan diteke posibilidadea. Baiñan ba dakit JAKIN'ek ez duela bide au bakarria artuko ta ontan geldituko. Era guztietara pentsatu behar dela uste dut.

2.- JAKIN izan diteke euskaldun katoliko pentsamentuaren aldizkaria ta gaurkoz orrelako zerbait dela esan behar. Ba dakit ez dela erabat konfesionala, baiñan existentzialismoaren soroan egiñikako sarrera txiki batzuek alde batera utzirik ez dut uste gehiago egin danik. Au da behar ba da JAKIN' ek duen biderik atsegingarriena.

3.- Jose Azurmendi'k dio JAKIN'ek herriarekin bizi nahi duela, herriaren prolemak bizi ta pentsatu nahi dituela. Ortarako beharrezkoa errealidadea bizi nahi baldin badugu beiñepeñ, beste ideialogiako jendeekin itzegitea. Ori izan diteke irugarren aukera, ideialogi guztietako katoliko edo ez, jendeen arteko elkar izketarako aldizkaria, Euskalerrriari buruz. Au da biderik zailena eta arantzaz josia, baiñan benetakoa. Posible ote da? Era guztietako katolikoak ez lukete ahaztu behar bentajarekin jokutzen dutela gaurko zirkunstantzietan».

Hiru alternatiba hauen aurrean *Jakin*-ek badaki hirugarrena dela berea. Eta horrelaxe erabakitzen du.

Aipatu testu hori 1966an idatzi zuen Rikardok. Hurrengo urtean, proposaturiko plataforma ireki eta moderno hori prak-



tikatzen hasten da, *Jakin*eko buruzagitzatik. Lantalde honen gogoia, izpiritua eta asmogintza ulertzeko *Jakin* 34. zenbakiko «Sarrera-Editoriala» da eredurik hoberena. Batzorde orohar-tzaile, koordinatzaile eta planifikatzaile gisa funtzionatu nahi zuen *Jakin*-ek, bereziki Rikardok. Editorial horretako ideia nagusiak bere-bereak dira, hala nola, idazleen elkartearena, editorialen liburu-politikarena eta alfabetatzearena. *Jakin*-ek, Rikardo Arregi-ekin eta Karlos Santamariarekin, hiru mailatan egituratu beharra ikusten zuen euskal kulturgintza: Euskal-tzaindia gidari; idazleen elkartearen produzitzaile; eta alfabetatzearen hedatzaile: «Alfabetatzearen bitartez Euskal Unibertsitate herritartu behar dugu».

Euskal kultura (eta honekin batean abertzaletasuna eta euskaltzaleatasuna bere osoan) berritzeko eta bizkortzeko planteamenduak dira nagusi etapa honetako aldizkariaren gai nagusietan ere, hurrenez hurren, «Jakintza berria», «Euskal Herriko hiru hereje» (Baroja, Unamuno, Salaberria), «Euskera idatziaz arnabatasuna», «Lehen karlistada», «Euskal Kultura» eta «Gaurko pentsalari bat» (Marcuse).

Garai hura gogoratuz, *Jakin* taldeak, bere 25. urtegarrean, idatzi zuena hona ekartzea iruditzen zaigu egokiena:

«Hogeitabost urtegarren honetan, bihoazkio zortzi urte oparoz lankide eta zuzendalkide argi bezain bizkor izan genuen Rikardori *Jakin*-en oroipena eta omenaldia. Bere pertsonalitate bortitzaren marka ezarri dio betiko aldizkariari. Rikardo, izan ere, *Jakin*-en «sortu» zen, aldizkari honetan estreinatutako luma 1961an, harrez gero beti gure bileretan izateko; *Jakin*-en produktu tipiko bat zen, kulturgintzaren bere kontzepzioan adina, bere akats eta guzi (literaturaren gutxiespenean adibidez), bere ekipoaren eta ekipo lanaren obsesioan, eta oinarritzeko beste hainbat ikus eta planteamoldetan euskal kulturari buruz. Ez da gutxiago aldizkariak Rikardori, haren dinamismoari eta ideia jarioari, zor diona. Bion historiak elkar josita geratu dira betikotz». (*Jakin* 21, zenbaki extra)

## JAKIN-EN HERIOTZA ADMINISTRATIBOA

Rikarb 1969ko uztailean hil zen. Bere *Jakin*-ek iraun zuen. Hilabete bat gehiago bakarrik, ordea. Abuztuaren 29an, oporetan, aldizkaria isteko agindua jaso genuen Madriletik.

Fragaren Ministerioak debekatzen duen *Jakin* ez da Arantzazukoa, kalera jaitsia zena baizik. Fraga Ministroak eta Ugarte Donostiako Delegatuak debekatzen duten *Jakin* ez da Balmes eta Kant-en jakinduriaz ari dena, baizik eta, sozialismoa modan dagoela eta euskaltzaleen Jainkoa hil behar dela aldarrikatzen duena.

*Jakin*, artean, Arantzazukoa zen izan. Ikasle teologoek aldizkaria, gainera. Zentsuraren erreinuan bestela ezina zelako, gaien aldetik eta idazleen aldetik mugatua zen oso. Hau da, teologia, filosofia, kultura zen bere eremu bakarra. Eta Arantzazuko ikasleek bakarrik idatz zezaketen. *De facto*, muga horiek ez ziren sekula gorde. Eta hori bazekien Administrazioak. Bazekien, hortaz, nahi zuenean erabaki administratibo hutsez gelditu zezakeela aldizkaria. Horrela jokatu ohi zuen frankismoak. Euskarazko aldizkari normalizatu bat, informazio orokorrekoa adibidez, ez zen posible frankismoan. *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia* ere ez ziren informazio orokorrekoak eta ezin zuten, kasurako, politika-gairik aipatu. Administrazioaren esku zegoen bada, beti ere, edozein euskal aldizkari. Agintearen ustetan «desbideraketarik» gertatzen zenean, erregistroa kendu, eta kitto.

Testuinguru horretan ulertu behar da *Jakin*-ekin gertatua. Debekua baino urtebete lehenago, 1968ko martxoan, Ugarte Donostiako Delegatuak abisua pasea zion Ministro jaunari: «Ocurre que en todos los números y muy especialmente en este último, los principales colaboradores son personas ajenas a la Orden y que, además pueden considerarse entre los progresistas más avanzados del País.

Caracteriza a esta publicación, en la mayoría de sus trabajos, estudios sobre el socialismo y marxismo, no tanto en lo que pudiera tener de conexión con la teología y la filosofía de un Seminario sino el socialismo y marxismo práctico de los países de la órbita rusa».

Urte bereko uztailean beste ohar batean honela kalifikatzen da Madrileko bertako zentsura-bulegotan gure aldizkaria:

«La revista JAKIN, tanto en este número como en el anterior, ha dejado de ser una publicación para los teólogos de la Orden Franciscana. Parece más bien, por los temas que toca y por los artículos, un intento de convertir esta publicación en una revista para intelectuales, con tendencia socialista dentro de un vasquismo a ultranza».

Abisu hauek, halere, ez zuten une horretan horren ondorio txarrik izan. «Amonestación verbal» eta kitto. Baina paper solte batean —eta eskuratu ahal izan dugu gero— kontsigna garbi bat agertzen da: «*Darles cuerda para que ellos mismos se ahorquen*». Zorionez edo zoritxarrez, Ministerioko barne-erabaki horren berririk ez genuen guk orduan. Eta aurrera segitu genuen, erregimenaren ustezko malgutasunean sinestuz ez bada ere hartaz baliatuz. Harik eta hurrengo urtean Damoklesen ezpata gainera erori zitzaigun arte. Ez zigorrik, ez epaiketarik izan genuen. Sinpleki, erregistrotik ezabatu zuten *Jakin*, argitaratzeko eskubide guztiak, betirako (bere ustez) kenduz.

Birritan hil zen Rikardo 1969an. Bera, pertsona. Eta bere hazia, bere lana, bere plataforma, *Jakin*.

# G AIAK

---

IDOIA FERNANDEZ

EMAKUMEA, HEZKUNTZA ETA NAZIOA EUSKAL HERRIAN

MIGEL ANJEL UNANUA

ANTZERKIAREN KRISIAZ

JOAKIN BALENTZIA

MACHIAVELLI-REN «PRINTZEA»

# EMAKUMEA, HEZKUNTZA ETA NAZIOA EUSKAL HERRIAN

*IDOIA FERNANDEZ*

---

**H**ogeigarren mende osoan zehar, euskal nazioaren erai-kuntza-prozesua pil-pilean egon den horretan, ezin da uka bertan hezkuntzak izan dituen eragina eta garrantzia. Hezkuntza, noski, bere adierazpenik zabalenean hartuta, eskolatzeaz gain hezkuntza ez formala eta forma gabeko heziketa bereganatzen dituena. Gure gaurko asmoa ez da, baina, euskal hezkuntzaren azterketa historikoa egitea, baizik eta prozesu historiko honen ikerketan erabat ahazturik gertatu den emakumearen eskuhartzearen esanahia aztertzea.

Izan ere, mende honetako euskal eskolaz ikerketak<sup>1</sup> egin diren arren, ez da inoiz prozesu hauetan emakumeak jokatu-tako papera aintzakotzat hartu, nahiz eta bere partaidetza (bai irakasle moduan, baita antolatzaile moduan ere) ekimen guztien osagai amankomun eta finkatua izan. Euskal hezkuntzaren historia, kasuotan, «genero neutro»tik irakurtzen dela ematen du, sexuen araberako errol sozialen banaketa hertsia eta hierarkia existituko ez bailiran jokatzen delarik. Zer gertatu ote den galde genezake; zergatik ez da inor emakumearen partaidetzaz erreparatu; badu datu honek, alegia mende honetako heziketa-lanen oinarrian emakumeak etengabe agertzeak, benetako garrantzirik? Gure ustez badu garrantzia, eta ez edonolakoa, alajaina.

Gure kasuan<sup>2</sup>, XX. mendean zehar euskal (beraz, euskarazko) heziketa eta emakume-iharduerak ezinbestez elkarturik agertzeak ikerketarako bide berriak kontuan hartzera eraman gaitu, baita historiaren irakurketan osagai honek duen funtsez-kotasuna baloratzera ere. Ikerketa berriaren kokagunea gerraosteko esperientzietatik abiatu arren, nazionalismo tradizionalak emakumeari ezarri ohi dizkion ideologia eta ekinbideak sakon aztertu behar izan ditugu, gerra bukatzen denetik ETAren inguruko nazionalismo berria sortu arte azaltzen den kode ideologiko nagusia baita. 1960tik aurrera, ordea, nazioaren eraikuntza modernotzearen bidetik sartzen den heinean hezkuntza-planteamenduetan zein generoaren eraikuntzan ere aldaketa nabariak somatuko dira, ideologia tradizionalaren arabera emakumeak hezkuntzan garatu behar zuen eredia adierazpen ahuldu gisa agertzen zaigularik.

Euskal hezkuntzaren eraikuntzan emakumeak garatutako kode ideologiko eta praktika pedagogiko ezberdinen azterketa egiteko erabili izan dugun metodologia ahozko historia izan da. Dokumentuak, oso gutxi izateaz gain, gure lanaren helburu ziren zenbait gaitarako eznahikoak zirela ikustean, elkarriketa sakonen beharra areagotu zitzaigun eta historiaren partaide zuzenengana jo beharrean sentitu ginen. Egoera nahiko ulerterreza da, egia esan. Euskal emakumearen errealitate hurbiltzeko orduan jasaten dituen zapalketa-mota

ezberdinen kontzientzia hartu behar dugu eta, honetaz ohar-turik, botere-guneetan soilik idazten den diskurtso histori-koan isladatzeko aukera izan ote duen buruari galdetu. Eran-tzuna erabat gardena da: ezetz. Euskal emakumeak gutxie-nez lau aldiz ukatuak baitira, emakumeak diren neurrian, nazio zapaldu baten partaideak diren neurrian, hizkuntza gu-txiagotu baten eledunak diren neurrian eta gizarte kapitalistako partaideak diren neurrian ere. Honexegatik hitza izan da kon-traesanak gainditzeko ikertresna, baita askabide-saio umila ere.

## EMAKUMEA ETA HEZKUNTZA GERRAURREAN

Emakumeen gizarte-partaidetzak XX. mendearen lehenengo epe honetan, egitura formalak (euskal eskolak), ezformalak (poxpolin eta dantzari taldeak, antzerki-taldeak, euskal kultu-raren inguruko lehiaketak...) eta forma gabekoak (familiaren barruko ideologia nazionalistaren birsorkuntza) biltzen eta nahasten zituen heziketa-lan erraldoi bat antolatu, gorpuztu eta burutu zuela esan dezakegu. Zorigaitzez, emakumearen mugimenduaren azterketak ez dira, oso ugariak, eta zenbait datu his-toriko aparte gerraurreko agitazio, propaganda, hezkuntza, mobilizazio eta lan sozio-politiko honek belaunaldi berrietan nolako eragina izan zuen erantzun gabeko itauna dugu orain-dio.

Industrialtze eta hiritartze azkar eta bortitzen aurreko erreak-zioz sortutako nazionalismo tradizionalak emakumeari atxiki-tzen dion eginbeharra esparru familiarrean koka dezakegu, bera baita arrazaren gordeleku eta familiaren ardatza Arana-ren ideologiari jarraiki: «La familia vasca tradicional asentada en el caserío, eje de las relaciones sociales y del funciona-miento económico y político de la sociedad pre-industrial, se convirtió para el nacionalismo en el referente simbólico que contenía en toda su pureza las principales señas de la identi-dad cultural vasca amenazada, tal como había sido formu-lada por Sabino Arana: la raza, la lengua, la religiosidad, las cos-

tumbres y las leyes tradicionales»<sup>3</sup>. Kokapen honek ez dio, baina, kontraesaten ikuspegi tradizional honexetan emakumeari ezartzen zaion beste funtzio garrantzitsuari, alegia, kultura eta hizkuntzaren zabalbide delarik emakume-lanak arlo kulturean izan ditzakeen pisua eta eraginari. Emakumeak, beraz, funtsezkotzat hartuak izango dira arlo familiarrean, baita neurri batean arlo publikoan ere, baina partaidetza hau gizonezkoak muina diren hierarkia konkretu batean zehaztuko da eta kutsu politikoaz erabat gabetuta agertuko zaigu. Ariztimuñok honela azaltzen du: «Juzgamos que la mujer, por la función excelsa que está llamada a desempeñar en la sociedad, no es conveniente intervenga en las luchas políticas mediante el uso del sufragio, sin que ésto indique que no pueda y, más aún, deba desarrollar una actividad patriótica intensa»<sup>4</sup>.

Oso interesgarria da, ildo honetatik, nazionalismo tradizionalen emakumeari buruz idatzi zuen Robustiana Mujikak («Tene») abertzaletasuna eta politikaren artean azpimarratzen zuen ezberdintasuna<sup>5</sup>. Eta horretarako arrazoiak ez ziren gainera halabainakoak, nazionalismo tradizionalen emakumeak kontraesan sakon batean baitzeuden murgildurik. Emakumeek Europako mugimendu sufragisten aurrean, liberalismoaren ikurra zirelako eta emakumeei ezarritako ama-funtzio tradizionala mehatxatzen zutelako, erreakzionatzen zuten bitartean, sufragistek beraiek aldarrikatzen zuten emakumearen partaidetza publikoa gero eta indar handiagoz sentitzen zuten, hau nazionalismoaren garapenerako garrantzitsu bihurtzen ari zen neurrian. Ereku publikoan sartzeak sortzen zuen kontraesana Tenek eginiko bereizketaren bitartez salbatzen zen, alegia, politika pentsakeraren esparruari zegokionez gizonezkoen espazio «naturala» zen, abertzaletasuna, sentimenduak ukitzen zituenez, emakumeen espazioa bihurtzen zen bitartean. Baina sentimentuek gidatutako abertzaletasunak familiarren espaziotik at aritzeko balio izan zuen, nahiz eta garatutako funtzioa ama funtzioa<sup>6</sup> izan.

Emakumeen papera bigarren mailako eta gizonezkoaren araberrako izatearen ideologia honek nazionalismoaren baitan urte askotan iraun zuen arren aldaketa nabariak jasango



zituen emakumearen partaidetza gauzatu, eta garapen eta nortasun handiagoa eskuratuz zihoan heinean.

Mende-hasieran gizartean zegoen kontserbadurismoak bilakatzeko ez badio ere, oso data goiztiarretatik topa dezakegu emakumearen ekarpena nazionalismoaren parametroetan. 1907.ean Purificación Gorostiza «Garbiñe»k, Aberri eta Gipuzkoarra aldizkarietan argitaratutakoarekin, emakume batek prentsan idazten hastea suposatu zuen. Berehalaxe, bere garairako oso gogo ausartian, Rakel Alda «Kataliñ»ek «Asociación Femenina Nacionalista Vasca» izeneko antolatzea proposatu zuen, nahiz eta «Libe»k proposatutako «Ropero Vasco»aren antolaketa aurrera egin zuen bakarra izan<sup>7</sup>. Ekimen hauek aurkezten zuten aurrerapena espazio pribatutik irten eta kolektiboki funtzionatzen hasteko gogoan zetzan, eta ez ordea eduki zehatzetan. Edukion jite tradizionalaren adibide gisa, proposamen hauek agertu bitartean Nafarroan Jenaro de Goyenetxe, emaitzik gabe, baina bultzatzen zebilen «Liga de Jóvenes Vascas» izenekoarenak ditugu: «el compromiso de no casarse con ningún extraño ( a la raza vasca, por supuesto), enseñar a los niños el euzkera hablándolo exclusivamente en familia, pagar una cuota pro-escuelas vascas, y por fin, de modo más general, a conservar y propagar las modas, cantos, bailes, vestidos, comidas o menús, juegos, danzas, etc., indígenas, y de un modo particular a no bailar jamás ningún agarrao»<sup>8</sup>. Pasarte txiki honetan ondoko urteetan emakume-ekimenen ardatzaren hazia agertzen zaigu aipatuta, hots, hizkuntzaren babespena, eskolarekiko kezka eta euskal «tradizioaren» zabalkundea.

Lehenengo momentuetako asmo hauek antolatze-adierazpen xumeenera baino ez ziren iritsi; emakumeak, ideologia tradizionalak mugatuta, ongiegiteari edo benefizentziari ekin behar izan zioten, 20. hamarkadarekin aldaketa etorri zen arte. Emakumeak euskal gizartean eduki behar zuen paperaren erakuntzan lehenengo jauzi kualitatiboa nazionalismoaren barruan lehian zeuden joera biren arteko markoan eman zen. «Comunión Nacionalista Vasca»-k ordezkatzeko zuten pentsamendu autonomistak eta «Juventud Vasca»-k ordezkatzeko zuten belaualdi independentzizale gazteak emakumearen auzian ere bero-

nen paper sozialari buruzko kontzepzio ezberdinak gordetzen zituzten, batetik aipatu dugun kontzepzio tradizionala eta bestetik Irlandako Sinn Féin mugimenduko Cumann nan Ban emakume-erakundetik<sup>9</sup> hartuko zena. Irlandako ereduarekin emakumearen esparrua zabaldu egin zen, familiarik plazara, kalera, gizonezkoak heltzen ez ziren mundu publikora: «...hasta entonces la mujer nacionalista había quedado confinada al papel de símbolo (Madre Vasca) en el orden privilegiado de la familia. Apoyándose en el ejemplo irlandés, los jóvenes del Aberri intentarán dinamizar el símbolo, aún sin renunciar a sus características tradicionales»<sup>10</sup>.

Aldaketa nabaria da. Emakumea lehenengo sozializaziorako, hots, familia sozializazio-egile izatetik bigarren sozializazioan eskusartzera pasatu zen, umeak eta gazteak mobilizatu eta hezitzearen ardurua emango zitzaizolarik. Era honetan etxeko ormak gaintutuz kaleko lanari ekiten zion, esparru pribatutik publikora pasatu zen, gizonezkoei zegokien esparru horretarako lehenengo urratsa emanez.

Umeen eta gazteen bigarren sozializazio honetan emakumeen heziketa-lana oso zabala izango zen. Bere Manifestuan hiru helburu aipatzen ziren espreski, euskal nazionalismoaren esana zabaltzea (arlotan honetan agitazio eta propaganda lanak sartuko lirake, hots, iharduerarik politikoenak dei genitzakeenak), ongiegite eta benefizentzia lanak garatzea eta kultur mailako ekintzak burutzea. Azken honetaz zera esaten zuten:

«Esta institución se propone cultivar, con todo cariño, la educación cultural del pueblo, estableciendo cuantos organismos sean precisos, para que nuestros hermanos, y especialmente los niños, desarrollen sus facultades en su preparación para el porvenir, dentro de un ambiente patriótico.

A este efecto creará clases y fundará escuelas para niños, fomentará su literatura apropiada con cuentos, narraciones, lecciones, etc.; iniciará el teatro infantil; cultivará su inteligencia con clases de solfeo y piano; ordenará sus aficiones con grupos de hilanderas, ezpatadantzaris y juegos propios; creará el amor a su lengua, estableciendo clases de euzkera, y preparará a la mujer patriótica con enseñanzas prácticas, labores domésticas etc»<sup>11</sup>.

Euskal kulturaren eta euskararen irakaspenetan berebiziko arreta jartzen zuen emakumeen araudiak, bai familian baita gizartean ere, eta azpimarratu nahi genituzke «irakatsi» eta «instrukzio» formalaz egiten zituen aipamenak:

«Debe tener un concepto verdadero e instruir en él a sus familiares, sobre todo a sus hijos, en las nociones de Patria, en la historia de Euzkadi, de sus características, de su derecho, de sus aspiraciones nacionales (...).

Que sus hijos conserven, fomenten, aprendan el euzkera. Esta es la actuación más directa e inmediata y de más fruto en definitiva (...).

Si sabe el euzkera, fomentarlo, no hablar en erdera sino por necesidad. Hacer ambiente euzkeldun (...).

Hacerse profesora, a cada momento, del euzkera, procurando difundirlo»<sup>12</sup>.

Manifestu honetan agertzen ziren eginbehar guztiak ez ziren indarrez azaleratuko Errepublikam etorrera arte, Primo de Riveram Diktadura bitartean Emakume Abertzale Batza legez kanpo egon baitzen. Baina 1931.etik aurrera emakumeen erakundeak izugarritzko hazkundea ezagutu zuen, egoera politikoak ahalbideratuta eta Errepublikak ezarri zituen Elizaren kontrako neurrien aurreko erreakzioaren ondorioz.

Policarpo de Larrañagak ematen dituen datuen arabera Hego Euskal Herrian 28.500 emakume bazkide egon ziren (Bizkaian 15.000, Gipuzkoan 10.000, Araban 1.500 eta Nafarroan 2.000), eta orotara ziren 550 udalerrietatik 205etan bazeuden emakume-taldeak, eta 113 talde gehiago eratu bidean zeuden<sup>13</sup>. Azken datu hauek oso garrantzitsuak direla uste dugu, azken batez Bizkaia eta Gipuzkoako herri ia guztietan emakume-taldeak zeudela adierazten baitigute, eta, Araba eta Nafarroako antolakuntza-maila baxuagoa izan arren antolatzen hasiak zirela ohar baikeitezke.

Policarpo de Larrañagaren lanak emakume-talde ugari hauek burutu zuten lanaren berri ematen digu era zehatz batez, baina hezkuntza-lanekin lotura zuzenagoa daukatela zerak aipatuko ditugu:

a) Hezkuntza Formalaren eta Arautuaren arloan: lehenago ikusi dugun bezala, Euzko Ikastola Batza Emakume Abertzale Batzak eta Juventud Vascak antolatutako izan ziren. Ikastoletako maistra guztiak EABko afiliatuak ziren (orotara 35 maistra). Baina honetaz aparte, auzo-eskoletan eta bestelako eskoletan lan egiten zuten hainbat maistra ere EABko partaideak ziren (200etik 150 baino gehiago auzo-eskoletan; zehaztu gabeko kopuruan udal eskoletan). Larrañagak zera gaineratzen du «Las que ejercian en las escuelas vascas de Donostia, Tolosa y otras, eran todas Emakumes»; orotara 500 maistra eta 25.000 umeren gaineko eragina<sup>14</sup>.

b) Hezkuntza Ez-Formalaren arloan: lehen aipatu dugun bigarrensozializazioa burutzeko ume eta gazteei zuzendutako ekintzen antolaketa motorra dira emakumeak (Donostiako poxpolinak eta Labordaren pedagogia musikala, euskal eskoletara joaten ez ziren umeentzako dantza, kanta, antzerki, ibilaldi, festa eta bestelako ekintzen antolaketa, Gaztetxoaren Batzarren sorrera eta garapena...)<sup>15</sup>.

d) Emakumearen Formazioa: maistrak eta erizainak formatzeko eskolak, heziketa orokorreko saioak (erlijioa, nazionalismoa, propaganda, euskal historia, euskara, folklorea...), sukaldaritza, josteta, neskameentzako klase ezberdinak... etab.

Esperientzia honetatik ondorio batzuk atera ditzakegu, begi-bistako datuekin. Batetik, Euskal Herriko historian emakumearen antolakuntzaren lehenbiziko saio hau guztiz zabala, herri asko eta askotan hedatua, nazionalismoarentzako funtsezkoa, eta emakumeentzat subjektu sozial bezala guztiz berria eta esanguratsua izan zela esan dezakegu. Bestetik, eta euskal hezkuntzari ari gatzazkiola, emakumea gauzatu ziren heziketa-maila guztietako hezle eta eragile agertzen zaigu, nazioaren ideien birsorkuntzarako ezinbesteko katemaila. Azkenik, emakumeek, egitura sozio-politiko batean zeuden heinean eta eginbehar amankomun batek lotzen zituen neurrian, euren arteko komunikazio-sare estu bat eho zutela buka dezakegu.

Errepublikara garaiaren aipatutako tamaina handiko emakumeen heziketa-lanak, alegia, nazioaren ideia finkatzeko eta birsortzeko burutu zen heziketa-lanak gerraostean nolako eragina izan ote zuen galde geniezaioke geure buruari. Egia esan, gerra bezalako gertakari traumatikoaren eragina ulertzea lan hagitz zaila iruditzen zaigu, baina elkarrizketatutako jendearengan ikusi ahal izan dugunez banakoengan zein kolektiboan estigma sakona inprimatutako pasarteak izan zen. Hala ere, emakumeen kolektiboa oro har zuzenean erreprimaturik (fusilamenduak, pertsekuzioa eta gartzela) izan ezenez, birsorkuntza ideologikoa gauzatzen zuen tresna eraginkorrenetako bat salbu mantendu zen. Honen inguruan A. Elorzak honelako hipotesia plazaratzen du: «Cabe pensar que todo ello, si sirvió para acompañar la extinción legal del movimiento femenino abertzale, no tuvo la menor eficacia a la hora de borrar las convicciones ideológicas de las vencidas. Nuestra hipótesis, ciertamente por contrastar, es que la actuación de la mujer nacionalista en la formación de las nuevas generaciones, con el concurso de la politización anterior a la guerra, constituye uno de los factores principales a la hora de explicar las formas de resurgimiento nacionalista en Euskal Herria en la década de los cincuenta»<sup>16</sup>.


## EUSKAL ESKOLA MODERNOTZE BIDEAN: EMAKUMEAREN EREDU BERRIA

Birsorkuntza ideologikoa aztertzeko hezkuntza formala, ez-formala eta forma gabeko heziketaren irizpideak erabiltzea baliagarria zaigu. Forma gabeko heziketari dagokionez, eta errepresio garai batean gaudela ahaztu gabe, euskal nazioaren edukien komunikazio difuso hau familiaren esparruan eman zela uste dugu, lehenengo sozializazioa zela medio. Forma gabeko heziketa honen ezaugarriak ez ditugu, baina, oraingo honetan aztertu, eta egun eskuartean dugun ikerketa bati dagokio. Hezkuntza formala eta ez-formala izan dira gure gakoak, eta gerra bukatu ondoren Donostian E. Zipitriaren

inguruan antolatutako *etxe eskola* ideologia tradizional honen adierazpen gardena dela baieztatu dezakegu.

Zeri deitzen diogun *etxe eskola* eta zertan zetzan galdetu behar genuke. Gerraosteko euskal hezkuntzaren historian abiatuz gero oso data goiztiarretik (1943.etik aurrera) antolatatu zen euskal eskolaren esperientzia aurki dezakegu, Donostiako Parte Zaharreko pisu batean Muñoaren eskolako irakaslea eta Euzko Abertzale Batzako militante eta hizlaria izandako E. Zipitriarena hain zuzen. Eskola honek bederatzi urte bitarteko neska-mutil euskaldun batzuk erdal eskoletara joan aurretik ama-hizkuntzaz alfabetatzeko helburua zuen eta bere antolatze-azpiegituran Donostiako E.A.B.ren emakume-sare auzo esangoa izan zen. Era honetara gerraurrean belaunaldi berrien sozializazioaren ardura zeukaten emakumeek, kasu konkretu honetan eta egoera ezberdinak gurutzatu zirelarik behintzat, gerraosteko egoera politiko itxian nazionalismo tradizionalaren genero eraikuntzak zehazten zuen ihardueretako bat martxan jarri zuten, guk *etxe eskola* deitutakoa sortuz. Baina, dudarik gabe, *etxe* eskolaren barruan aztertu ahal izan dugun hezkuntza-ideologiaren taupada dugu Donostiako esperientzia murriztu honen ezaugarriak interesgarriena, zeren sakondu eta berehala gerraurreko mundu nazionalistaren ideologiarekin topo egin baitugu<sup>17</sup>.

Hala ere, gerraurreko euskal eskolan zein Donostiako *etxe* eskoletan emakumeek jokatu zuten papera eta azpian zekarren ideologia pixkanaka aldatuz joango zen ikastolen mugimendua garatu ahala, zeren *etxe* eskolak nazioaren kodeak birsortzeko eta belaunaldi berriei komunikatzeko balio izan zuen arren ahulduz joango zen adierazpen bat baino ez baitzen izan. 1960.etik aurrera martxan jarri ziren aldaketan mamian emakumearen askapen-mugimenduek eta munduan heziketak jasaten zuten goranzko garrantziak familiaren ideologia desplazatu zutelako dela esan dezakegu. Eraldaketa hau errotikoa izan zela pentsatu dugun, eta, gizarte tradizionaletik modernora heziketa funtzio maternalaren luzapen soil batetik funtzio sozioekonomikoa betetzera nola igaro zen ulertzeko balio digulakoan gaude.



Euskal Nazioa eta Eskolaren osagaiak.

Zipitriaren etxe eskola gerraurreko eskolaren adierazpen ahuldu gisa hartzen badugu, emakumeak hezkuntzan izan duen eskuhartzearen momentu ezberdinen karakterizazioa egin dezakegulakoan gaude. Izan ere, hezkuntzari, sozializazioaren prozesuen bidez, «arrazaren bitartez lotuta dagoen familia»ren edukiak gordetzearen funtzioa bete beharra ezartzen zaionean, eragile gisara agertzen zaizkigunak emakumeak dira: amak familia txikiko lehenengo sozializazioa zainduz, andereñoak bigarrenen eta emakumeen erakundea umeen eta gaztetxoaren hezkuntza ez-formalaren lanaren karguan (aski adierazgarria da Tene Mujikak berak familiaren inguruan esaten duena: «senide arteak dagin sendi txikitik at, abendak dagin sendi aundi barruan ere»). Datuen arabera, eta nazionalismoaren ideologiak hala aginduta, emakumeek hezkuntza-funtzioaren ia zama osoa zeramatela esan genezake, bai arlo formalean baita arlo ez-formalean ere, gizona ez diren funtzioak

beste arlo batzuetara bideratzen ziren bitartean. Zipitriaren etxe eskolan, hezkuntza-funtzioa betetzen zuen emakume-komunitatearen nortasuna oso nabaria zen; emakumeek («las emakumes») osatzen zuten Zipitriaren lanaren azpiegitura, eta eurak arduratzen ziren eskolaren egoitzaz, kuotez, jaiak antolatzeaz, ordaindu ezin zutenei begira elkartasun-kutzaz, etab. Honi, emakume-sarea deitu diogu, eta familiaren barruko erroren banaketa handi baten ondorio gisa interpretatu dugu E. Botten<sup>18</sup> ikerketen argitan. Lehenengo momentu honetan ere, oso nabaria da «familia»ren kontzeptua eta ikasleen hautaketa irizpide horiekin bideratzen dela soma daiteke (Zipitriaren etxe eskolako ikasleak bere hurbileko emakumeen seme-alabak ziren, baita beroien senideak ere. Etxe eskolako ume-kopurua hamarrekoa zenez, ikaslea izateko aukera «senide» izatearen irizpideari jarraituz egiten zen).

Ikastolen sorrera rekin hezkuntzaren ardura osoa daraman emakume-komunitatearen lehenengo aldaketak etortzen dira, zeren nazionalismoaren ikurra arraza eta ohituretatik hizkuntzara desplazatzen denean, hezkuntzak bete behar zuen gordez (kontserbatze) funtzio estu horretatik beste funtzio zabalago bat betetzera igarotzen baita. Begi-bistakoa da arraza ezin dela eskuratu, gorde baizik; hizkuntza, berriz, gorde eta berreskuratu daiteke, horretan herri-lanak pisu berezia hartzen duelarik. Ikastolak hizkuntza eskuratze horretan sartzen direnean, familiarren barruan, genero-harremanen aldaketak eraginda, hezkuntza-funtzioaren ardura ez emakumeari bakarrik baizik eta gurasoei dagokiela somatzen hasten da, hezkuntzarako ordura arteko emakume tradizioa «mistoagoa» bihurtzen delako ondorioarekin.

Hala ere, irakaskuntzan aritzen zirenak andereñoak ziren, agian legeak horrela agintzen zuelako, agian euskal hezkuntzaren historiak eta ideologiak ere horrela bideratzen zutelako, baina ikastolagintza gizartean esanahi soziopolitiko hartzen joan zen heinean eta sekulartzeko-prozesuarekin topo egitean, gizonezkoak ere ikastoletako irakasle sartzen hasten dira: «Un aspect à signaler c'est l'incorporation progressive du personnel masculin, très peu nombreux au début des années soi-



xante et qui en 1975 représente dans la province de Guipuzcoa un tiers du total. Cette augmentation a été assez influencée par le fait que la jeunesse basque accepta l'ikastola comme un engagement de militance, et aussi par la crise que affecta la vie des Séminaires Diocésains à partir des années soixante. Au Pays Basque, un pays où il y avait beaucoup de vocations religieuses, la plupart des séminaristes qui abandonnèrent les études ecclésiastiques choisirent de se vouer professionnellement à l'enseignement dans les ikastolas<sup>19</sup>. Sekulartze hau oso tamaina handikoa izan zen; Paulo Iztuetak<sup>20</sup> ematen dituen datuen arabera, 1959-60.ean Gipuzkoan 198 apaizgai («seminaristas mayores») eta Bizkaian 185 zeuden bitartean, 1973-74.ean 14 eta 74 zeuden batean eta bestean. Datu hau eta Garmendiak esandakoa kontuan hartzen baditugu, ikastolen hazkunde indizerik handienean zegoenean irakaslegoaren iturri garrantzitsuenetako bat apaizgai hauek izan zirela ikusten dugu.

Aldaketa hauekin batera, tradizionalki hezkuntza-funtzioaren eragilea zen emakume-komunitatea zeharo urtuta<sup>21</sup> geratu zela esan beharra dago. Arrazaren lekua hizkuntzak hartzean, familiarrena herriak hartzen du, eta azken honetan hezkuntza, hizkuntzaren eskuratze-prozesuaren zutabea denez, herriaren betebeharra bihurtzen da, emakume-komunitatea zena herri-mugimendu bilakatuz, eta C. Borderiasen esanetara komunitatea «mistizatu»z. Elkarriketetan aldaketa hau pisuzko bezala antzeman dezakegu zeren honi buruzko komentarioak ez baitira falta izan:

*«Bueno, gerotxuago etorri zen seminarioetako boom hura, apurtze hura. Seminarioetan zegoen orduan ikasle mordoa eta iada apaiz egiteko atera orduan, eta bapatean hustu egin zen eta klaro eurek ez zekiten lanean, ez zuten lanik egiten. Orduan ikastoletan sartu ziren, batzuk konbalidatu zituzten euren ikasketak magisterioarekin edo kurtsillo batzu Valladoliden edo eta tituloak lortzen zituzten. Gero momentu batetan egon zen irakasle nahiko tituloduna, momentu bat egon zen, ez dakit noiz izan zen, 70ean edo, irakasle nahikoa, batez ere gizonezkoak, eta guk ez genuen sekula ezagutu ikastola mailan gizonezkorik eta orduan gizonezko mordoa zegoen eta, batean eta bestean beti bilatzen zen»<sup>22</sup>.*

Sekulartutako gizonezko hauek ikastoletan sartzeraoan praktika pedagogikoaren desitxuraketa ekarri zuten, zeren andereñoen formazio pedagogiko enpiriko eta paraleloa unibertsitateko goi-mailako titulue(ki)n aurrez aurre jartzea probokatu baitzuen. Irakaslegoaren mistotzeak, batez ere suertatu zen egoeran (ikastolen hazkunde azkarra eta egoera sozio-politiko nahasia), eragin zuzenak izan zituen, bai pedagogi mailan baita eraketa-mailan ere.

Pedagogi mailakoa ondo laburtuta gelditzen da ondoko testimonioan:

*«Guri orduan iruditu zitzaigun Elbirarena pittin bat osatu zitekeela ezta? Eta hasi ginen hango Freineten teknika batzu eta sartzen, baina gero ez zuen funtzionatu. Hori, urte horietan gertatu zen, izugarri haunditzea ere iada guk egin behar genuen bezala, lehenengo karrera gero oposaketak eta gero praktikak, egite hori inork ez (...). Guk ez dugu ezer prestatu, guk jaso egin genuen hori, guk ez dugu asmatu, kondizioak ez ziren egokiak izango, bueno, iada gero sartzen hasi ziren apaiztegietatik atera zirenak eta praideak zirenak eta horrelako abar, bar, barra, haiek dena zekiten! haiek denetan jakinak ziren! e? Eta etorri ziren, pentsa, horiek dena zekiten! dena zekiten, eta pentsa zenbateraino urratu zituzten bestearen arrotik genuen arrasto guztiak e?»<sup>23</sup>.*

Praktika pedagogikoaren analisisan ikusi ahal dugun bezala, andereñoen bilatze horrek ikastolak pedagogia kritiko eta alternatibora (Freinet eta Freire) hurbildu bazituen ere, instituzionaltzearen epean pedagogia konstruktibistarako norabide-aldaketa antzeman daiteke (pentsa dezagun Saioka esperientzian, adibidez), nolabait eskolari kutsu «akademizista» handia inposatuz.

Eraketa-mailan ere, ikastoletako irakaslegoaren aldaketa soziologikoak bere eragina eduki zuen, eta batzuen ustez ez da gehiegi urruntzen gatazkaren gakoetatik:

*«...baina neretzako ikastolak okertzen hasi ziren, bueno, okertu, istiluak hasi ziren sartu zirenean intelektualak. Irakaskintza maisuaren artean zegoen bitartean ba bueno, ez genuen problemarik izango, baina iada hasten dira pedagogoak, filosofia eta letrako*

*lizentziatuak sartzen eta abar, eta horiekin sartzen da beste nortasun bat, hasten dira okertzen harremanak guraso eta irakasle...»<sup>24</sup>;*

*«Eta gero gertatu zen orduan seminariotik ateratako jende asko nola zegoen, nik esango nuke pixka bat enpatxatuta seminarioarekin edo, bai, nahiko iguinduta, ba harek kontra jarri ziren eta orduan gure sofrimendua batzu alde batetik eta beste bestetik, ba asko sofritu genuen e?, asko, orduko sofrimendua, momentu hartan asko».<sup>25</sup>*

Irakaslegoaren mistotze-prozesua (nolabait hezkuntza-sistemaren erabateko mistotzea ekarri zuena, alegia) ez zen isolatuki gertatutako aldaketa izan. Egoera soziopolitiko nahasia, ikastolen hazkunde ikaragarria, Estatu Espainoletik etorritako 1970.eko «Ley General de Educación» izenekoaren formaltze eta kontrolatze-joerak izan ziren, besteak beste, ikastolen barruan kontraesan sakonak sortaraziko zituzten aldagaiak.

70. hamarkadaren hasieran, sozialki nortasun finkoa eskuraturik zeukan ikastolen mugimendua kontrolatzeko gatazka plazaratzen da, eta gaian sartuko ez garen arren, emakumearen eredia eztabaidagai bihurtu zen. Une horretan emakume-eredu ezberdinak lehian agertzen zaikigu, agian ideologia tradizionalaren adierazpen ahulduaren azken arnas gisa. Errepublikara garaiko euskal eskoletan, eta bere jarraipen zuzen(eko)tzat hartu dugun etxe eskolen erudian, emakumea, ama funtzioari jarraituz, heziketaren arduradun bakarra agertzen zitzaigun, bai egiturari dagokionean —emakume-sareak— bai irakasteen ere andereñoak. Emakumeak, famili mailako sozializatzaile bezala kontzeptualizatuz, familia nazionalistaren sozializatzaile izatera igaro ziren, kode nazionalista eta erlijio-soa birsortzeko tresnak bere eskupean utziz. Ingurune honetan, andereño-eredu latente bat susmatzen genuen, alegia, andereñoak emakume euskaldun eta elizkoia izan behar zuen, monja eta amaren arteko statusa betetzen zuena; bere funtzioa, amak familia txikian betetzen zuen berdina, baina familia handian.

Nazionalismo tradizionalak bere egiten du eskema hau, hezkuntza eta emakumearekiko. Gerraostean, baina, Europan zehar garapen ekonomikoak bultzatutako egoera berrian,

emakumearen papera aldatuz joan zen. Nekazal gizarte batean betetzen zuen funtzioa ez zegokion industrialdu eta hiritartutako gizarteari, eta aldaketa hauek euskal eskolan ere eragin zutela esango genuke. Batetik, andereñoen «zuzentasuna» eta irudi mistikoa, haize berriek joko zuten, lehenengo erlijioaren formetan, eta beranduago gainontzeko jokaeretan ere. Eta bestetik, euskal eskolaren azpiegitura ziren emakume-sareak «mistotu» egin ziren, heziketak gizarte testuinguruan hartzen zuen garrantziaren arabera. Honela, ikastolaren sorrerarako emakume-sareak desagertu eta gurasoen sareak agertzen dira, nahiz eta irakas-funtzioa emakumeen, hau da, andereñoen eskuetan soilik egon. Baina «mistotze» hau ez zen bere horretan geldituko, eta 70. hamarkadarako, hazkundearen halabeharrez, irakaslegoa ere mistotzen dela ikusten dugu. Zer gertatzen zen andereño-irudiarekin, aldaketa guzti hauen ondorioz?

Erregimenaren teknokraziak eta erlijioaren garrantziaren erlatibizatzek emakumearen egoeraren aldaketak erraztu egin zituzten. Europa mailan, emakumeek lortutako hobekuntzak nabariak ziren bai sexualitatearen askapenean (pilula, jaiotze-kontrolaren zabalkundea..), baita gizartean eta lan-munduan ere. Hondasun ekonomikoak ekarritako haize liberalek jotzen zuten, eta Euskal Herrira ere hurbildu ziren. Horrelako aldaketak aintzakotzat hartzeko esparrurik sentsibleena gazteria zen, eta euskal munduaren barruan horietako batzuk andereñoak ziren. Euren jarrera berritzaileen aurrean Elizak ere erreakzionatu zuen: «Amodio askatasunaren hitzak merke saltzen asiak dira gure artean. Aragikeriaren eta lizunkeriaren ikusketa (feria) egin berri da Copenhague-n. Hauek dira gaurko munduaren aizeak. Jainkoa saltzea asiera besterik ez da. Jainkoaren eriotza nahi luke gaur munduak; eta huste gabe. Euskalherriko aingeru txuriak bide hortan sartuak dira. Asko beintzat»<sup>26</sup>. Pedagogia berriak ekartzen zituen kalte haietako bat: «ARAGIZKOA. *‘Bere illeko aldia ezagun bear du neskattoak, ‘amodio askatua’ arriskurik gabe bizitzeko.*». «Asieratik, ikastolak *‘Pedagogi ‘berriak’ legez-erabakia du onen beharra: neska-mutilen arteko naste-aztea.*». Eta *‘aragizkoaren irakaspena’; sines-gabeko Lafora jaunaren liburuz, ezta?»<sup>27</sup>.*

Andereñoaren eredu ideal hura erabat etenda gelditu zen. Garai berriei beste andereño, edo hobeto esanda, beste irakasle-mota zegokien, eta ez ziren horretan atzera gelditu. Emakumearen askapenaren ingurukoek, euskal eskolaren munduan izan zuten eraginaren garrantziaren froga euskal kulturaren beste esparru batzuetan isladatzea izan zen. G. Arestik<sup>28</sup>, poesia sozialaren adierazlerik inportanteenak, idatzi eta Oskorrik herriz herri kantatutako «Adela»-z ari gara, jakina. Poema honetan, euskal eskoletan bilakatzen ari zen gatazkaren erreferentziaz gain, andereñoa den emakume berriaz ari zaigu Aresti. Adelari eginiko poeman, hizkuntza poetikoaren bitartez bada ere, emakumearen, eta zehazkiago andereñoen gaurkotzearen gakoak aurkitzen direla uste dugu. Lehenik, euskal eskoletako gatazka eta klaseen arteko borrokaren aipamena dugu, gaiari plazaratze soziopolitiko sendoa ematen zaiolarik. Arestik, hau abiapuntu hartuta, Adela beraren definizioari ekiten dio: «Hain sinple sinpleki/ joan hatzaigu hi/ Adela geuria/ Adela herria/ Adela berria/ gure Adela gorria». Arestiren begietan andereñoa den emakume hau «geuria», «herria», «berria» eta «gorria» bezala deskribatzean, emakume askoren irudia antzematen dugu, Zipitriaren eredutik erabat berezitateko andereñoa. Euskalduna, kolektiboa, berria eta ezkertiarra, beraz, gizarte-konpromezuzko kokapena duen emakumea.

60. hamarkada euskal munduaren eraldaketa-garaia dugu. Bertan ekoiztu eta sintetizatu ziren modernotze-prozesuaren jarraibideak, eta hainbat arlotan bezala eskolagintza eta generoaren eraikuntza ez ziren salbuespenak izan. Aldaketak, baina, ez dira baretsuak izan. Nazionalismo tradizionalaren diskurtso kontserbadorean emakumeari ezarritako eskemaren apurketak erreakzioa ekarri zuen, nekazal munduaren emakumearekiko ikuspegia guztiz urratuta gelditzen zen heinean. Bertan ez zegoen ama-funtziotik at zebilen emakumerik, horixe baitzen egile sozial bezala zegokion eginkizuna. Emakumeak ama-funtzioa ez den beste funtzio soziala eskuratzen duen neurrian familiaren ideologia apurtzen da, nazionalismo tradizionalaren ideologiaren zutabeetako bat arriskuan jarriz eta denbora igaro ahala desagertaraziz.

1. ARPAL, J., ASUA, B. eta DAVILA, P. (1982): *Educación y sociedad en el País Vasco*. Txertoa. Donostia. ARRIEN, G. (1983): *La generación del exilio*. Onura; ARRIEN, G. (1987): «Educación y escuelas de barriada en Bizkaia». Bizkaiko Foru Aldundia.; ARRIEN, G. (1993). «Bizkaiko ikastolak, 1957-1972. Beren hasiera eta antolaketa». *Cuadernos de Sección: Educación*, 6. ARANBURU, X. (1990): «Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Maria Dolores Goya (Groseko ikastola)». *Cuadernos de Sección: Educación*, 3 ; ARANBURU, X. (1991): «Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Elbira Zipitriaren biografiarako jakingaiak: Ikastola Donostian 1942-1969 urte bitartean». *Cuadernos de Sección: Educación*, 4.
2. Hemen azaltzen dugun gai hau ikerketa zabalago baten atala da. Bertan, eta hezkuntza-alorretik gatzela, XX. mende osoan zehar azalduko euskal eskola saioren ikusketa egiten dugu, bereziki 1960.etik aurrera gizartean plazaratutako *ikastola* gertakaria era zabal eta taxuzkoan ulertu ahal izateko. Ikus: FERNANDEZ, I. (1993): «Ikastolen mugimenduaren historia. 1960-1975». Argit. gabeko tesi doktoralak.
3. UGALDE, M. (1992): *Identidad femenina y nacionalismo vasco*. ISSEIren III. Konferentzia, Danimarka. 2. or. Autore berberak oso azterketa interesgarria egiten du S. Aranaren emakumeari buruzko ideologiaz bere tesi doktorallean; Ikus: UGALDE, M. (1993): *Mujeres y nacionalismo vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*. EHUko Argitarapen-Zerbitzua. Bilbo. 32. orrialdetik aurrera.
4. Jose de Ariztimuño, Aitzol, «La democracia en Euzkadi» lanaren aipamena Antonio ELORZAK egina. ELORZA, A. (1978): «La mujer en el nacionalismo vasco». *Tiempo de Historia*, 38. 6. or.
5. UGALDE, M. (1993): *Mujeres y nacionalismo vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*. EHUko Argitarapen-Zerbitzua. Bilbo. 100. or.
6. Nazionalismo tradizionalan zabaldua agertzen zaigun emakume-ama eredu hau nondik ekoizten den hobeto ulertzeko, oso erakarpen argigarria dugu Iruñako hospizioari buruz egin berri den ikerketan. Ikus: URIBE-ETXEBARRIA, A. (1993): *Protección a la infancia y maternidad. La Casa de Maternidad y Expósitos de Navarra. 1890-1930*. Argit. gabeko tesi doktoralak.
7. UGALDE, M. (1993): *Mujeres y nacionalismo vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*. EHUko Argitarapen-Zerbitzua. Bilbo. 61. or.
8. Gipuzkoarra aldizkaria, 1907/8/24; ELORZA, A. (1978): «La mujer en el nacionalismo vasco». *Tiempo de Historia*, 38. 7. or.
9. Irlandako nazionalismo independentistarekiko harremana Elias Gallastegiren bitartez bereganatu zen, eta emakumearen gaiaren abiapuntua Bilbon, 1922. ean Ambrose V. O'Dalyk 1916.eko Dublingo Bazko Odoltuan bertako emakumeek gizonen parean jokatu zuten paper militanteaz emandako hitzaldi bat izan zen. Hantxe bertan antolatu zen Emakume Abertzale Batza, eraberritutako emakume-mugimenduaren hazia.
10. ELORZA, A. (1978): *Ideologías del nacionalismo vasco*. L. Haranburu. Donostia. 388. or.
11. LARRAÑAGA, P. d. (1978): *Emakume Abertzale Batza. I. Añamendi*. Donostia. 47. or.
12. LARRAÑAGA, P. d. (1978): *Emakume Abertzale Batza. I. Añamendi*. Donostia. 49-54. or.
13. LARRAÑAGA, P. d. (1978): *Emakume Abertzale Batza. I. Añamendi*. Donostia. 58. or. Mercedes Ugaldek Larrañagak emandako kopurua berretsi du baina beste herrialdeetako kasuan konprobatutako datu batzuk aurkeztu arren ez du kopuru orokorrik ematen. Gure ustez , datuok hurbilpen gisara interpretatu beharko lirateke, honek gertakariaren tamaina inolaz ere inotzen ez digun arren. Kontuan har dezagun orduko populazioa ere gaur egunekoa baino askoz ere txikiagoa zela: autore honen datuen arabera 1.280.493 biztanle zeuden Hego Euskal Herrian, horietatik esan bezala 28.500 inguru zeuden EABn afiliatuta. Aipagarria ere emakumeen afiliazio-kopuru hau EABkoa dela soilik; horrela 1933. ean Bizkaian PNVn afiliatutako 276 emakume baino ez zeuden (haietatik 100 herri bakarrekoak, Zaratamokoak zirelarik): ELORZA, A. (1978): «La mujer en el nacionalismo vasco». *Tiempo de Historia*, 38. 16. or.
14. LARRAÑAGA, P. d. (1978): *Emakume Abertzale Batza. II. Añamendi*. Donostia. 66-70. or.
15. LARRAÑAGA, P. d. (1978): *Emakume Abertzale Batza. II. Añamendi*. Donostia. 28-37. or.
16. ELORZA, A. (1978): «La mujer en el nacionalismo vasco». *Tiempo de Historia*, 38. 17. or.
17. Ez da gure asmoa etxe eskolaren ezaugarri guztiak hemen azaltzea. Dena den, argigarri gisa etxe eskolaren oinarriaren familiaren ideologia dagoela antzeman dezakegu. Beraz, eskola hau euskalduna izateaz gain, erlijiotasunean oinarrituko da, nazionalismo tradizionalaren nekazal giroaren defentsan gor-

puztuko da, hizkuntzaren aldetik kontserbatze-funtzioa bermatzen saiatuko da eta generoaren ikuspegitik, andereñoa amaren luzapen eta eskola familiaren luzapen bezala proiektatuko dira.

18. BOTT, E. (1990): *Familia y Red Social*. Taurus. Madrid. Mercedes Ugaldereen ikerketak ere emakume-sarearen interpretapena erreforzatu egiten digu, ondoko pasartea bezelakoetan: «El fortalecimiento del entramado de los vínculos familiares mediante estos intercambios rituales (Lege Zarrari buruz ari da) era responsabilidad que debía ser asumida por cada mujer en el momento de contraer matrimonio, y «Tene» hacia un llamamiento a las jóvenes para que continuaran la labor iniciada por sus madres y abuelas. Como ellas, debían seguir manteniendo la ligazón entre el núcleo familiar que acababan de formar y los demás componentes de su parentela. Era por tanto la familia pre-industrial, y no la nueva familia nuclear propiciada por la industrialización, la que debían cohesionar y fortalecer» UGALDE, M. (1993): *Mujeres y nacionalismo vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*. EHUko Argitarapen-Zerbitzua. Bilbo. 106. or.

19. GARMENDIA, M. C. (1985): «Les ikastolas en Pays Basque D'Espagne. La question du bilinguisme scolaire». Argitaratu gabeko tesia. Estrasburgo. 115. or.

20. IZTUETA, P. (1981): *Sociología del fenómeno contestatario del clero vasco. 1940-1975*. Elkar. 240. or.

21. Cristina Borderias, historilari katalandarrarenak dira hemen erabiltzen ditugun kontzeptu hauek, «comunidad femenina diluida» eta «mixtización». Ikertzaile honek, emakume etorkinen prozesuak aztertzerakoan, etortze-bidea pausoz pauso ikertu eta nekazal giroko emakumeen antolamenduak aztertu ditu. Hiriratzean, berriz, komunitate hauek urte batzuk pasatuta erabat urtuta agertzen direla aipatzen du, honek soziologikoki eta psikologikoki dakartzan ondorio guztiekin.

22. 6. Elkarrizketa. E. F. Gizonezkoa. Gurasoa. Elgoibarko gau-eskola eta ikastolako sortzaileetakoa, iharduera hauetan 1958tik 1975era ibili zelarik. 10. or.

23. 4. Elkarrizketa. A. N. Maistra tituluduna. Donostiako Andereñoen Erresidentzian ondotik gaur arte Gipuzkoako ikastola bateko andereñoa. Honetaz aparte ikastolen mugimenduaren lehenengo udalekuetako antolatzailea (1965-1973). 36. or.

24. 5. Elkarrizketa. E. M. Gizonezkoa. Gurasoa. Oreretako ikastolako partaidea 1964etik 1981era. 7. or.

25. 6. Elkarrizketa. E. F. Gizonezkoa. Gurasoa. Elgoibarko gau-eskola eta ikastolako sortzaileetakoa, iharduera hauetan 1958.etik 1975.era ibili zelarik. 14. or.

26. SATRUSTEGI, J. M. (1969): «Aingeru zuriak». *Zeruko Argia*, 354.

27. GARDE, M. (1970): «Zer gerta Iruñen?». *Zeruko Argia*, 378.

28. Adela Arrasateko andereñoa izan zen, aborto klandestino baten ondorioz hil zena.

# ANTZERKIAREN KRISIAZ

*MIGEL ANJEL UNANUA*

---

**N**ahiz eta zazpigarren hamarkadakoak izan, antzerkiaren arazoa planteatzen ziharduelako, oroitzapena merezi dute Gabriel Arestik hitzaldi ezberdinetan bota zituen iritziek.

Bere garaian krisian sumatzen bazuen euskal antzerkia, zer esango ote zuen gaurkoaz, non krisiak orobat antzerkigintza ukitu duen. Galdera erradikalagoa egin beharrean gaude gaur egun, nonahi azaltzen baitira ahultasun-zeinuak; antzerkiarena ez da, orain, arazo lokala.

1961ean teatroaren berrikuntza aldarrikatzen du hitzaldi batean, «teatroaren gaurkotasuna». Bertan batetik, eta batez ere, garaien egokiera eskatzen du, eta bestetik, atzerriko antzerki-



gintza modernoari begiratzea arnas handiagoko lanak burutzeko gaitasuna irabaztearren. Gero, Elkarte baten osaketa, langileen p restaketa (eskribitzailea, zuzendaria, antzezleak...) eta lanen zabalkuntza bultzatzeko. Apunte bakar bat uzten du hizkuntzaren egokieraz.

1964ean, Donostian, esperantzaturik hitz egiten du bertako kultur mugimenduez ohartuta, eta bere iruzkinak puntualagoak, mamitsuagoak eta kritikoagoak agertzen dira. Ez zituen alferrik eman tarteko hiru urte horiek. Lehen-leheneko gauza oraingoan, urgentziak urgentzia, hizkuntzarena aipatzen du, bi gaitzez jota dakusalarik: endemikoa bata, eta teknikoa bestea; ez dagoela euskararen erabilera batua finkaturik, ezta ere beronen usuario teatrala aztertutik (Barrutiaren lanari buruzko hitzaldian saiatu zen puntuari adar honetatik eusten, euskal forma, solasaldi eta pertsonaia tradizionalak gogoan). Bigarrena lehendabizikoari gehitzen zaio noski.

Bere nahi eta desira ondratuak, eskuarki iradokizunak berari entzuten zioten gazteengan, apika oro har bete antzean direla gaur baieztatzeak poztuko luke, konfirmatuko zukeen batezbeste biziraupenerako hartuak zituen jarre retan ez zebilera hain oker, belaunaldi berriak hartua diola bere esanen lekukoa. Ordea, eta hemen kezka, Arestiren jarrerari eutsi behar bazaio, datorrenari begira jokatu behar du honek.

Antzerkia krisian dagoela begien bistakoa da eta arrazoi praktikoek erakusten digute. Gizartean duen onarpena kulturala bihurtzen ari da: gizartearen bizitzan funtzio zuzena izatetik, eredu sozial egokien apaingarri zaharkitua bilakatzen ari baita. Eta krisi-egoera honetatik ez da dekretuz salbatuko.

Giza historiaren hastapenetatik, gizakien usuarioetarik bat izan da bizitza maskaratu beharra. Beharbada egia izango da, gaur egungo garaiotan, egunerokotasuna beste oinarri batzuetan baldintzatzen zaigunez, bide batez aldatu direla berau errepresentatzeko moduak. Zerikusi zuzena du, jakina den bezala, zinemagintzaren garapenak: pantailak hartu dio lekua taulatuari. Orain bizitza filmatu egiten da eta ohitura berriak eratzen dira errepresentazio-bideak aldatzen doazenez.

Hala eta guztiz ere, exageratua da zinemagintza antzerkiaren *lekuan* dagoela esatea, errebisio txikiak ere erakusten baitu bi bitarteko hauek heterogenoak direla, nola beren errekurtsioetan hala bien funtzioetan.

Zinemagintzaren sorreran, fotografiaren aurkikuntzak ezetik, antzerkiaren existentziak ere berealdiko eragina izan zuen. Hasiera batean antzerki-munduari bitarteko tekniko berri batek eskaintzen zizkion aukerak praktikan jartzea baino ez zen izan. Hortik aurrera, gainerako guztiak dibergentziak dira.

Zinea eszenatik hastandu zitzaion teatroari lehendabizi. Hau da bere haustura propioa eta bien arteko diferentzia salbatu ezina, behin-betikoa egiten duena. Zinemarako Antzokiak ez du inolako betekizunik, hots, ikusleonek harrera ere aldatuta dago. Zinema espresionista zaharra dastatzen denean, oraindik antzerkiaren mundutik hurbilago gaude, obra hauetan testuak egiteko berdin a rekin zirauelako, testuak teatralak zirelako eta errepresentazioa antzerkiaren usarioetara egokitzen zelako. Antzerki-testutik aldentzea izan zen bigarren pausoa: gidoi zinematografikoak existitzen hasten dira. Estilo-aldaera honen ikerketa beste baterako uzten dut. Oraingoz, adibideetan saia badadi zalea, ikus bitza zinemagintza «europarra» deritzanaren aitak: Fassbinder, Herzog, Wenders, etab.

Haurtzara herri txikietan bizi izan dugunok, nik uste, errazago iger dezakegu antzokiak duen funtzioa, instituzionalizatu izan baino lehen. Hirietan bere eraikuntza propioa edukitzeak, «Antzokia» deritzan egoitza izateak, hala-nolako finkotasuna ematen dio antzerkiaren egitekoari. Erabiltzen ez denean ere Antzokia hiriaren osagarria da, presente dago, eta honek nahas gintezke antzerkia *gertakizun* gisa aztertzerakoan. Antzerki-lanak enkontru-era berezi bat eskaini behar dio ikusleari, eta enkontru hori singularizatzeke eraiki zituzten antzerki-egoitzak.

Herri txikietan, gogoan dut, berehala somatzen zenuen gertakizunaren ebentualitatea: errepresentazioerako erabiltzen zen lekua bereizi egiten zen egun batzuetarako (frontoia izan ohi zen leku aproposa horretarako) eta biztanleen begietan leku bat materialki autonomizatze honek, espazio konkretu bat *hauta* -

*tuta* uzte honek —ez ziren marka asko behar: toldoa, taulatuak, aulkiak iladan— xarma berezia zuen: zerbait berria topatzeko uste osoarekin sartzen zinen, zerbaiten ikusle izatera prest.

Ekitaldiak amaitzen zirenean, horretarako prestatutako lekua ere ezabatu egiten zen, bere suntsipenarekin zeramalarik bere agerpena ere. Hots, herriaren parte bizia zen, organikoa, biztanlearentzat egunerokoa presentatzen zaion modura aurkezturik: joan eta etorri, haizeak ekarria haizeak eramana.

Antzokien eraikuntzak dakar antzerkiaren lehen fosilizazio bat, lehen instituzionalizazio bat. Gogoan hartzekoa da fenomenoaren bilakaera historikoa, puntu honetan.

Antzokiak eraikitzen diren garaian, eta ez da atzoko kontua, beren ezaugarri propioa azaltzeko, hau da, espazio arras berezitu baten sakralizazio fisikoa lortzeko, hiritik kanporatu samar eraikitzen dira. Athenasekoa *Akropolia* ren azpialdean hegoalderako maldan kokatzen da, baina beste toki batzuetan mendimendian daude eta bide luzea egin behar da oinez. Antzokia ez da existitzen bizitza sozialaren gurpilean presente egiteko ordua heltzen zaion arte: festa-egunak hain zuzen ere. Orduan soilik hartzen zen Antzokirako bidea, orduan soilik agertzen zen leku hau biztanleen bizitzan. Orduan zuen zentzua, trantsizio bide bat sortzen baitzen leku batetik bestera, hiritik antzokira, jaiaren bitartez. Harainoko bidaiak ere ospakizunaren barruan zegoen, eta ez zen bidai fisiko hutsa. Jai giroan egoiteak adierazten du pertzeptzioaren eraldaketa gertatzen zela, eskatzen zela, antzerkia bizitzeko, trantsizioa gerta zedin.

Bigarren aldi batean, Antzokiak hirietako organigraman azaltzen direnean, noski, kokatu beharko dugu bigarren disoziazio bat. Biztanlearen bizitza osorik irensten zuen ospakizun baten erdian —oinarrian behar bada— festa bizian, agertzen zen lehendabizi eta honen arabera erabakitzen zen antzerki-lanaren ulermena. Presupostu horiek gabe joango da orain ikuslegoa Antzokira. Eta begi berdinez begiratuko lieke bere bizitzari eta antzerkiari, trantsiziorik gabe, aldaketa horrekin antolatzen den antzerki-era berriaren mekanismoetan pertzeptzio-eraldaketa behartzeko medioak ez baleude. Horregatik

justifikatzen da Antzokiaren egituraketa fisiko berria: kaletik barrura gertatzen den antzaldaketa adierazten eta itxuratzen du Antzokiaren barnealdeko zatidura, eszizioak; nolana ere, ikuslegoaren kontzientzian, aurrean ipintzen zaion irrealitatean itxuraren eta beronek simulatuko duen egiaren arteko loturen ezagutzara ailegatzeko ilusioa irmotzen baita bertan indibiduoarengan. Eszenategia eta ikuslegoaren jarlekua. Eszenategian fokalizatuta agertuko da pertzepzioa. XVI. eta XVII. mendeetan hartzen da aldaketa honen kontzientzia, eta kontzientzia honen arabera saiaturiko da antzerki-estetika berri bat, zeinaren arrastoa antzerki-testuaren eraldaketan nabarmentzen baita. Teatro Klasikoa da.

Teatro modernoak honekin hautsi duela esaten denean, askatasun eszenikoa begitantzen zaigu itsumustuan, testu-murrizketa, gorputz espresioa, eszenografia abstraktuak... Gabrielelek, hirugarren urrats hau aipatzen duenean, buruan Ibsen duelarik, ez ditu arrazoi zuzenak ematen. Aidean uzten ditu bere aukera honen zergatiak. Igerri egin daitezke, hori bai, ematen dituen iruzkinen bidetik, ideologikoak zirela batez ere. Bere borroka izan zen. Ez zuen Teatra ulertzen eginkizun edukatibo baten begitik besterik; herria euskaraz edukatzeko tresna izan behar zukeela aldarrikatzen zuen, eta hori esatean, begibistan bere esperientzia bitala dauka. Bere momentuko arazo sozialen garaikide aitortua da Gabriel Aresti, eta, halaz guztiz ere, argudio aski unibertsalak aitortu behar zaizkio aldiberean.

Mugimendu modernoaren euskarri teorikoak Bertolt Brecht-i jasotzen dizkiogu, ez Ibsen-i. Eta bere dema nagusia Antzokiaren egituraketa klasikoa apurtzea da, beronetan altzatzen delako gero zatiketa funtsezkoagoa, benetan eraginkorra, segun eta zein helburutarako erabiltzen den. «Eredu historikoak —dio bere Antzerki-estetikazko Brebiarioan— antzerki-teknika bat garatzen duten neurrian interesatzen zaizkigu, ez beren helburuetan». Garai zaharretan, ertaroan eta garai klasikoan berdin agitzen zen «hipnosi-egoera» deituz juzkatzen duena; honen kontra, ikuslegoaren «kritika-egoera» eragitearen alde azaltzen da, eta berak bultzatzen duen antzerki-teknikaren

desmuntaketa xede berri hau lortzera zuzenduko da, zeren eta bere ustean baldintza historikoek justifikatzen dute antzerki-era bat edo bestea, eta XX. mendekoak auxian, koherentea da bere jarrera konprometitua: hipnosi-egoera haren helburua klase-diferentzien iraupena bermatzea litzateke, eta antzerki-teknika zaharra hartarako legoke egina. Interesgarria da bere osagarri guzti-guztien iraulketa, banan bana, nola asmatzen duen ikustea, kontzeptuz kontzeptu, Brecht-en zorrotasuna ederki erakusten dute eta. Errepasso mantso bat merezi du:

- Hipnosi-egoerak, estrainiamenduak —ikuslea bere onetik atera edo egiten baitu— ez dio errepresentatzen denarekiko urruntasunik hartzen uzten, juzka dezan: bere kontzientzia dramarekin batera datza, identifikatuta, eta obrakoa fatalidade gisa antzezten zaio, destinuaren kontzeptuarekin ahai-dekotzen duela.

Estrainiamendu honen tresnak ziratekeen mozorroa, kainua, musika, mimoa.

- Errekitatua «epikoa» izan dadila, eta ez «liturgikoa», urruntasuna gorde ahal izan dadin, pertsonaiaren eta entzulearen artean bezala antzezelearen eta pertsonaiaren artean. Antzezeleak ez du pertsonaia gorpuztu behar bakarrik, errepresentatu eta pertsonaiarekiko bere erreflexioa erakutsi behar du. «Akto-reak, errepresentatzen duena komunikatzen digu».

- Ekintzaren batasun tenporala eta lekukoa, ez dakiola errepresentazioaren aldi-alde transferitu.

- Pertsonaien arteko estratifikazioa desager dadila, bakoitzarekin maila bereko harreman-azaua osa dezan obrak: pertsonaiak ez dira generikoak, arketipikoak izango, pluralak, kontradiktorioak, gainerako pertsonaiekiko harremanen araberako definituak baizik.

- Eszenografia ez da kontakizunaren apaingarri gisa antolatuko, ikuspuntu kritiko batetik baizik.

- Eta, azkenik, osagarri tekniko ezberdinek ez dute batasunik osatuko, beren elkar estrainiamenduaren baitan antolatuko baitira, multzoka, efektu anitz eragitearren. Ikuslegoa izan

behar da bere buruaren maisu, obraren interpretari, bertan bere mailako erlazioak, giza erlazioak eta ez beste, gizakienez gero, ezagutzeko gai da eta.

Ez dakit nik Brecht-en asmo programatiko guzti hauekin bat egiten zuen Arestik. Honen egitarauaren barnean, hori kontraesango luketen asmoak ere azaltzen dira; nahikoa da itzuli asmo zuen antzerki-obren zerrendari begiratzea. Dena dela, hortik ere zerbait badago; «donostiar teatroa» zeritzana nola maiseatzen duen ikusita garbi dago.

Alde honetatik ere begiratu behar zaio galderari, ze zer ote den «teatroaren gaurkotasun» hori, behar bada, beste erradikalago batek erantzuten dio: *teatra zer ote den* hain zuzen ere. Galdera galderaren gainera, baina apika hortik letorkioke irteera.

Eman dezagun, amaitzeko, Jose Ortega y Gasset-ek esaten duena, ea baliagarria den, besterik ez bada, kontzeptualki. Alta, onar dezagun behin-behinean Antzerkia Antzokian burutzen den ebentoa dela (Antzokian burutzen den «festa» esanez gero hobetogo esango genuke, literaturatik baino hurbilago bailegoke, eszenifikazioa da funtsean eta, Zirkoa edo Zezenketa bezalako ospakizunetatik). Lehenago ikusi ditugunak proto-forma teatralak edota antzerki-aurrekoak liritekeelarik, euskal forma berezi horiek: pastoralak, xaribaria eta abar, «tradiczio parateatral» originala gorpuzten dute eta peto-peto egokitzen dira goian azaldu ditugun ezaugarri orokorretara, egoki-egokiak dira beren ingurune sozial eta fisikora egiteko ere. Ingurune berriak, orain, beren formak eskatzen dituzte, egokiera berriak. Pastoralarenak miresten zuen Aresti, eta honen ildotik proposatuko zuen 1972an berrikuntza. Hala ere, guztiarekin, premiazkoa dirudi antzerkiarentzat bere *lekua*-ren aurkientzako ere. Horrela uler daiteke, osoago, Arestik aldarrikatzen zuen «teatro nagusi» baten ahalmena.

Toribio Alzaga eta lagunak ahaleginak zaharkituztat irizten ditu. Dena dela, gogoan hartzekoa da hori, historian eman diren eraldaketan arabera, jakinaren gainean ala ez ez dakit nik, hiri-ingurunean antzokiak baliatzeko euskal antzerkiaren alde-

tik egin den intentu bakarra izan dela. Arestik euskal sustrairik eza egozten die, baina sustrai horietara jotzekotan bederen, Antzokira nola molda daitezkeen saiatu behar da, eta alde honetatik estudia daitezke lehen haiek eman zituzten urratsak. Hemen ere beharko da ziurrenera antzerkiaren testualizazio berria, espazio finko horietara moldatze-ahalegin bat; moldaketa estilistikoa hain zuzen ere.

Zinemagintza literarioagoa da antzerkigintzaren ondoan, eta idazten diren obrek arrisku hori dute, batez ere gaur, argi-imajinek jaten gaituztenean, ez ote diren honen prozeduretara gehiegi makurtzen, ez ote diren *literarioegiak*. Teatra festa-genero bat da, lehenik eta behin, ez literatur generoa, eta gaur barrenustuta dago, oka egin du bereak ziren abileziekin, nola edo hala esan ahal izateko, maskara erantzi du eta bere aurpegia erribila dabil... Teatraak aurpegirik izango balu bezala...

# MACHIAVELLI-REN «PRINTZEA»

Politikagintzaren diskurtsu  
modernoaren hasiera

JOAKIN BALENTZIA

---

**A**utore modernoa dugu Machiavelli, nahiz eta orain dela laurehun urte baino gehiago (1469-1527) bizi izan. Bere prosa italierazko hoberenatarikotzat jotzen da, baina gure artean ospetsua bada, bere ideiangatik da batipat. «Makiavelismo» eta «makiaveliko» hitzak mendebaldeko hizkuntza guztietan erabiltzen dira eta mendebaldeko kulturaren zati garrantzitsu bat da Machiavelli bera, bere *Printzea* obra handian ikusten denez.

## ZER DA MAKIAVELISMOA?

Makiavelismoa bere zentzu propioan zer den jakiteko *Printzea* irakurri behar da. Hitz honek duen zentzu txar eta petralare-



kin geratzen bagara, Machiavelli azkar eta zuhurrari ez diogu bat ere justiziarik egiten. Eskuarki faltsukeria, ezkutukoa eta agerian aipatzen dena ez dela egiazko asmoa adierazteko erabiltzen da. Baina *Printzea*, italiar literaturaren perla hau irakurtzen baduzu (orain baduzu euskaraz ere irakurtzeko aukera), guztiz alderantzizkoa dela ikusiko duzu, hots, italiar literatura ez dela bat ere faltsua, zinikoa (zentzu eratorrian ulertuta, ez jatorrizko filosofiaren arabera), egiazalea baizik.

Bai, Machiavelli egiazale, errealitatearen aztertzaile azkar eta zorrotz agertzen zaigu obra honetan. Horregatik izan zen, hain zuzen ere, Espainiako Inkisizioak debekatutako autore etariko bat; mende asko iragan behar izan zuten ilunpetatik ateratzeko. Nik dakidanez, liburu hau ez zen gaztelaniara XIX. mendera arte itzuli. Nolanahi ere, bazen itzulpen bat, 1523an Agustino Nefo-k latinera egin eta, obraren izpiritua ongi interpretatuz, originaltzat Karlos I.ari eskaini ziona. Dena den, liburu hau, latinez nahiz italieraz, Espainiako noble batzuen eta apeztería gorenaren liburutegietan aurki zitekeen, garai hartako jaunen ezagumendurako. Hauek izan ziren, hain zuzen ere, Machiavelli-ri arrazoia emanaz, behin eta berriz, makiavelismo eta makiavelikoaren berri *manipulatua* eman zutenak, beren probetxurako jendea ignorantzia bizian mantenduz.

*Printzea* da, kapitalismo-garaian, boterearen inguruan lehenbizikoz egindako deskribapen eta interpretazio modernoa. Halaber, kapitalismo modernoaren garapenean eta gaur egungo politikagintzan ere, eragin handia izan duen obra dela esan liteke. Euskal edizioan (*Elkar*-ek argitara emandakoan) Napoleon-en oharren bidez ikus daitekeenez, opuskulu hau zen Europako konkistatzaile eta printzeen printze izan zenaren lasaigarri eta lo-eragingarri handia. Liburuska honetan (ehun orrialde baino gutxiago duen lantxo honetan) aurki daiteke mendebaldar zibilizazioan eta kolonietako gobernu sukurtsalistetan ere agintearen inguruan nabarmentzen den ideologia, hots, jende arruntarentzat predikatzen diren balore moralek ez dute Estatuko gobernuarentzat balio, Estatuaren arrazoia beste edozein arrazoiren gainetik baitago, Estatuak bortxakeriaren monopolioa baitu, arrakastaren balio absolutuaren araua politikagintzan defendatuz.

Bestalde, Machiavelli-ren ideietan ikusi da (bere obraren azalpenetan irakur daitekeen legez) politikagintzaren lehenbiziko teoria «zientifikoa» berea izan zela, zientifiko hitza errealitatearen nolabaiteko deskribapen bezala hartzen bada bederen; eta horixe egin zuen autoreak, alegia, deskribatu nola lortu eta mantentzen ziren herentziaz nahiz konkistaz lortutako printzerriak, edo nolakoak diren printzerri zibilak eta elizakoak (hauek baziren eta badira). Hauek, adibidez, dio Machiavelli-k ironia handiz, birtute edo zoriari esker lortzen dira eta printzegoan «irauteko, ordea, ez dago ez bata eta ez bestearen premiarik», erlijioaren lege zaharretan oinarritzen baitira. Erakunde legal hauek, aspaldi sortutakoak eta hain indartsuak izanik, eliz printzea mantentzen dute Estatuko zuzendaritzan, printzearen portaera nolanahikoa izanik ere.

## PRINTZE MAKIAVELIKO BAT: FERNANDO KATOLIKOA

Printze makiaveliko konkistatzaileen artean (XXI. kapituluan) Nafarroa konkistatu zuena aurkitzen dugu: Espainiako Erregea, Fernando Katolikoa hain zuzen ere, bere adibidea harri-garrizat jotz. Machiavelli, jakina, ez da analista politiko hutsa; historiatik ateratako lezioak printzeei ematen dizkie, bere panfleto propioa sortuz. Printze konkistatzaileei, adibidez, printzerri mistoak (herentziaz nahiz konkistaz lortutakoak) nola mantendu behar dituzten erakusten die III. kapituluan:

«Estatu hauek zuten printzea eta bere ondorengoa desegin, batetik, eta beren legeak (foruak) errespetatu, nahiz zerga gehiago ez ezarri, bestetik. Denbora gutxi barru, Estatu berri hauek bat egingo dute konkistatzaileak lehen zuenarekin. Hizkuntza, ohitura eta izaera desberdineko Estatuak eskuritzen direnean, ordea, zailtasunak egoten dira...».

Machiavelli-ren analisisa, gaur egun Euskal Herritik ikusita bederen, oso zuhurra da nahiz eta Napoleon-ek —autorea bera baino makiavelikoagoa batzuetan— azterketa zorrotz hori sinplekeriatzat eta ahuleriatzat jo. Denok dakigu historiak italiarrari eman ziola arrazoia eta Napoleon-en asmo inperialistak po-

r rot eginda geratu zirela. Nahikoa da, beraz, besterik gabe, munduan gertatzen ari diren deskolonizazioak ikustea eta, egungo Europan bertan ere ematen ari dena, non hizkuntza, ohitura eta izaera desberdinetako lurralde konkistatuak dituzten estatuek arazo larriei aurre egin behar dieten.

## MACHIAVELLI ETA IDEOLOGIAREN KONTUA

Machiavelli izan zen, bere garaiko Estatu eta gobernuen ohizko praktikan oinarrituz, ideologiaz teorizatu zuen lehena, hots, bizitza eta historiari buruzko balorazioak egoera sozial eta helburu politikoaren arabera egin zituen. Geroago Marx-ek klase-borrakarako egokitu zuen teoria hau, sintesi berri eta erradikal bat eginez. Eta gaur denok onartzen dugu nolabait makiavelismoa, edo ideologiaren funtsa, alegia, kontzientzian ditugun errealitatearen islada, ideia eta kontzeptu guztiek egia-aren zati bat (deformatua, mugatua) bakarrik hartzen dutela, eta egoera sozial batean eta honek markatzen dituen interesetan duela bere sorrera. Estatuaren ideologia edo makiavelismoa jendea izorratzeko da eta herri bakoitzaren edo indar berrien ideologiak edo makiavelismoak giza emantzipazioaren bidean Estatuak akabatzeko behar du izan.

Machiavelli-ren «errealismo» politikoaren lezioek, adibidez, porrot egiten dute batzuetan, lezio horiek epaitzen dituzten pertsonen arabera; Napoleon-en iritziak hor daude aipatu oharretan baina *a posteriori* epaitzen ditugu. Norbaitek pentsa lezake azken bi kapituluetan —XXV eta XXVI.ean— autorearen «zientzia politikoa»k porrot egiten duela, XV.ean ia poemagintzan eta irrazionaltasunean sartzen baita, zoria, zortea, emakume batekin konparatuz: «eta menpean mantendu nahi baldin badugu, astintzea eta min ematea premiazkoa da. Bestetik, zoria, emakume denez, gazteen laguna da...». Baina kapitululu horretan ere oso koherentea da autoreak: «Hala ere gure aukera erabat mugatua ez denez gero, onartzen dut zoria gure ekintzen erditan erabakitzailerik izatea. Beste erditan, edo kasik, gu geu gara gobernatzaile. Zorigaitzoko ibaiak bezalakoxea da hau...». Ormak eta dikeak egin ditzakete uholdea ekiditeko. «Patuarekin ere berdina gertatzen da», dio.

## ITALIAREN BATASUNERAKO DEI SUTSUA

Azken kapituluak —indartsu, bihozkor eta poetikoenak— «errealismo» politikoa makiavelismoaren beraren kontrakoa dela pentsarazi liezaioke bati baino gehiagori; izan ere, «Italiako aitzindari izan eta barbaroengandik libratzearren deia» du izenburutzat (gure euskal itzultzaileak hemen ere akatsak ditu, baina horretaz gero mintzatuko gara). Kapitulu honetan aurkitzen dira irudirik erakargarrienak: gerrarako dei irekia, Italiaren batasunaren alde dei eginez.

Garai hartan —XVI. mendean— Italia erabat zatiturik zegoen eta lurralde batzuk, «barbaroek», atzerritarrek konkistatuak. XIV. kapituluak «Italiako printze askok zergatik beren Estatuak galdu zituzten» adierazten du autoreak kaliputsuki: «Urte luzetan printze izanik Estatuak galdu dituztenek, beren koldarkerian aurki bezate hondamenaren arrazoia, eta ez zorte txarrean». Baina berak ikusten du aberria hondamendi horretatik ateratzeko printze berri bat, guztiz ausart eta zuhur bat behar dela, Italia salbatzaile baten zain bait dago, aspaldian dituen zauriak sendatuko dizkionaren zain, alegia.

Horregatik egiten dio Medici familiari Italiaren batasunaren aldeko deia: «Ez zaizu zaila gertatuko, baldin eta aipatu ditudan printze ospetsuen bizitzak eta ekintzak gogoan hartzen badituzu. Jaungoikoak gainera, ez zien zuri adina lagundu». Justiziazko arazo nagusia, bestetik, honetan datza: «Izan ere, bidezko da gerra behar dutenentzako, eta zilegizkoak dira armak armengan esperantza besterik ez denean» (hemen Tito Livio aipatzen du). Kontu hau oso garbi agertzen da obra osoan. VI. kapituluak jadanik hala dio: «Profeta armatu guztiek asmatu zuten eta armarik gabe zeudenek huts egin zuten».

Ez dut ezagutzen Italiako batasunerako dei sutsu hau beste arte —hirurehun urte beranduago— zer eragin zehatz izan zuen Machiavelli-k italiar penintsularen historian, baina seguru asko, Victor Manuel II.ak, Piamonte-ko erregeak, eta Cavour-ek eta Garibaldi-k, Italiako batasunaren aitzindariak, ongi ezagutzen zuten eta italiar herriak, azkenik, armen bitartez atzerritarrak bota eta Eliz Printzerria (Aita Sainduarena) menperatu zituen (1871.ean), Erroma berriz ere Italiako hiriburu bihurtuz. Horrela bete zen Machiavelli-ren ideia eta italiarren

itxaropen zaharra: «Zein italiarrek, orain atzerritarrek ezarria duten uztarria hain gorrotagarria izanik, ez luke bere printzetzat onetsiko?».

## MACHIAVELLI-REN ERAGINA MENDEBALDEKO KULTURAN

Nahiz eta bere aberria batzeko bere profezia eta deia hirurehun urtez utopiaren eremuan murgildurik egon, Machiavelli, lehen pentsalari modernoa dugu, munduko ikuspegi batua antzinatik deseginda zegoela erakusten duena, helburu desberdin eta beraien arteko dibergenteentzako giza pentsamenduaren balioa politikagintzan frogatzen duena. Autoreak defendatutako autonomia politikoa eta Estatuaren ideia, beste alorretara zabaltzen dira (zientzietara ere bai) eliz dogmatik, pentsamendu eskolastikotik eta ordena feudal, sozial eta ekonomikotik pixkanaka mendebaldar gizartea askatuz.

Beste aldetik, zapaltzaile eta zapalduentzako balore moralak desberdinak izan dira, irabazleak eta garaituak, jaunak eta esklabuak izan zirenez geroztik, baina Machiavelli izan zen lehenbiziko aldiz antzinako kontraesan hori agerian jarri eta «errealismo politikoa» defendatu zuena, Estatuako gobernurako balio duten arauak jende arruntarentzat balio ez dutela argi eta garbi adieraziz. Bere eragina izugarria izan da mendebaldeko kulturaren baitan. Izan ere, makiavelikoak izan ziren ere bere garaian eragin handia izan zuten pertsonaiak, hala nola, Lutero, Loiolako Ignazio eta jesuitak (Trentoko Kontzilioa lekuko), Montaigne bera, etab. Baina hau frogatzeko ur handitan sartu beharko genukeenez, beste noizbaiterako utziko dugu gauza.

## «PRINTZEA»REN EUSKAL EDIZIOA

Bukatzeko obraren euskal edizioa, Iñaki Azkunek euskaratua, aztertuko dut pixka bat. Liburuaren azaletan titulua, egi-lea eta euskaratzailearen izenak bakarrik eskaintzen dira. Irakurle despistatu batek, beraz, haur-ipuin bat dela pentsa le-

zake. Nik dakidanez, testu hau ez da derrigorrezkoa ez BBBen, ez unibertsitatean; jendeak, bada, ez du zergatik ezagutu behar. Hurrengo edizioan (oraingoa, eskoletan erabiltzen hasi denez berehala agortu da) akats hau zuzendu egingo dela uste dut, atzeko azalean nahiz paparrean azalpenen bat egin eta sarreraren bat erantsiz. Nahiz eta gaurkotasun handiko obra izan, zaharra denez, egokia litzateke garai hartako gertakizun eta pertsonaiei buruzko argibideak ere (oharren bidez) ematea, obra bere testuinguruan kokatu ahal izateko, aipatutako Napoleon Bonaparte-ren oharrek ez baitute behar hori inolaz ere betetzen. Oso bapatekoak direnez (tripako minez eginak batzuetan edota loak hartuezinik besteetan), interesgarritzat ditut, baina anekdota hutsak izanik, orrialde-oinean jartzea ez zait egokia iruditzen. Ene ustez, mantenduz gero, liburuaren bukaeran jarri beharko lirатеke eranskin gisa.

Itzulpenaz ere zera esan daiteke: beste itzulpen batzuekin eta jatorrizko testuarekin konparatuz gero, ikusten da itzultzaileak, euskaraz errazago uler dadin, batetik, pasarte luzeak moztu egin dituela, batzuetan modu egokian, baina beste batzuetan testuari indarra eta zentzua ere galeraziz; eta bestetik, horren eraginez parafrasiak maiz sartu dituela. Literaltasuna da, ene ustez, itzulpenaren arau nagusia, hizkuntza berrian ulergarritasunaren alde egokitze-lan zorrotza egiten den bitartean, interpretazio eta birkreazioaren kontuak ezinbestekoak izanik ere. Baina itzulpenaren balore hauek, eskuarki, honako ordenatan landu behar dira: literaltasuna–ulegarritasuna–egokiera–interpretazioa–birkreazioa. Bakoitzak bere garrantzia du eta estilo bakoitzean ez da gauza bera bata ala bestea. Nahiz eta azken lekuetan aipatu, interpretazio-birkreazioa da dena laburbiltzen duena, baina zorrotza izan beharra dago eta ezin daiteke jatorrizko testua asmakizun huts bihurtu. Literaltasuna, beraz, ahalik eta gehien errespetatu behar da beti.

Zentzu horretan honako gauza hauek aipatuko nituzke: latinezko tituluak dira, jatorrizko obran, atalen izenburu propioak; honenbestez pentsa daiteke hurrengo edizioan nolabait jasoak izanen direla, Machiavelli-k tartekatutako latinezko esaldiekin batera. Esaldi hauetan, hain zuzen ere, bi akats aurkitu di-

tut: bata, XXVI. kapituluaren izenburuan «aitzindari izan» edo «lideratu» (ad capessendam) falta dela, eta bestea, XXVI. kapituluko Tito Livio-ren esaldia ere gaizki itzulia dagoela, alegia: «Izan ere, bidezkoa da gerra...» Baina adibide hauetaz aparte, nere kezka nagusia «virtú» hitzaren itzulpenean datza. Ia kasu guztietan «ausardia» bezala itzuli da eta neretzat ez da ego-kia; interpretazio hutsala eta lau mende pasa ondoren autorearen izpirituari egindako klitxe bat da, unibokoegia. Machiavelismoari askoz gehiago dagokio «birtute» hitza, nahiz eta gaur egun anbigua izan, eta jakin badakigun autoreak berak ez lukeela inolaz ere geuk bezala ulertuko (baina hori da historiari pagatu behar zaion ezinbesteko prezioa). Horregatik, liburuaren hondarrean Petrarca-ren bertso ederra itzultzean «virtú» eta «valore» (bi hitz desberdin) «ausardia» bezala itzultzea desegokitasun nabaria da. Honela behar zukeen:

Birtuteak errabiaren aurka  
armak hartuko ditu, eta burrukaldia ez da luze izanen;  
antzinako ausardia ez baita  
italiar bihotzetan oraindik itzali.

(Petrarca, «Italia mia»)

# G AIAK

---

IDOIA FERNANDEZ

EMAKUMEA, HEZKUNTZA ETA NAZIOA EUSKAL HERRIAN

MIGEL ANJEL UNANUA

ANTZERKIAREN KRISIAZ

JOAKIN BALENTZIA

MACHIAVELLI-REN «PRINTZEA»



# KAZETARITZAREN AJEAK, KAZETARIEN MALURAK

Debatean segitzeko zenbait puntu

JEXUXMARI ZALAKAIN

---

**B**iziki interesaturik segitu dut *Adierazpen-Askatasunerako Plataforma*-ren iharduera publikoa. Talde barrukoa, auskalo, kideek esana dute bederen «*hainbat ñabardura albo batera utzi beharrean*» aurkitu direla tajuzko zerbait amankomun argitaratzeko. Dokumentuak kaleratu ahala kideen izenei erreparatzen hasi eta hiru gogoeta egin behar ditut, barietate politika bildu dela ohartu ondoren<sup>1</sup>. Bat, kazetari ez direnen zerrenda ikusita, prestigiozko leku guztietan egoteko inork baino abilitade gehiago duten pentsamendu sasi-alternatiboaren hiru mosketeroak ageri dira nabarmen-nabarmen. Bi, unibertsitate-sailekoak begiztatuz, berriz, pentsamolde-*klub* bakarrekoak baino ez dira azaltzen, aspaldi hone-

tan zientziaren tenpluko orakulo bihurtzen ari direnak, iritzi *jasoa* emateko bestelakorik ez bailegoen gainera. Hiru, orain arte idatzi eta bereziki egindakoaz oharturik, nekosoia egiten zait ulertzea batzuren presentzia. Edozelan ere onartu egin beharko da, bai batzuek eta bai besteek elkar-ulermenerako eta zubigintzarako —Aita Agirretxe zorutzen jartzeko modukoa, benetan!—, egiten ari diren ahalegin eskergaitza. Aurreratu nadin esatera, berandu baino lehen, inizatiba txalogarria iruditzen zaidala berez, are gehiago ondotox dakidalarik nondik eta nola eman ziren sortzeko lehen urratsak, ondorengoak arrotzagoak suertatzen bazaizkit ere, segurutik galdurik daukadalako barruko dinamika.

Testu baten zentzu sakonera ailegatzeko idazlearen nortasuna ezagutzeak pentsa baino garrantzi gehiago duela uste izanarren, produzitutakora mugatuko naiz ondoko lerrootan, nahiz eta ezin dudan seinالاتu gabe utzi, kazetaritzaren instrumentalizazioa hain modu sutsuan salatu ondoren, injustuki zapal dutako kideak kriminalizatu eta likidatzeko asmo zuzenez aurten bertan prentsa bere kasa konbokatu eta publikoki batere lotsarik gabe erabili duen bat baino gehiago badela sinatzaileen artean. Ikusi bestela 1993-IX-9ko Hego Euskal Herriko prentsa.

Oso oker ez banago sortuz geroztik bi dokumentu nagusi eman ditu argitara *Plataforma*k. Bata «*Komunikabideetako askatasun eta aniztasunaren aldeko manifestua*» eta bestea «*Informazioa eta demokrazia Euskadin gaur*». Azken hau eta, abiapuntu harturik, bertako sei kidek egindako artikulu-komentario mamitsuak aldizkari honetan bertan aurkituko dituzue<sup>2</sup>. Halako plataformaren ibilbidean, kideak hain komentzturik agertzen direnean «*krisian eta bidegurutzean*» dagoela gure Euskal Herria, bi dokumentu soil ematea gutxitxo iruditzen zait niri, baina hori gusto edota egokiera-kontua baino ez da, azken finean kantitateaz baino kalitateaz neurtzen baita edozein ekimenaren balioa. Harrigarriago egiten da informazio-komunikazio mailan hedabideek jasotako hainbat gertakari hitzen aurrean behin bakarrik ahotsa altxatu izana, *Jarrai*-k Iruñeko kale-borroka deigarri baten ondoren zenbait kazetariren

izena eta aurpegia agerian jarriz ateratako kartel famatuen kontra hain zuzen. Jakiterik izan dudanez, tamaina honetako plataformak ez omen du gertakari zehatz eta egunerokoan harira ibiltzerik, eta ondorioz, beraz, noizean behin agiri boro-bilago eta orokorragoak egitea hobetsi omen da. Bego horretan, hori estilo-kontua izan daiteke eta. Kolpe bakarra nork jaso duen azpimarratazea ez da, halere, garrantzi gutxikoa.

## KAZETARITZA ERROMANTIKOAREN AMAIERA

Aipatu bi testu nagusiotan —eta inguruko sei komentarioen arabera, zeren, nahiz eta hauek irakurrita ia-ia jakiterik badagoen nork idatzi dituen agiri nagusien zatirik esanguratsuenak, gauza bera ez diren arren, interpretari kualifikatuek eginiko komentario exegetikotzat hartu behar baitira—, ideia franko daude aipatu, jaso eta hausnartzeko modukoak. Hala nola eta soilik banaka batzuk azpimarratzearen hauexek nabarmenduko nituzke: editoreena ez ezik kazetarien erresponzabilitatea informazio-komunikazio mailan gertatzen ari den hondamendian, hauei eskatu behar zaien profesionaltasuna berreskuratzea —batzuentzat gaitz guztien sendabelarra baitlitzan lortu beharrekoa—, funtsezko arau amankomunen beharra, —norbaitek salbuespen-egoeran ezezik egoera arruntean inspiratutako arau tradizionaltzat jotzen dituenak hain zuzen ere—, hedabideek behar duten sinesgarritasuna erreperatatzeko premia gorria, botereengandik (estatuarengandik, zehaztuko du batek) eta espezifikoki hauen iturrietatik independente izateko printzipioa, etab. Egindako hautaketen artean badira *Plataforma*-ko kideek garbi eginak dituzten batzuk, hala nola kazetariak gatazkatako gerlari baino gizarte barruko harremanak goxatzeko laguntzaile izan behar dutela adibidez, egoera larriaztasunak ez polarizatzeke bederen. Gehiago ere badira, jakina —testu originalak irakurtzea baino ez dago—, baina nik hauexek nabarmendu nahi ditut —ez derrigorrez horrela ikusten ditudalako— beherago esango dudana argitzeko. Hemen beheko nire lerrook, *Plataforma*-k hasi nahi izan duen eztabaidari ene ekarpen txoa egiteko asmoz, eta agian debatean

segitzeko asmoz, har bitez. Ohar bedi bederen, badaezpada, sarri, *Plataforma*ko kide guztiak sinatutako dokumentuak eta inguruko komentarioak nahasi egiten ditudala.

Lehenik eta behin garai baten amaiera antzematen dut testu horietan, hots, kazetaritza erromantikoaren amaiera. Nahiago nuke, zinez, gogoeta horrek galeraren minetik ari dela erakutsi beharrean zorionez gaindituztat eman behar den egoera agurtuko balu. Zer da, beraz, kazetaritza erromantikoa? Zenbait idazlan irakurtzean, kazetaritzaren urrezko aroren baten existentzia gogoratzen zaigu, orain definitiboki gainbehera datorrena nonbait, eta kazetari profesionalek beraiek gelditzeko ahaleginik ezean betirako galduko dena. Adibidez, «*Lanbide honetan transiziotik gaur arteko garaia —hamabost edo hogeitun urte— ezagutzeko adina denbora daramanak badaki kazetariok diktadura frankistaren azken-aldera askatasun gehiago genuela kazetari-entresaren esparru barnean informazioa objektiboki emateko, gaur baino*» (Mendizabal). Hau guztia argitalpen berri horiek diktaduratik demokraziara urrats egiteko jaiok zirela aitortu arren, kexu da ETBko kazetaria, orain «*behin demokrazia eta autonomi erakundeak finkatu zirenean, informazio-mekanismoak eskatzen eta bultzatzen zituen helburu politikoetan bat etortze nagusi hura galdu egin zen eta, ondorioz ahuldu egin zen informazioak zuen lehen mailako egitekoa*». Ondorioz debaclea dator, hots: «*Komunikabide bakoitzak, handik aurrera, norberaren interes partikularrak ipini zituen: merkataritza-kuota, enpresa-errentagarritasuna eta bere ideologi ingurunea sendotzeari begira zeudenak, hain zuzen*». Harrez geroztik sortu omen da, gaur egun kazetaritzak omen duen akatsik larriena, hau da, «*baldintzak ipintzen zaizkie informazioa emateko, informazio zuzendua, kontrolatua, instrumentalizatua eman dezaten, helburu batzuen arabera*». Beste era batera esateko, ai zein askeak ginen kazetariok diktadura hautsi eta sistema demokratikoa lortzeko borroka egiteko ari ginenean, eta zein erabiliak sentitzen garen orain guztion artean ekarri genuen sistema honetan! Bi gogoeta egiteko parada ematen du honek. Batetik, zergatik da onartzekoa kazetarien joera politikoa demokrazia ekartzeko baldin bada eta ez, adibidez, sistema honen kontra aritzeko? Bakoitzak bere interesetara jotzea

—enpresek egin omen dutenaren arabera— ez ote da, bada, demokraziaren balio nagusia? Bestetik, aipatzen den garai hartan ere (75-85) gaur bezala oso bakanak izan ziren benetako konpromisua (justiziaren aldekoa, alegia) zeukaten kazetariak; gehiengoa —editoreen baimenarekin— olatuen gainean zihoan, gaur daukagun sistema nazkagarria ernetzeko, edo agian konaturatu gabe zer zetorkigun (abertzaleoi bederen).

Matizazio eta arreta osoarekin baina, honela dio beste komentaria batek: «*Agian ponposoegia da, baina esan daiteke informazio-medioak hil eta informazio-enpresak jaio direla*» (Barber). Ez dakit zein garaitan pentsatzen arituko den idazlea, baina nik betidanik entzun eta ikasi dut (Barbero ren ahotik entzun nuen gainera irakasle nuelarik) hedabideak zerbait baldin badira enpresa direla<sup>3</sup>. Ez dut uste, beraz, pentsa daitekeenik inoiz enpresa izan gabeko informazio-mediorik egon denik. Jakina, enpresatik enpresara diferentziak ere badira, zeren edozein enpresaren Administrazio Kontseiluaren osaketan islatzen badira berorren lotura ekonomikoak, izenak harrotzen hasia baino ez dago ulertzeko ezker abertzaleak bederen d(it)uen prentsan ez dagoela aparteko trust ekonomiko handiren aztarnarik. Halere merkatu homologatu bakarrean jokatu beharra dauka, ez baitago merkatuan egoterik enpresa izan gabe. Informazioa saldu egiten da, saltzeko produktu bat da, eta informazioa salduz dago bizirik mantentzerik, hori merkatuko legeetan jokatzeari guztiei uzten bazaie, noski. Badugu gure artean ukazio honen adibiderik, hots, *Eginen* kontrako eraso erabat politikoa izanarren merkatu-legeen arabera hedabideek ezinbestekoak dituzten publizitate-kuotak lapurtuz egiten da, herriarena berarena izan ezik beste inor askoren —konpetidoreen—algara-protesta handirik gabe. Sistema kapitalistako (dagoen bakarra?) enpresek konpetentzia dute zereginik lehena. Izan al daiteke bestelakorik? Hori leialki edo desleialki egiten den besterik da. Alabaina, konpetentziaren tendentzia nagusia, EEBBetan nahiz European aspaldidanik finkatua dagoen joera eta inguru honetan ere finkatzen ari dena da, kontzentrazioa edo monopolioa<sup>4</sup>. Tendentzia burutzen denean —eta datu guztien arabera agudo dator *Plataforma*-ko kideek aipatzen dutenez— alferrikakoak izango dira betiko

fetitxe eta mitokerietan, hots, pluralismoan, objektibotasunean, informatzeko askatasunean, etab. sinistea. Izan ere ez dut ukatzen kazetariak —organizatuko balira— beren esparrua txukuntzeko luketen zeregina, baina ikusiak ikusita, (*Plata-forma*-ren testuetan salatutako ajolagabekeria, utzikeria eta —okerrago— testuak berak eta komentaristaren batek (R.Zallok) ematen dituen arrazoiak irakurrita, alegia, sindikalizazio eskasa, inori eskatzerik ez dakion «*heroismo pertsonalik*» etab.), lekutandago.

Harira itzuliz, beraz, badirudi aro galdu haren bila jarriak daudela batzuk, ez denak. Inor ez da babalorea hemen eta gauzak ez dira horrela adierazten, baina nik gisa honetako inpresio hau ateratzen dut, alegia, gure esku balego informazioa zer den eta zer ez den definitzea, editoreek muturra sartzeari utziko baliote, gauzak hagitx hobeki joango lirateke, izan ere manipulaziorik edo datuen erabiltze zikinik badago, hori, batez ere editoreek (ezpaleko kazetarien kolaborazioz, noski) suertatzen omen da eta. Geroxeago bueltatuko naiz honetara manipulazioaren atalean. Pausa nadin, oraindik, beste poxi bat enpresa-kontuetan.

Enpresa aipatzen denean betiko eskema klasikoan sartzen gara (manikeoa hobesten da gaur egun), hots enpresariak alde batetik nahitaez beren interes gaiztoekin eta kazetariak bestaldetik, hau da, langileak izanik eskubide ororen jabe eta arrazoiaren gordailu —iraultzaren garantia ez direnean— konturatu gabe —edo parentesi artean sartuz, bederen—, enpresa informatiboko egituraren elementu ugari sartzen direla. Ez bakarrik editoreak —berorien zeregina zenbait kazetariri adierazpen-askatasuna praktikatzeko azpiegitura eta baliabideak jartze hutsa bailitza—, ezta kazetariak bakarrik —beren profesionaltasunari esker informazio/komunikazioaren malurak besterik gabe salbaturik baileuden—. Enpresa informatiboan kazetariak editoreak bezain inportanteak izan arren esaerak berdin balio du alderantziz, hots, kazetariak bezain inportanteak direla editoreak. Ez naiz orain akordatuko baina esana dago testu akademiko famaturen batean, aurrerantzean informazioa editoreen zeregina izango dela, teknologia berriak finkatu

direnetik bederen nahiko posible ikusten dena bestalde. Kazetaria naiz eta profesioaren aurka egiten dudala lirudikeen arren honoko galderatxo hau egiten ausartzen naiz, alegia, zergatik da kazetaria informazioaren profesional bakarra? Editorearen eta kazetariaren, bien arteko harremanetik, askotan tira-biratik, sortu behar da enpresa horren politika informatiboa, ahantzi barik ordea lerro nagusiak, ildo orokorra enpresaren erantzuleek jartzen dutela, eta ez hainbeste kazetariak, kazetaritza sortu denetik honuntz behintzat. Eta hori, barka, nire aburuz ez da txarra. Petxo Idoiak —alde kritikagarriak azpimarratuz— aipatzen duen «*erredakzioko talde edo langile goaren antolaketa enpresarial-profesionala*» beharrezkoa da. Izan ere enpresaren atal guztiak proiektu amankomunean uztarturik ez badaude, jai. Badakit, ondotxo jakin ere, zenbait praktika informatiboren edo lan-antolamenduren azpian eta atxakiaz edozein makurkeria ezkuta daitekeela, baina funtsean, aipatu harreman hori beharrezkotzat sentitzen dut. Nire esperientzia profesionaletik atera dudanetik esan dezaket (kazetari soil, langileen batzordeko, Erredakzio-Kontseiluko eta Administrazio-Kontseiluko kide izatea tokatu baitzait) edozein kazetariaren zorionik handiena, editoreen helburu nagusiekin bat etortzea dela, barrikada nahiz alde politiko berberean aritzea, gertakariak ikuspuntu horretatik ikusteko zoria izatea, funtsezko kontraesanik ez ukaitea, horrela bakarrik funtziona baitaiteke lasai, eskizofreniarik gabe. Tira-birak gorabehera, kazetariak jakin behar baitu bere eremuan errespetatua izaten, lana aise egiteko askatasuna inoren eskutan utzi gabe. Kazetaria ez da inoiz izan enpresaren ikuspegitik oso urruti ibiltzeko askatasuna duen inor. Kazetariaren kontzientzia hutsean ezin daiteke utzi informazioaren balioa. Erredakzio-taldeak ez dira inoiz izan *freelance*-esparru. Bakoitzak daki non lan egiten duen, bere lantoki duen hedabideak zein botere-zentruarekin harremana duen, estatuarekiko menpekotasuna zenbaiterainokoa duen. Ez baita berdin botere politiko-ekonomiko nagusiekin bateginik ari diren hedabideetan lan egitea edota horiekin hautsi egin nahi dutenetan. Bakoitzak daki zenbaiterainoko desatsegintasuna sentitzen duen enpresarekiko, bortxaturik ikusten duelako bere burua nahiz hedatzen diren balio

informatiboen tankera kirastuaren tamainagatik. Edozein kasutan oso baliogarria da Mariano Ferrer-ek bere komentarioan zehar hain ongi deskribatzen duen erakunde politiko zein instituzioetako «iturriekiko» dependentzia eskerga, kontuan hartzekoa *Plataforma*-k jotzen duen *mea culpa*. Arazoa da horretarako —eta sentitzen dut honetan bat ez etortzea— uste baino etika indibidual sendoagoa behar dela, ikusita baitago sindikatuek eta gremioak egin dezaketena. Ez da nahikoa lanerako dauden kondizio eskasetan —betiko kondizio objektibo negatiboetan!— ezkutatzea, edota nahitaez kolektiboare n ahulezian babestea. Etika, subjektibazio-kontua da; ez besterik.

Badago oraindik erromantizismoaren alorreko zat jo daitekeen beste alde bat. Kazetaritzaren betiko funtzioa «zetzuz aldatzen» ari omen da. Alegia, «kazetaritzak berezko dituen balio eta arauak, nahiz inplizitoak, nahiz esplizitoak, hondatu egiten dira». Zehatzago, «etapa honen manifestaziorik nabar menena, informazioaren aldetik begiratur, bere balio espezifikoaren galera da. Informazioak ez du balio jadanik bere funtsezko betekizunagatik, hots, jendeari gizartean zer gertatzen den jakinarazteagatik». Egia biribilaren itxurapean —«gertatzen denaren berri ematea»— akats bat ezkutatzen da, informatzea ez baita datu-emate soila, are gutxiago errealitatearen argazki klonikoa. Kazetariaren lana beti eta berez da orientatzeko. Informazioa material prefabrikatua, erabilia da, zentzu batean manipulatu, profesional eta medioen eskutik iragazitako produktua izanik. Labur esanda, kazetaritzak berezkoa du erabilgarritasuna (erabilgarritasun politikoa, noski). Hau edozeinek daki, eta ez naiz hemen luzatuko aipu-eskurakada ekartzten, baina manipulazioaz esan nahi dut zerbait gehiago.

Bere ezinbestekotasunetik abiatuz, manipulazioa mailakatu egin daiteke. Ez da berdina, material informatiboa jaso eta aukeratzetik bertatik hasi eta forma emateko nahitaez egin behar den manipulazioa —kazetari-testua elaberri batetik desberdintzen duen teknika erabiliz, adibidez— eta desinformazio edo toxikazio deituak izan diren erak. Gauza hauek edozein esku-liburutan agertu arren maizegi ahanzten dira<sup>5</sup>. Ederki



asko sailkatzen dira aipatu *Jakin* aldizkariko alean ere, nahiz eta gutxiegi azpimarratzen den estatu espainolean Euskal Herriari begira toxikaziorako eman den eta bete-betean funtzionatzen duen katixima, 1983.eko ZEN Plana hain zuzen ere. Toxikazio *zuriaz*, ordea, ez da deus esaten eta horixe aipatu nahi nuke, hitz gutxitan. Toxikazio zuria deitzen diogu ebidentetzat ematen diren kontzeptuen hedatze edo baneiatzeari. Hau da balio ideologiko hutsa baino ez dena naturaltzat emateari, naturaltzat edo akritikoki irentsia izan dadin. Batzuk hedabideei beraiei dagozkie: pluralismo informatiboa —ugaritasuna mezuaren mamiarekin nahasten da, medioen ugartasunak pluralismo itxura ematen du, konturatu gabe albiste berdinak milaka bariante desberdinez ematen zaizkigula informazio gaindosiaren menpe jarritz—; hedabideak errealitatearen ispilu dira —*katalizatzaile* dio *Plataforma*-k— gizarteko kontraesanen parte aktibo direla ezkutatu; partizipatu egiten dugu, soilik informazioa ematen zaigulako, benetako eskuhartzea ekidinez. Beste batzuk, berriz, eguneroko kontzeptu arruntak dira, hala nola tortura (edozein tratu txarrekin nahastuz), demokrazia (maioriaren diktadorearekin nahastuz), autodeterminazioa (edozein hauteskunderekin nahastuz), Euskadi (EAE-rekin nahastuz), terroristak (ekintza armatuaren ordeiz emanez), biolentoak (sistemaren kontra altxatzen dena, estatua inor baino biolentoagoa dela ezkutatu), nazioa (estatuarekin nahastuz), etab. luzea<sup>6</sup>.

Gutxi, oso gutxi dira, era guztietako manipulazio-formulen kontrako errezetak. Komentarista batek (Barbero) «*autodefentza-manuala*» gomendatzen die herritarrei. Baina, hara, ez dago. Hala badago, baina hori norbera da. Edozein arlotan, bereziki gizartean *gertakizun-kategoria* duen arloan, protagonista dena da manipulaezinezko bakarra. Bitartekaria tartean izanik, ezinbestekoa da manipulazio-arriskua. Agian komenigarria zaigu eskema komunikatiboaren azken elementua (hartzaillea) hobeto arakatzea, manipulazioaren efektuei erremedioa aurkitzeko<sup>7</sup>.

*Plataforma*-ko kideak honetan datoz bat, bereziki, hots, erabilgarritasun-mailako muga guztiak gainditu direla aitortzean

eta salatzean. Bateginik ikusten dira «*jauzi kualitatiboak*» eman direla ustean, kaltetuena kazetaritza bera irteten ari omen delarik, denak baitu mugaren bat, kazetaritzak barne. Nik, gorago aipatuarren, orain hauxe utzi nahi dut hemen galdera eginik: ¿zergatik kazetariak bagina/balira material informatiboa erabiltzen dugun/duten bakarrak, geure arau profesio-nalak betez etab., manipulazio-kuota txikiagoa izango litzateke? Zertan oinarritzen da suposizio hori, kazetaria edo erre-dakzio-kontseilua nahiago izanik, berez serioagoa, zintzoagoa, etikoagoa delako, agian? Eta hori nondik ateratzen da, zerk bermatzen du?

## GATAZKAREN ERAGINA

Xabier Oleagak (*Egineko* zuzendari izanak) harritu egin nau aitortpen batekin. Honelaxe dio, bere txandako komentarioan: «*Gogoan dut artikulu honen hasieran aipatu dudan iritzi-idazkia lantzen ari ginenon artean norbait nola harritu zen euskal gatazkan hainbeste zentratzen ginelako. Han ginenon artean oso iritzi desberdinetako jendea ginen, aipatutako plataforma-ren konposizio anitza ikustea besterik ez dago, baina denok (eta hauxe da nire harriduraren puntua) gentozen bat hemengo esparru komunikazionala, prentsaren kontzeptu zabalari dago-kionez, hain zuzen ere gatazka horrek kondizionatzen duela onartzerakoan». Ene ustez kondizionatzea gutxi da, erabakitzeko tenorean jartzen gaituela esan beharko litzateke, guk eskatu gabe ere, sarri gure gogoaren kontra, alde ala aurka gauden demostratzeraz behartzen gaituela, hain zuzen ere. Gatazkak markatu egiten gaitu, ez dago eskapatzerik, interpelazio osoa da, gure justiziarekiko tamaina erakus dezagun.*

Kazetaritza, orientatzeko da; neurriak eta moduak egongo dira baina gutxienez ez dezagun esan ezetz ebidentzia ukatuz. Orientazio-lan horretan badaude neurriak eta, ondorioz, gehiegikeriak. Osasuntsua da ekilibrio hori mantentzen saiatzea, *denak* ez baitu balio, gerran ere denak balio ez duen bezalaxe. Orientazioa, informazioaren erabilpen itogarria —kazetari epe-

lentzat beraientzat eramanezina bilakatzen denean— *joku zikina* egiten ari delako inpresioa zabaltzen hasten denean, seguru egon *gertakizun* garrantzikoaren aurrean gaudela. Hots, indarrean dagoen sistemarekin bukatu nahi duen gertakizuna martxan dagoelako seinale izaten da hori. Gertakizun horrek ETA du izena, eta bere etengabeko presentziatik sortu den ENAM osoa. Gertakizun hartatik isurtzen den egiak, zirkulatzen jarri den egiak, *Euskal Herriaren askapen nazional eta soziala* du izena, forma, molde eta era oso desberdinetan isladatzen dena, hain zuzen ere. Sistemak bere burua defenditzeko egiten dituen maniobra bitxiak, gertakizunaren balioa eta efektibitatearen neurri ematen digute. Pausa gaitezen hemen apurtxo bat. Ez dago ukatzerik *euskal gatazkaz* ezagutzen den gertakizunak sistema politiko-ekonomiko eta komunikazionalan duen eragina. Ikusi norainokoa den, ezen —eta azken arlorak bakarrik mugatuz— hedabideek berezkoak omen dituzten balioak behin eta beriro urratzen dituzten (iturrien kontrastatzea, agresibitateak gabeko datu-isurtze lasaia, filtrazio-lehiatik urruntzea, norberak bere ikuspegia ukatu gabe ahalik eta objektiboen izateko ahalegin zintzoa, estatuarekiko autonomia, etab.). Gauzak horrela, kazetaritzaren hondamendia baino gehiago gertakizunaren beraren garrantzia nabarmentzen du egoera gotortu honek, zeina, bestalde, ez den konponduko aipatu gatazka hori konpondu arte. Batzuen gustokoa ez izanarren hedabide gehienek sistemarekiko duten atxekimendua salatu behar da. Izan ere, arazo guzti honetan harri-garriena dena zera da, alegia, gertakizun horren kontra *El Correo*, *Deia*, *El Mundo*, *DV*, *ABC*, *El País*, *La Vanguardia*, *Diario 16*, *Telebista denak*, bateginik ikustea, pluralismoaren printzipioa erabat ahaztuta. Zerk batzen ditu estatuarekiko atxekimendu erabatekoak ezik? Beren bariazio sinfonikoa gorabehera, gobernuari zuzendutako kritikak barne, estatu zapaltzailearen eta bere interes orokorren alde jartzen baitira, gatazkaren funtsa, hain juxtu, hura ez onartzetik datorrelarik.

Honaino ailegatuta *Plataforma*-ren testuetan aurkitzen dudak akatsik deigarriena azpimarratu behar dut, injustua delako. Azken testua erreperatzen bada, *bi aldeen* sindromea agertzen da garbi asko. Ahalegin inposiblea egiten saiatzen da

testua barrikadaren bi aldeetan dauden hedabideak joku berdinean sartu direla esateko, alde horien arteko desoreka nabarrena esplizitatu gabe. Ohartzekoa da, bai, alde batean hedabideak jartzen direla eta bestetik ENAMen organismoak. Ez al da hau, agian, goian aipatutako desoreka hori ez aipatzeko maniobra inkonziantea? Hamaika bider bortitzago (kantitatez zein kalitatez) dager ahobatez sistemaren alde makurtuta dagoen prentsa bestea baino. Hamaika bider zakarrago prentsa horrek mugimendu abertzale osoaren kontra eta bereziki herri-mugimendu, preso eta militante armatuen kontra erabilitako terminologia eta aldarte txarra bestaldekoak erabilitakoa baino. *Pedrojotak* behin esandakoa hona ekarriz, ahal duenak manipulatu du, eta gehien ahal duenak, estatuak hain zuzen, gehiago. Edozelan ere gerra psikologiko honetan erabiltzen diren armak ez dira inondik inora konparagarriak, estatua- ren biolentzia eta herri-mugimenduen konparagarriak ez diren bezalaxe (ez kantitatez ez kalitatez). Susmoa dut erabat ezinezkoa egiten zitzaiela *Plataforma* ko partaideei hedabideen gehiegikeriak salatzea nolabaiteko errurik bota gabe bestaldeko<sup>8</sup>. Nola demontres jarri daiteke parean —edo bata bestearen atzean— *Eginen* kontra egindako asaltoa, ENAMeko edozeinen kontra egunero entzun eta irakurtzen ditugun basakeria zein lerdokeriak, Amnistiaren aldeko Batzordeek edota HBko parlamentari batek, inoiz —*malaletxea* behingoz leher- turik— bota ditzaketen purrustadekin? Adierazgarria da oso Ramón Zalloren komentarioaren zati bat, «*Eztabaida ezker abertzalean*» izenpean doana. Susmo horren pean ulertzen ditut nik polarizazioaz esaten direnak eta zubigintzarako ematen diren ideiak. Ez, noski, batzuetan polarizaziorik gertatzen ez delako, (benetan da azpimarragarria Xabier Oleagak ekarritako zirujanoaren irudia!) edota zubigintza erabat hutsala delako, baizik eta gauza guztiak parean jartzeak, errespon- tsabilitate-graduak neurtzerakoan ez badago sailkatzerik, azke- nean «*denak gara errudun, beraz, denok aldi berean erreak- zionatzen dugu ala ez dago zer eginik*» inpresioa ematen du, kon- turatu gabe hain zuzen hori dela desmobilizaziorako inpre- sio- rik onena. Justiziaren zentzua ere eduki behar da, eta justizia ez dago nahitaez kontsentsuan, ezta adostasunean ere, esku-

bide batzuk ez baitira trafikagai. Maroñoko bilerak aipatzen dira bi aldiz gutxienik. Han, besteak beste, egia ez dagoela alde batean esan genuen, baina horrek ez du derrigorrez esan nahi —delegazio bateko buru Arantzazutik Maroñorako bidea egin nuelako esan dezaket— egia ideia guztien destilazioa denik, edota guztien kontsentsura dagoenik; ez, areago, —beste zenbait aitorten bezalaxe interpretagarri delarik— egia guztion artean bilatu behar da; egon, ordea, dagoenean dago, ez alde guztietan, bakar batean baizik. Nire inpresioa da, hemen militante izan beharrean bitartekari-bokazio ugariegi ari dela sortzen.

Ezker abertzaleak aurtengo urte-hasieran Komunikazioa-Inkomunikazioari buruz egindako eztabaidan norbaitek, desinformazioaren eta intoxikazioaren kontra arma berberetzat hartzen izan ditzakeen posibilitateak eta kalteak aztertu zituen. Filtrazioekin nola jokatu du aztergai, primiziak noren eskutik eman eta noiz eman. Badirudi, saioaldi baten buruan etekin gutxi eman diola erakunderen bati, agian HBko prentsa-bulegoari, ez dakit, eta orain beste taktikak hobesten direla<sup>9</sup>. Ez naiz horretan sartuko. Nere aburuz nahikoa eta gehiegi du ENAMeko kazetariak, estatuak Euskal Herriaren askapen nazional zein sozialaren mugimendu gerazina frenatzeko egiten dituen amarrukeria guztiak argitan jartzen, mezu eta albiste pozointsuak bidaltzen hasi aintzin. Kazetaritzaren, etikaren, profesionaltasunaren, zuzentasunaren paradigma eta eredu direnak lotsaz gorritzeko adina lan badago. Edozein modutara, hemen borroka bat dago irabazteko —Euskal Herriari justiziaz zor zaizkon eskubideak lortzeko ildoan zabaldutako borroka hain zuzen ere—. Kazetaritzaren eta kazetarien sinesgarritasuna zein geroa horrekin uztarturik dago gurean, baina hura hau baino hamaika bider larriagoa eta premiazkoagoa dugu.

1. Artetxe Jose Luis, Auzmendi Txema, Azurmendi Nerea, Barbero David, Berasategi Iñaki, Biskert Patxi, Blasco Roge, Bujanda Mikel, Castellano Rafa, Etxebarria Hasier, Ferrer Mariano, García Patxi, Garmendia Elisabete, Garzia Joserra, Gómez José Luis, Gurrutxaga Carmen, Ibarra Pedro, Idoyaga Jose Vicente «Petxo», Irazusta Tito, Irigoyen Ramón, Izagirre Koldo, Kintana Xabier, Lertxundi Andu, Loidi Arantzazu, Macías Joseba, Mendizabal Luis, Moreno Victor, Oleaga Xabier, Otero Xabi, Prieto Jeni, Sagartzazu Pako, Saizarbitoria Ramón, Salutregi Jabier, San Miguel Juanjo, Sastre Alfonso, Torrealdai Juan Mari, Ubeda Garbiñe, Uria Iñaki, Urkia Amaia, Zallo Ramón, Zufia Rosa.

2. *Jakin* (81), 1994ko martxo-apirila. Aipatu artikulugileak David Barbero, Mariano Ferrer, Petxo Idoyaga, Luis Mendizabal, Xabier Oleaga eta Ramón Zallo dira.

3. Aipu pare bat ekartzearen: «En resumen, los principales medios de comunicación —en particular, los medios de élite que establecen el programa que los demás suelen seguir— son grandes empresas que venden públicos privilegiados a otras empresas. No podría constituir una sorpresa el hecho de que la imagen del mundo que representan reflejara las perspectivas y los intereses de los vendedores, los compradores y el producto. La concentración de la propiedad de los medios de comunicación es elevada y va en aumento. Además quienes ocupan posiciones directivas en los medios o adquieren categoría dentro de los mismos en tanto que comentaristas, pertenecen a las mismas élites privilegiadas, y se podría esperar que compartieran las percepciones, aspiraciones y actitudes de sus asociados, reflejando igualmente sus propios intereses de clase. Es poco probable que los periodistas que penetran en el sistema se abran camino salvo si se conforman a estas presiones ideológicas, generalmente por medio de la internalización de los valores; no es fácil decir una cosa y creer otra, y quienes no consiguen conformarse tenderán a ser eliminados por medio de unos mecanismos familiares» (Ikus Noam Chomsky «Ilusiones necesarias», *Libertarias-Prodhufi*, Madrid 1992, 17). «La denominada sociedad de la información es, en realidad, la producción, proceso y transmisión de una cantidad muy elevada de datos relativos a todo tipo de cuestiones —individuales y nacionales, sociales y comerciales, económicas y militares. La mayor parte de los datos se elaboran con el fin de satisfacer las necesidades específicas de las grandes empresas, las burocracias oficiales nacionales y los estamentos militares del estado industrial avanzado». Ikus H.Schiller, «El poder informático», Gustavo Gili, Barcelona, 1983, 46 or.

4. «El modelo de los medios de comunicación como oligopolio de las grandes empresas es el sistema natural para la democracia capitalista. Como corresponde, ha alcanzado su forma más elevada en las más avanzadas de estas sociedades, especialmente en Estados Unidos, donde la concentración de los medios de comunicación es elevada, el campo de acción de la radio y la televisión públicas es limitado y los elementos del modelo democrático radical existen solamente a nivel marginal, en fenómenos tales como la radio de la comunidad, que cuenta con el apoyo de la audiencia, y la prensa alternativa o local, a menudo con un efecto considerable sobre la cultura social y política y sobre la sensación de autoridad en las comunidades que se benefician de estas opciones. En este sentido, Estados Unidos representa la forma hacia la cual la democracia capitalista está tendiendo:...(Chomsky, *ibid*, 33-34 or.)

5. Liburu mardulik gustatzen ez zaionarentzat eskura-eskura dago manipulazio-bideen zerrenda xehea «La estrategia de la desinformación» artikuluan, in «Komunikazioa-Inkomunikazioa», «Herria eginez» aldizkariak 1994ko gehigarritzat argitaratutako testu-bilduma.

6. Ikus Schiller H., «Manipuladores de cerebros», Gedisa, Buenos Aires, 1974, 82. or. Idazle honen aburuz bi formula berezi erabiltzen dituzte masa-komunikabide deituriko hedabideek, *gizartearen funtza aztertzea nahiko imposiblea dela frogatzeko eta kontra egon arren, sistemaren alde jartzeko, dagoena ontzat emateko azken finean*. Bat, errealitatea bere osotasunean eman orde, *zatika erakustea, fragmentatuta informazio gainkarga dagoela eta*; bi, presentek omen duen neurrigabeko inportantzia oinarriturik, albisteak etorri ahala ematea, bata bestearen gainean, *batek bestea ezkutatu eta gaindituz*, interpretazio eta gogoeta egiteko batero denborarik gabe. Bi formula hauen bidez, errealitatea ulertzeko *ezgaitasuna* barneratzen dela dio Schillerrek, azkenean *desmobilizazioa bortuz*. Gai guzti hauek lasaia go ikusteko, irakur Zalakain J. «Manipulazio informatiboa», in «Ikasgelatik plazara», Heda Saila, UEU, Bilbo 1990, 105-118. or.

7. Gai honi buruz ere badago irakurgai interesgarririk: ikus J. Agirre kolektiboa «Movimientos populares y proceso comunicativo», *Herria 2000 Eliza* (118), 1991, 29-34 or. «El militante de los movimientos populares es sujeto del acontecimiento, y en vez de profesional es aficionado que se entusiasma con su tarea. Es esta segunda figura la única que nos interesa en un proceso de transformación social y, por ende, de la propia estructura mass-mediática actual. El sujeto del acontecimiento cumple una doble función: es receptor en el clásico esquema comunicacional dominante, pero es también receptor bloquea-

dor y así mismo, contradictoriamente, saliéndose del esquema, sujeto productor y transmisor del acontecimiento. En su función de receptor-bloqueador impermeabiliza contra el discurso dominante al movimiento y a sus entornos. Se produce, en consecuencia, incomunicación, y se taponan el contenido de ciertas informaciones relacionadas —directa o indirectamente— con el acontecimiento. El receptor-bloqueador sí que entiende el mensaje del emisor mass-mediático, incluso podríamos decir que es el único que lo entiende en su verdadera dimensión (no podemos aducir problemas de código, o de deficiencias del canal, ruidos, etc.), no en vano el sujeto del acontecimiento también pertenece a la situación, como cualquier otro receptor, pero por su carácter de acontecimiento rechaza los aspectos centrales del abundante flujo informativo, una vez analizado y valorado. Y tan profundo es ese rechazo que el mensaje inicial se pierde, hay pérdida de energía comunicativa y de enormes sumas de dinero empleadas por el poder en bombardearnos con sus mensajes. Ahora bien, el sujeto del acontecimiento, aun cuando rechaza las intenciones de esos mensajes, realiza análisis cualitativos y sintomáticos de los mismos».

8. Hitzok idazten ditudanean 20 egun daramatza Pepe Rei *Egin*-eko kazetariak kartzelan, halere *Plata-forma*-k berak ez du hitz bakar bat ere kaleratu. Kaleratzen duenean berandu izango da, edota nire hemengo arrazoiak indartuko ditu, justizia bezala berandu *egiten* denean injustua bilakatzen baita.

9. Ikus «Contraofensiva contra la guerra psicológica», aipatutako «Heria eginez»en. Arazo berbera planteatu zuen Pablo Sastrek, «Komunikabideak Euskadin, gaur: desinformazioaren gerra», *Larrun* (5), 1987, 68-81, azken paragrafoak bereziki.

# GUNEN GURPILEAN

---

JOXEAN MUÑOZ

TURISTAK  
DIMISIOAK  
KONFIANTZA  
JARRAITUKO DU

INAKI IRAZABALBEITIA

ZURIETAN ZURIENA  
ARGITALPEN-UHOLDEA  
ARRANTZA-KONTUAK

ELIXABETE GARMENDIA

ZIRKUITUA  
GEHIEGI ETA GUTXIEGI

XABIER MENDIGUREN ELIZEGI

UDA SARGORIA  
BIZKOR EDO ERGELENTZAKO LITERATURA  
NON DAGO PEDROTZO?  
GU BAINO ERRUKARRIAGOAK

BEGOÑA DEL TESO

VENEZIA, IKUSKIZUN HANDIA, BEGIRADA ZORROTZA  
DONOSTIAKOA, ZIRKUITUAREN AZKENAURREKOA  
TELE MERKEALDIETAKOA; EZ DEN ETA EZ DAGOEN ANTZERKIA

KIKE AMONARRIZ

TXEMA LARREA  
JUGOSLAVIA: EREDU GALDUA  
ITZULPENAK LIBURUGINTZAN  
BOIKOT MEHATXUAK  
«A» EREDUA



ARTEA  
ZIENTZIA  
GIZARTEA  
LITERATURA  
IKUSKIZUNAK  
SOZIOLINGUISTIKA

ARTEA

---

JOXEAN MUÑOZ

TURISTAK

Aspalditxo dimititu zuen udak. Berarekin eraman zituen batzuen irakurtzeko eta besteen artea ikusteko aukerak, apika kultura eta mundu desberdinetan; irakurketa arinak, ikus-taldi turistikoak, turismoa eta artea, aisia eta kultura batera bizi daitezkeela frogatuz. Hori da saltzen diguten topikoa, uda ez dela kultura astun, sakon eta pisurako sasoia, berez balitz bezala urtaro txolinagoa, kaxkarinagoa, «friboloagoa». Kulturari seriotasunetik dimititzea eskatzen omen dio udak, serio, triste eta aspergarria baliokide eginaz, auskalo zergatik, auskalo zertarako.

Udak dimititu ondoan, arte-aretoetako ikuslegoaren balantzea egin dute egunkarietarako, zenbakitan: Bilbok baino askoz jende gehiago bildu omen du Donostiak bere erakusgeletan.

Ondo da. Lehendik ere bagenekien Donostia turistikoagoa zena. Datuak ez du interesgarriago egiten «Kultur Hiriburua»ren inguruko auzia, ez dio arrazoirik eransten debateak probintzien eta hiriburuen arteko gatazka bailiran agertzeko joera zitalari.

Ez du horrek ukatzen (Bilboko Arte Ederretako Museoa) Akerretaren erakusketa zabalaren interesa. Figuratiboa eta abstraktua kontrajartzen dituen eztabaida zenbateraino den antzua erakusten duen artistetako bat da, ofizioaren maitalea, pinturaren goreslea, ez begi-kolpean dastatzekoa. Ez da moderno agertzearen kezka. Ez da albiste. Baina bizirik dago bere isiltasunean. Arreta berezi batez, denbora mantsotzen duen pintura zehatza da, ez hain zuzen turismoarentzat egokiena.

Eta zer. □

#### DIMISIOAK

Zenbakiak beharrezkoak direla, nik bezalako ezjakin batek ere aitortzen du, numeroak nola erabili asmatu ezinik ibili arren. Bada ordea, zenbakiak bandera batean ipini eta *slogan* gisa aldarrikatzeko direla uste duenik. Edo horrela erabiltzen dituenik, numeroaz arrazoa eta arrazoiak garrasia eginik. Are gehiago udazkenean, udazken honetan. Dimisio-garaia datorrenean.

Udazkenak hauteskundeak ekarri ditu, trumoiz eta tximistaz, haserre biblikoen, kritika mingotsen, promesa poto-loen garaia. Idazten ari naizenean hilabete falta da oraindik; irakurlearen gaitasuna heldzerako, agian paseak dira, ahazten hasiak. Dimisioak etorriko dira, hostoak erortzearekin, batzuk norbere erabakiz, besteak halabeharrez.

Espanian aurreratu egin zaizkigu dimisioak. Maria Corral bota dute Reina Sofiatik. Auziaren inguruan, Reina Sofiaren definizio-arazoak agertu dira, behin berriro, irudi-operazio gisa eta politikoen beharragatik, azkarregi sortua izanak eragindakoak. Museo zazpiki baten krisialdiak. Espainiako arteak

presentzia handiagoa behar ote duen, Maria Corral nazioarteko mugimendu puntakoenen eta hotzenen aldekoegi agertu izan ote den (La Caixako artearekiko politika zuzentzen zuenean), Espainiako artearen zati zabal bat erdeinuz begiratzen ote duen, errealismoa eta abstrakzioa kontrajarriz, (Antonio Lopezek erakusketa egiteko baimena ukatu zionekoan), plangintza orokorren eskasiari men eginez (Gernika bildumara ekartzearagatik, Pradokoarekin liskarrean), bere kriterioak ukatu ez ote dituen, bildumaren nondik norakoa zuzena ote den, zehatza ote den, berriro azaldu dira arazo zahar konpondu gabeak; gaineratu zaizkio bere *estiloari* buruzko kritikak. Aipatze hutsa egingo dut, prentsan ere besterik ez baitute egin. Izan ere, ez dute arazo horiek ekarri Maria Corralen dimisioa, baizik eta ande reminstroaren konfiantza galdu izanak. Ni neroni, jakin gabe geratu naiz noiz eta zertan galdu duen inoiz inork emandakoa, zertan egin duen oker, zer dagoen aldatzeko. Baina konfiantza-arazoak barne-arazoak dira, gela itxi batean eztabaidatzekoak. Kazetariak eta ikusleak auziaz kanpo geratu gara, ate itxiaren honuzkaldean, pasiloan zain. □

## KONFIANTZA

Ziurrenez, azken agintaldiaren kultur balantzea Guggenheim arazoak polarizatuko du. Kulturari, industriari eta ekonomiarari omen dagokio ahalegin erraldoi hori, hiri eta herri oso baten etorkizun kulturalari. Kontra, kexu edota kezkatu agertu dirnei, atzerakoikeria, txikikeria eta probintziakeria egotzi zaizkie, Bilborekiko inbidiak. Konfiantza egiteko eskatu izan zaigu, itxaroteko bisitarien kopuruak ikusi arte, zenbakitan, operazioaren justifikazio garbiena numerotan ematerik balego bezala.

Egitasmo erraldoi bat da, kultura industriadatzeko, arteaz hiri baten irudia zabaltzeko, euskal artea arte-sare eta zirkuitu handiekin konexioan jartzeko saio bat. Zirkuitulaburraren arriskua salatu du askok, alferrik. Gela itxietan erabaki da, diseinatu da eta sinatu da, konfiantza-arazo guztiak bezala. Zain eduki gaitu Arregi jaunak pasiloan, eztabaida publikoari eta profesionalari dien konfiantza-falta agertuz.

Horrela gauzak, irrikaz hartzen dira *Jakin*-en Zulaikak pasa dizkigun datuak. Iruzurraren beldur utzi gaitu, euskaldunon izena irrigarri gertatzen ari ote den kezkatu. Gela itxian gure ospe eta «proiektio internazionalaz» ari direla jakiteak dakar erreparoa ere ohore-arazoen itxura hartzea. Konfiantza-arazoaren buelta iruzurraren beldurra den bezalaxe.

Dagoeneko iruzurra egin digute. Ohostu egin digute beharrezkoa zen eztabaida bat, besteen esku utzi dituzte euskal artearen definizio, antolaketa, irudi, proiektio eta kartografi arazoak. Ez bilduma-arazorik, ez euskal artearekiko kriterioen eztabaidarik, ez kriterioen zehaztasuna eskatzerik, ez politika bat eta iharduera bat definitu beharrik. Numeroak New Yorken egingo dituzte, zenbat bisitari dauzkagun esateko, urteroko balantzeetan.

Jaun ministroak ez du hori dena eztabaidatu eta definitzen joateko gai garenik uste, nonbait, eta eskaintza merkantil baten garantia edo bermea bilatu du. Oso bere gaineko bati eman dio gure inbertsio kultural handienaren kudeaketarako konfiantza. Dimititu egin gaitu euskal arteaz kezkatu beharretik.

Balantze sakonetarako ez dut uste hauteskondeek beta emango dutenik. Oposizioak ere, Arregik kontra dituen sektore ugariak, beren argumentoen erreparoa egin beharko lukete, genuke, satanizazio nabardurarik gabekoan erori gabe. Guggenheim erantzun bat da, auzitan jarri litekeena; baina galderak, konexio internazionalen, museo nazional ala transnazionalen, euskal artearen gorpuztasunaren ingurukoak, indarrean daude eta ezin dira hemengotasun hutsez, anti-elitismo eta herrikoi-tasun hutsez edo merkatuaren kutsadurarik gabeko kultura puru baten aldarrikapen hutsez erantzun. □

#### JARRAITUKO DU

Hurrengorako geratu da ikusi eta irakurritakoaren aipamena. Idazki berriak atera ahala, ageriago geratzen da euskaldunak artearekiko diskurtsoa erdaraz egiten duela, bai

behintzat gehiengo gero eta zabalago batek (Bitarte 3). Irakurketa berriak, azterketa berriak eta korpusaren ikuspegi eta balantze berriak dakartza, poliki poliki, euskal kontzeptuetatik abiatuturik, erdaraz. Agian, tamalez, normaltasunarena da seinale.

Udak ekarri digu baita ere, LUR argitaletxeak, bilduma baten burutzapen, (*Artea, 5. Tomoa*) atera berri duen liburua. Emango digu *corpus*-ari buruz mintzatzeko aukerarik. Azken urteetako artearen balantze bat egiten dute, urgentea, gerta-kizunen zurrumbilotik bidalitako erreportaiak bailiran, arteari buruz Carlos Mtez. de Gorriaranek, arkitekturaz Iñigo de Viarrek eta zinez Koldo Izagirrek (euskaratik itzulia). Euskal Herriko artea ez da Euskal Eskolan amaitu. Behar-beharrezkoak genituen geroagoko geroagoko balantzeak. Ongietorriak. Datu, balorazio eta argibide aberats ugari eman digute, eta gainera, beren lan-arloa mugatzeko erabili dituzten kartografia desberdinetaz mintzatzeko aukera ezin hobea. Hurrengoan. □

## ZIENTZIA

INAKI IRAZABALBEITIA (ZETIAZ-ELHUYAR)

### ZURIETAN ZURIENA

Gure lagunartean, txutxu-mutxu edo txantxaren bat belarritz belarri dabilenean, «eta zuk zeini esan diozu?» leloa jaulki egiten dugu sarritan eta erantzuna jakina: «bostgarrenekoari». Telebistako detergenteiragarki ospetsu baten oihartzuna dago, noski, gure lelo horretan.

Zurietan zuriena eta leunetan leunena lortu nahi horretan detergenteen gerra piztu da *Omo* eta *Persil* egiten dituen Unilever konpainia anglo-holandesaren eta *Ariel* egiten duen Procter & Gamble konpainia estatubatuarren artean.

Joan den maiatzean Unileverrek katalizatzaile berria duen detergente-sorta kaleratu du. Manganeso-konplexu heterozikliko batean oinarritutako katalizatzaile berriak orbanak azkarrago eta tenperatura bazuagotan garbitzen omen ditu. Unileverrek 2.000 milioi pezeta gastatu ei ditu katalizatzaile berria garatzen.

Procter & Gamble etxearen erantzuna berehalakoa izan da. Kompetentziaren produktuak kalean izan bezain laster, katalizatzaile berriak, baldintza batzuetan erropa hondatzen duela aldarrikatu du. Horren froga moduan Europako zenbait laborategitan eginiko azterketak erakutsi ditu. Unileverrek Procter & Gamble tribunaletan salatu du eta bi konpainiak elkarri mokoka ari dira, batak besteari gezurretan ari dela leporatuz.

Arazoak zertan bukatuko duen ez zait egiatan askorik axola. Zurietan zuriena bilatze horretan xahutzen diren milioi mordoa eta ea horrek benetan merezi ote duen da niretzat kezka-garriena.

Ikerketan inbertitutako dirua ondo usatutakoa iruditu izan zait beti. Alabaina, kasu honetan Unileverrek bere detergenteak are eraginkorragoak egiteko gastatu duen zifra irakurtzeak tri-pako mina ematen dit. Zati handi batean alferrik xahututakoa iruditzen zait eta hainbat galdera sortzen zaizkit berehala. Oraingo detergenteak ez al dira nahiko eraginkorrak? Azken emaitzan desberdintasun handirik ba ote dago detergente bat ala bestea erabiliz? Aurrerako benetako urrats kualitatiboa al da? Zertarako bada inbertsio hori guztia? Telebistan Urliak Sandiak baino zuriago garbitzen duela aldarrikatzeko? Hor dago koxka!

Marketinga nagusi denean, leihakidea baino gehiago saldu behar denean, merkatuaren arrazoia beste guztiei nagusitzen zaie eta halabeharrez, 1994ko *Arielek* 1993koa baino eraginkorrago garbitu behar du. Zentzurik ez du horrek, egungo detergenteen eraginkortasun handia kontuan hartzen badugu. Eraginkortasunaz landa, bestelako arrazoiak ere eman litezke produktu berria kaleratzeko.

Dakusagun. Unileverrek bere detergente berria aurrekoak baino ekologikoagoa dela dio (egun horrek saltzen du eta!),

garbiketarako ur gutxiago eta temperatura txikiagoa behar omen delako. Auskalo! Hori egia izanik ere tranpa egon liteke guzti horren atzean. Edozein prozesu teknologiko aurrekoa baino ekologikoagoa dela baieztatzeko prozesua osotasunean kuantifikatu behar da eta ez zati batean bakarrik. Gure kasuan, detergentea egiteko eta erabiltzeko behar diren urrats guztien energi eta hondakin-balantzea banan-bana egin behar da. Horietako urrats batzuk ekologikoki onuragarriagoak izango dira, beste batzuk aurrekoen parekoak eta kaltegarriagoak ere egon daitezke. Azkenik, emaitzen batuketa egin eta baturak esango digu benetan ekologikoagoa den ala ez. Bestea, atso-kontuak baino ez dira. Izan ere, ea zeinek segurtatzen duen, besteak beste, detergente berriarekin erabiltzaileak ikuzketa-ziklo laburragoak eta temperatura bajuagoak erabiliko dituen!

Dirutza hori inbertitzeko beste justifikaziorik ere bila liteke. Manganeso-katalizatzaile horiek garatzeko egin den ikerketak beste fruitu eraginkorragoak eta zentzuzkoagoak eman ditzakeela beste zenbait alorretan esan lezake baten batek. Ez litzaioke lagun horri arrazoirik falta historiari begiratzen badiogu bederen, baina, kasu honetan historia ez eta histeria hitza egokiagoa izan liteke, ene ikuspegitik.

Hobe lukete Uniliverrek eta beste detergente-fabrikatzaileek, zurietan zuriena eta leunetan leunena bilatze horretan xahututako dirutzak, aurreko belaunaldiko detergente fosfatatuek, besteak beste, eragindako eutrofikazio-arazoak ikertzeko erabiltzea. □

#### ARGITALPEN-UHOLDEA

Lehengo batean Bartzelonako unibertsitateetako batean ari den biologi ikasle bati honelako zerbait leitu nion prentsan bere irakasleei buruz ari zelarrik: «Beraientzat irakaskuntza bigarren mailakoa da ikerketaren aurrean. Baztertuta gauzkate». Irribarre egin nuen nire artean. Sarritan, unibertsitatean diharduten nire lagunekin ikerketa *v s.* irakaskuntza borrokaz eztabaidatu dut. Batzuetan, beren lanean ikerketak irakaskun-

tzak baino lehenetasun handiagoa duela aitortu didate. «Curriculuma egin behar dugu!» izaten da jaulkitako aitzakia.

Arrazoirik ez zaie falta eta guztiz taxuzkoa da aitzakia. Unibertsitatean irauteko curriculum egokia osatu behar da; horretarako argitaratu egin behar eta artikuluak idazteko ikerketak emandako datuak behar dira. Beraz, gure unibertsitateetako irakasleak urteko produkzioari beren ikasleen beharrei baino jaramon handiagoa egitea ez da harrizkekoa, beren statusa (babarrunak azken finean), hein handi batean, haren menpe baitago.

Egoera horretan irakasle asko deseroso sentitzen da. Izan ere, epe batean ezer argitaratu ez badute, lanik egin ez dutela iruditzen zaie. Irakaskuntzan, alor administratibo-burokratiakoan (dekanotzan, idazkaritzan, etab.) edota bestelako zereginetan (euskararen normalizazioaren munduan gure unibertsitateetan) eginiko lanari ez diote behar bezala erreparatzen. Ikerketa da haientzako neurri ia bakarra.

Egia esateko biologi ikaslearen konstatazioaren arrazoi bakarra ez da curriculuma egin beharra, sistemaren bestelako akats bat baizik. Estatu espainolean behinik behin, ikerlari-bokaziokoez beren nahia ase gura badute, nekez aurki dezakete lanposturik unibertsitateetik kanpo. Beraz, unibertsitate-irakasle bihurtzen dira ikerketa egin ahal izateko eta ondorioz, beren irakaskuntzaren kalitatea, irakasle-bokaziorik ezean, ez da espero daitekeen bezain ona.

Ikerlari baten status eta maila bere argitalpen-ugaritasunarekin lotzea ez da gure unibertsitatearen ajea soilik, munduan nahiko barreiatua dagoen zerbait baizik. John Maddox *Nature* aldizkari ospetsuaren zuzendaria hortaz kexu zen duela gutxi. Ikerlari askok batera sinatutako artikuluak, egilekidetasuna alegia, aipatzen zuen batez ere eta maiz, egile bakoitzaren ekarpena zein den jakitea nekeza dela azpimarratzen zuen.

Ikerketan ihardun dugunok egilekidetasunaren atzean ezkutatzen diren praktikak ezagutzen ditugu. Batzuk zerendatuko ditut: departamentuko artikulua guztiak sinatzen dituen depar-



tamentu-buruak artikuluaaren mamiaz jabetu gabe sarritan, ikerketarako behar den lehengaia hornitzeagatik bere izena agertzea bazterrezinezko baldintza moduan jartzen duenak edo errutinazko analisiak egiteagatik gauza bera eskatzen duenak, etab. Estatu Espainolean Erresonantzia Magnetiko Nuklearrezko espektrometro banaka batzuk zeudenean, Madrilgo CSICeko ikerlari bat ospetsua zen kimikari organikoon artean, bere espektrometroan analisirako laginak pasatzeagatik artikuluaaren egileen artean agertzea eskatzen zuelako.

Arazoa hor dago eta ez dauka irtenbide errazik. Maddoxek, besteak beste, argitalpen-kopuruaren eta ikerlariaren arrakastaren arteko lotura ahultzea proposatzen zuen. Horrek ikerlarien lana neurtzeko beste tresna baten beharra eskatzen du, halabeharrez.

Azken urteotan, informatikaren iraultzaren ondorioz, aipamenaren bidea zabaltzen ari da. Munduan zehar literaturan argitaratzen diren artikuluek beste zientzilariek zenbat aldiz aipatzen dituzten neurtzen duten erakundeak daude. Aipamen-kopuruak artikuluaak komunitate zientifikoan egin duen inpaktua neurtzen du; lanaren kalitatea juzkatzen du hain justu. Aipamenak neurri egokiagoa dirudi, tranpak asmatzen ez diren bitartean behintzat. Izan ere, argitalpen-kopurua egokiena zirudien aplikatzen hasi zenean.

Hasierako puntura itzulita, argitalpen- edo aipamen-kopuruak izan behar al du gure unibertsitate-irakasleen lanaren neurri ia bakarra? Ezezkoa izango litzateke taxuzko erantzuna. Alabaina, praktikan bestela egiten ari da gizartea. Ez al da pausatu eta gogoetari ekiteko unea heldu? □

## ARRANTZA-KONTUAK

Deriba-sareen arazoak euskal gizarte zibilean garai bateko izpiritua (euskal kostalde nuklearraren kontrako edota amnistia-aren aldeko borroka ren garaiak) berpiztu du joandako udan. Poztekoa da oso nire aburuz, oraingo gizarte-egoera triste eta ospelari esperantza-zirrikitia irekitzen baitio.

Ez beza pentsa irakurleak gizarte-azterketari lotu behar natzaionik oraingo honetan. Ez da hori nire asmoa ezta hau tokia ere. Arrantza-arazoak planteatzen direnean globalitatea, osotasuna hain justu, kontuan hartzea eskatzera dator. Hegaluzearan arazoa garrantzitsua izanik ere, itsasoarekiko ditugun amore/desamorezko erlazioen zati txikia baino ez da.

Prensa irakurrita edota protagonisten iritziak entzunda, arrainstockak urritzea konkretuki eta itsas biomasa txirotzea jeneralean, deriba-sareen errua baino ez dela ondoriozta daiteke. Deriba-sareak itsas biziarentzat kaltegarriak direla eta debekatu behar direla ez dut nik dudarik. Alabaina, deriba-sareak eta horiek erabiltzen dituztenak satanizatzeak ez ditu gure arrantzaleen arazoak konponduko. Arraineskasiaren arazoia sakonagoa da eta guztiok gara neurri batean errudunak.

Deriba-sareak hitzetik hortzera darabilzkigu eta arraste-sareak? Hauek haiek bezain kaltegarri izan daitezke. Duela gutxi arte euskaldunak Te muara joaten ginen bakailaoa harra-patzera. Orain ez daukagu joaterik, bertan bakailaorik ez dagoelako. Arraste-teknikek munduko arrain-sardarik handienetakoa zena desegin egin dute. Zer esan ezeri ihes egitea eragotzen dioten sare-begi estuez? Eta arraindegian behatz baten tamainako lebak (legatz-kumeak) erosten dituenaz? Edota itsasora isurtzen ditugun milaka tona zaborraz?

Itsas ondareari buruzko eztabaida deriba-sareak baino haratago eramateko gai ez bagara, jai daukagu.□

## GIZARTEA

---

ELIXABETE GARMENDIA

Debereetan buru-belarri murgilduta gabiltza denok, nor bereetan. Dagoeneko berri usaina galduxe dute OHO eta batxilerrako liburuek, hatzen ukitu horiskak han-hemenka, jakintza renbidean egindako oinatzen arrasto. Unibertsitarioen kar-

petak gizenduz doaz folio txuriak boligrafoz zikindu ahala, azkenean beste norbaiten apunteen hamaikagarren berredizioaren bati heldu beharko bazaio ere, fosforitox markatuz lehenengo partzalean eror daitekeen gai horren eskema.

Ikasleekin paraleloan, gurasoak ere etxeko lanetan jo ta ke, problemei soluzioak bilatzen gehienbat, planteamendua beti ere berdintsua izaki: nola iritsi hilaren bukaerara udatik zetorren zuloari erantsi zaizkion gastu extrekin. Lan extrarik balego, hartuko lukeenean bat baino gehiago. Gaitzerdi buruhauste horiek lagunduko balute beste debere-mota batzuk ere egingen, adibidez beti sobera dauden kiloak jaitsi eta galdutako sasoia berreskuratzen.

Esparru horretako eginkizunetan ibiliko da zenbait: leher eginda gelditzeko footing-saioak, gimnasiako ariketa aspergarriak... Gehi inoiz amaitzen ez diren ingeleseko klaseak, eta kulturetarikin segitzearren, astean behin gutxienez zinera joatea, irakurtzen ez ahazteko adina liburu irenstea... Aukera, zabal eta anitza da, eta negua berriz luzeegia.

Eta honela, formal-formal gaude, eskolako argazkia egiteko pronto, orraztuegi batzuk, tximajario besteak, goibel samar denok, irrifarre apala gehienaz, etsita. Izan ere udateak, eguzki-errainu batean mamituta, bestelako bizimodu baten ilusioa piztu zigun. Orain, begi-ninietaraino txikitu den paisaje lausotua besterik ez da hura, lainaje grisaren mende.

Honetan, biziraupenerako sekretua, errainu iheskor haren muturrari heldzea izan daiteke. Edozer, egunerokoaren zamak zanpatu baino lehen. □

## ZIRKUITUA

Legazpiko Kilometroakin amaitu zaigu ikastolen aldeko bilkuren urtealdia. Kike Amonarrizek honen aurreko alean zioenez, nabarmenak dira festa hauetara biltzen den jendearen artean jazotako aldaketak, hots, gazteak taldean joaten dira eta ez hainbeste famili giroan, eta Herri Urratsen berriz, Iparraldean bertako jende heldua ugaritu egin da.

94ko zirkuitu erraldoiaren azken-aurreko zitan, hirugarren elementu bat ere azaldu da: goardia zibilak Beran. Irakurketa bat baino gehiago luke agerpen honek. Lehenengoa, bapatean, 70eko hamarkadako batailak gogora ekartzea —78ko sanferminak, Errenteriako lapurretak, Askatasunaren Ibilaldia, Tuterako antinuklearra...—; kasualitatez izan ala ez, gehienak Nafarroan gertatuak. Beraz, honek dakar bigarren irakurketa: Nafarroak ez ote duen zigor berezia jasan ohi ekintza kolektiboen aitzakian, eta nolana ere, ordena publikoak arazo larria izaten segitzen duela han, goardia zibilen esku dagoenean bati-pat. Azkenik, eta kontraste hutsez, festa-mota honen balioak jarri ditu agirian Beneméritaren erasoak, mekanika sinple bezain egiazkoak: goardia zibilei halako asaldura eragiten die-nean Nafarroa Oinezek, zerbaitegatik izango da.

Eszeptizismorako arrazoiak badaude festa-mota honen aurrean. Lehenengo eta behin, sare pribatuak kokatzen diren ikastetxe jakin batzuen aldekoak dira eta, ondorioz, batek baino gehiagok halako desfileetan parte hartzeko erreparoa izango ditu. Itxura hutsa ikusiko du beste zenbaitek, benetako euskalduntasunaren ordez. Gazteen alkohol-pasadei buruz ere keja bat baino gehiago entzuna naiz.

Horiek horrela, bilkura hauei aitortu behar zaie pare bat tanto. Bata, gure gizarteak bizi duen zatiketa gaudituz, oso era desberdinetako jendea elkarrekin lanean eta festan jartzea. Bestea, ospakizuna egiten den tokia plazaratzea. Honetan, aurten, Arabak eraman du txapela, non eta mugan, hantxe, Ebroren lurretan, euskal hazia ernetzen ari dela iragarritz, Euskal Herri berdekooi gurean okrea ere badela erakusteko. Honekin batera ezin ahaztu Ibilaldiaren hiritartzea, Bilbo bezalako plaza batekin ausartu eta garaile atera delarik gainera.

Senpere, Lapuebla, Bilbo, Bera eta Legazpia, bost paisaje beste hainbeste egoera eta izaera desberdin, muga administratibo, sozial eta kulturalen gainetik Herri bat egituratzeko bidean lokarri. Balantzea egitean, milioien ondoan, beste errentagarritasun-mota hau ere kontuan hartu beharko litzateke, ala?□

## GEHIEGI ETA GUTXIEGI

Kairon, Nazio Batuek bultzaturik, superpopulazioaren arazoaz izandako Konferentziatik, irudi bat gelditu zait begitartean: bi emakume-talderen arteko burruka, abortua bai-abortua ez. Hitz lauak nahikoa ez eta kantuka hasi omen ziren batzuk eta besteak, talde bakoitza bere estiloan, jakina. Gero, dialektika hori ere eskas gertatu eta azkenean, goardiek apartatu behar izan zituzten, eztabaida ukabilka eta iletik tiraka erabakitzero pasa zirenean.

Ez naiz harrotzen, egia, emakumezkoek halako espektakuloa emateaz —menderatuko ahal dugu noizbait gure oilaloka-joera—, baina burruka horrek, anekdotaz gain, zera adierazten du: emakumeok famili plangintza deritzan horretan zenbat daukagun jokoan.

Kairko proposamenetan behin eta berriz jotzen zen horretara, hau da, emakumezkoen garapena sustatu beharra, munduaren zati handi batek bizi duen superpopulazio-arazoiari aurre egiteko. Emakumeak jakin dezala zein bide dauden Naturak biziaren transmisioan eman dion papera zentzuz jokatzeke, eta beharrezko baliabideak izan ditzala, noski, horretarako.

Tamalez, eztabaida abortua bai-ez horretan trabatzen da beti, alde batetik eta bestetik, entzunaren entzunez denok buruz dakizkigun argudioak errepikatzen direla, asper-asper egin arte —hori gertatu bide zitzaion Kairon emakume-talde bi haiei—. Gauza bat da ziurra, Elizamaren eta beste erlijio bartzuen kupuletan, Gobernuetako siloietan, Justiziako erakunde gorenetan eta medikuntzaren arloko ikerketan emakumezkoak proportzioan baleude —opustarren kuota eta guzti—, eztabaida beste puntu batean legokeela, emakumeen, biziaren eta munduko orekaren mesedetan.

Paradoxaz, oreka hori bestaldera galduta gabiltza, aidanez, lurraldeotan, jaiotzetan idor. Ez dut uste gehiegi kezkatzekoa denik, emakumea etxetik kanpoko lanean sartzearen ondorio baita batez ere, eta motiboak merezi duenez, ondorioa ere onartu egin beharko.

Dena den, kanpai-hotsak jotzen hasiak direnez, ez legoke gaizki gogora ekartzea bideak asmatuta daudela, ez bakarrik ume gehiago izateko, baita egoera hobez hazi eta hezteko ere: amatasuna —edota aitatasuna— aise eraman ahal izateko lan-baldintza proposak, zerbitzu sozialak eta abar ezagun hori. Arazo demografikoa —benetan arazo baldin bada— ez baita konponduko borondate hutsez, Jainkoaren nahiz Aberriaren ize-nean arituta ere, baliabide egokiekin baizik. Eta badaezpada, ez dakiola inori bururatu, afera honetan emakumeek duten protagonismoa zepo bihurtzea.□

## LITERATURA

---

XABIER MENDIGUREN

### UDA SARGORIA

Honezkerodenok ahaztua duzue baina joan den udan bero sargoria izan dugu, beti ez bazen gehienetan, eguraldiak ere ohore egin nahiko bailion Pello Lizarralderen azken liburuari. Beharbada zuk ere, nik bezala, udako bazkalondo luze, nagi, geldo horietako tarterik ederrenetakoak eman dituzu liburu horrekin, eta hala bada bero sapa eta zikina madarikatu beharrean sublimatzeko balioko zizun, giro-mota horri ateratzen dion zukuaz gozatuz. Oraindik ere zertaz ari naizen ez dakitenez beldur beldur beldur, berriz, hona hemen, behingoz jakin dezazun: *Sargori* izeneko ipuin-bilduma bat kaleratu du Pello Lizarralde zumarragar nafartuak; orain arteko laugarren liburua du, oker ez banago, eta denetan saiatu da zerbait berria egiten, esperimentu interesgarriak eskaintzen, beti-beti asmatu ez badu ere. Nik uste oraingoan bai, asmatu duela. Ipuinez zerbait esatearren bota dezadan ez direla erabateko ipuin, alegia, ez dutela pasadizo biribil bat kontatzen; aitzitik, bizitza-puska itxuraz deslai eta hutsalak biltzen ditu, baina hortxe datza kontakizunon grazia, hots, zatitxo ezdeus horien bidez ira-

kurlearen gan sentipen berezi bat sortaraztean. Nik neuk neure haurtzaroko hainbat kontu eta gorabehera ekarri dut gogora honen bidez, garaiz eta lekuz ere ez baikara oso urrutikoak Lizarralde eta biok. Gehiago ere luza naiteke baina honenbestez nahikoa izango da. Hortaz, orain badakizu: literaturan kontatzeko eta girtzeko modu berrien bila ibili ohi direnetakoa baldin bazara, badakizu nora jo, hurrengo uda arte itxaron gabe. □

#### BIZKOR EDO ERGELENTZAKO LITERATURA

*Otto Pette* ere ezin utzi hemen aipatzeko. Baina han eta hemen jaso dituen loreen ostean ez daukat ia ezer berririk eransteke. Neure mirespen osoa berrestea, neure txapel-kentze bihozkorrena adieraztea besterik ez zait geratzen; eta ondoren, liburu hau aitzakiatzat hartuta, gogoeta sasisozilogiko txatxu batzuk egitea.

Azkar eta zakar hitz eginez, zirt-zart, bi zatitan bana deza-kegu publikoa: ergelak eta bizkorrak. Zuen lasaitasunerako, bigarren taldean sartzen zaituztet denak. Sailkapen gaizto eta arbitrario honetan oinarrituta (gehiengo-gutxiengo hitzak erabil ditzakezue nireak mingarriegi baldin badira), lau motatako artea egin dezakegu:

1. Bizkorrentzat, ergelak aspertuz.
2. Bizkorrentzat, ergelak aspertu gabe.
3. Ergelentzat, bizkorrak nazkatu gabe.
4. Ergelentzat, bizkorrak nazkatuz.

(Badago 5. mota bat ere, bai bizkorrak bai ergelak aspertu eta nazkatzen dituena, baina inork ez du nahita egiten kaka-zahar bat, horrelakoak ugari baldin badira ere)

Literaturaren historian aintza eta tokirik handiena duten obrak 2. motakoak dira, garai batean 3.ekoak ere baziren eta azken mendean 1. motakoak ugalduta. 4.ekoak *best seller*-ak dira. Zineman berriz, gaur egun 3 edo 4 motakoak dira

Amerikatik datozkigun filme guztiak, 2.ekoak salbuespen huts eta 1. motakoak europar txoro batzuen modaz kanpoko setakeria.

Honetan guztian ez dago baloraziorik, lau motak baitira duin eta zailak, jakin egin behar aldez aurretik norentzat ari ga ren. Lertxundik orain hamar bat urte arrakastaz egin zituenak ez dakit 2 edo 3. tipoan sailkatu behar diren; beharbada, 3. motan ari zela-eta, izaturik ihes egin zuen estilo horretatik, 1. mota puru-purura (*Carla, Kapitain Fracasa*). Oraingoan, berriz, nik uste *Otto Pette*, zorionez, 2. tipoan sailka dezakegula. Zorionez diot, gure egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta. Badakit ez dugula gure publikoaren kontu horrekin obsesio-natu behar, idazleak normaltasun osoz eta ahalik asmo goi-tiarrenaz idatzi behar duela, baina ikuspegi orokor bat izatera beharturik gaudenok ezin ahantz dezakegu zer-nolakoa den gure irakurle-jendea. Tipoak tipo, mila zorion Lertxundiri. □

#### NON DAGO PEDROTXO?

Zuetako askok ezagutuko duzue *Non dago Wally?* deritzan liburua, non mila lagunen artean pertsonaia jakin bat aurkitu behar den marrazki handi, ederretan. Euskaraz ere aspaldi argitaratu zuten. Orain, aldiz, joko berri bat proposatu nahi dizuet: «Non dago Pedrotxo?». Eta nor da Pedrotxo?, galdetuko didazue. *Pedrotxo* Martin Ugalderen liburu bat da, bere azken eleberria, iazko Txomin Agirre saria irabazi zuena. Sari horretanxe beste batzuetan egin izan den legez, egileak ohizko argitale-txe batekin plazaratu nahi izan zuen liburua; egilea eta argitale-txea konforme, Euskaltzaindia antolatzaileak ere eragozpenik ez, baina beste antolatzaileak, BBKk, ezetz, beraiek argitaratu nahi zutela. Eskubide osoa dute —dirua eurek jartzen baitute— eta ez zaie arrazoirik falta, Martin Ugalde luxuzko idazlea baita edonoren katalogorako. Baina luxua denez gero, halaxe tratatu beharko lukete. Zer gertatu da ordea? Atera bai, atera omen zen liburua, baina hortik aurrerakoak Jainkoak besterik ez dakizki. Ni ibili naiz galdezka Gipuzkoako hainbat liburudendan: liburua ez edukitzeaz gain, ez zuten haren aditzerik ere. Beharbada Bizkaian hobexeagoa da egoera; nolana ere, ez da



horrelakoak gertatzen diren lehenengo aldia, eta beldur naiz ez dela azkena ere izango. Zoazte zuek ere Pedro txoren bila.□

#### GU BAINO ERRUKARRIAGOAK

Uda honetako beste albiste pozgarri bat, *Hegats* aldizkariaren alea izan da, osorik poesiari emana eta eskainia. Hango eta hemengo poesiari. Zehatzago esanda, hiru atal ditu: lehena, iaz I. Poesia Egunean parte hartu zuten poeten erakusgarri bat, bertako olerkari —hitz hau barkatzen badidate— gehientsuenen erakusketa zabala osatzen duena. Eta gero, berriz, bi antologia, geografiaz aski hurbil izan arren ia batere ezagutzen ez ditugun bi kulturatakoak. Bata, okzitanierazko poesiarena, Itxaro Bordaren itzulpenaz, eta bestea Asturiasko bablezko poesiarena, Gerardo Markuletaren aukeraketa eta itzulpenarekin. Bai Okzitania bai Asturiaskoak, jatorrizko hizkuntzan eta euskaraz datozkigu, irakurketa mamitsuagoa egin dezagun. Ale bitxi eta perla ederrak ez dira falta batean zein bestean, baina niri beste sentimendu bat nagusitu zait, literatur lilerazkoaz gain, poemok irakurtzean: azken hatsetan dauden kultura biren agerpen hilzorikook ez ote diren gure atarmentuaren iragarpen. Ez ahal da hala izanen!□

## IKUSKIZUNAK

BEGOÑA DEL TESO

#### VENEZIA, IKUSKIZUN HANDIA, BEGIRADA ZORROTZA

Veneziako 51. Mostra D'Arte Cinematografica eskandalu-bide bilakatu zen irailaren hamar lehendabiziko egunetan. Estatu Batuek bultzatu nahi zuen ikuskizun erraldoiari salduta zegoela bota zioten aurpegira garbizaleek. Biharko Mukizuganberroen indarkeriaz beteriko zeluloide pusketak errazegi

ontzat ematea batere gisakoa ez zela zioten ozenki, joandako garaian neurri eta tamainetan ainguraturik dauden horiek.

Orain arte existitu ere existitzen ez zen Europa berri/zahar horretatik etorritako irudizko malko traketsak, gaizkitxo osaturik, trakets editaturik ez zituzten onetsi harroputz zinemaz dena omen, bide dakiten sasi-jakintsuek. Ez zieten aukera bakar bat ere eskaini. Egia Mazedoniatik iritsi zitzaigun «Before the rain» akatsez betea zela baina zerion minak, zerion irudizko grinak pantaila estaltzen zuen.

Denek eskaintzen zioten erakusketa veneziarrari Mostrak eskaintzen zuenaren kontrakoa eta inor ez zen kanal misteriotsuetako hiriak oferendatzen zituen hainbat eta hainbat erresuma zeluloidezkotan sartzen ausartu. Eta Venezian nor zirtzilagorik begiak eduki bai baina ikusi nahi ez duena baino?

Bila, ikerketan, peskizetan jardun zuenak, ordea, dozenaka altxor aurkitu zuen gehiegi nekatu barik.

Mundu honetako edozein izkinetan bizi denak, edonongo ekoiztetxerako lan egiten duenak Venezian ikus dezatela nahi du. Eta edadetua izan arren, amoranteak liluratzen dituen hiriak ederki ezagutzen du bere xarmaren ahalmena. Shakespearek amestutako merkatarien trebezia du Zinema-erakustaldi honek. Otelo bezain jeloskorra da baina Desdemonaren leuntasuna darabil maltzur.

Beste Zinemaldi guztiek desiratu izan duten dena lapurtu izan die Mostrak. Donostiakoak, kasu, Hector Oliveraren «Una sombra ya pronto serás» zuen begiko sariketarako. Zergatik? Ba, Olivera Argentinako aztia delako eta gidoian idazle fina den Oswaldo Soriano zegoelako. Venezia, tamalez, desio bera izan zuen eta azerikeriaz lapurtu.

«Peligro inminente» Harrison Fordek antzesturiko azken ikuskizun handia zen. Donostiak zuen erreserbatutik. Aspalditik gordeta, izan ere. Azken momentuan, Indiana Jonesi pasa zion gonbitea andre veneziarrak eta jakina, Harrison haruntz joan zitzaigun pelikula besapean zeramalarik. Egia zuzendari jauna, Philipp Noyce, hots, Donostiratu zela baina jada berandu xamar izan zen.

Bigas Lunak zilarra irabazi zuen 1992an Lidoko hondartzan «Jamón jamón» lanarekin. Donostiatik, berriz, esku hutsik bueltatu zen 1993an «Huevos de oro» aurkeztu eta gero. Horre-gegatik, errefus egin zion Kontxari eta «La Teta y la luna» opatu zion Adriatikoko hiriburuari. Erdipurdikoa du bukaera baina hain da disdiragarria aurretik dagoena... pena gurean agertu ez izatea.

Ez pentsa, arren, mozorroturik dabilen andere irudizko honi dena ondo ateratzen zaionik. Bi aldiz amore eman behar izan du aurten. Oliver Stoneren fantasia krudela den «Natural Born Killers» berea zela uste zuen gaixoak. Eta halaxe zen, baina derrepentean, boteprontoan, Montrealeko zine-festa handiak estraineko aldiz eskaini zuen gauerdi berezi eta bitxi baten barruan.

Beste kontu bitxia «Once were Warriors»i dagokiona izan zen. Zeelanda Berrian sortzen ari den zinema eder eta suak hartua denaren ispilu garrantz hori denek mirestu zuten Kosta Urdineko merkatuan. Lehian, norgehiagoka ibili ziren denak. Montrealek bereganatu zuen eta sariz jantzi, apaindu, hornitu zuen esker onez. Veneziak erakutsi zuen baina ordurako berandu zen. Donostiak Zabaltegi sailean ibili zuen baina beranduegi, inkluso.

51. Mostra eder eta dotorea zinemaldien arteko gerra zikinaren azkenaurreko guda-zelaia izan da baina halere, begiak irekita zituenak irudiek osaturiko altxorrek ekarri ditu patrikan eta bihotzean. Gianni Amelioren «Lamerica»k begirada zorrotz, nekatu eta mindua botatzen zion hurbileko herrialde txiroekin harroputz jokatzan ari den Italia andrakilari, Ameriketara joan zeneko tristura eta probezia ahazturik omen dituen *señorita* horri. Salaketa bera, beharbada ironia handiagoz uzten zuen agerian «Il Toro»k .

Jiri Menzel maisu txekiarrak, aldiz, desagerturik den Sobietar Batasunarekin kontuak zuritu zituen «The Life of Private Chonkin» izeneko lan zahar baina indartsuaz.

Izan bazen ikustekorik Mostran. Datorren zinemaren berri izan genuen. Veneziakoa ez da Amerikako zine askearen eska-

paratea, Berlin ala Cannes diren moduan. Veneziak Hollywood-eko erraldoiak laztantzen ditu salamari baina izan baziren James Gray bezalako hasi berri etorkizun handikoak. Bere «Little Odessak» bazuen Dostoievskiren ukitu gazia eta, aldi berean, Tarantinoren indar pikaroa. Lana ez zen biribila baina datorren mendean, seguruenik, James gailurrean aurkituko dugu.

Izan bazen ahaztekorik ere Mostran. Emakumeak ez ziren baterefin ibili, esaterako eta Latinamerikatik zetozen hainbat zine pusketak betiko ildo jada zimelduari heltzen zioten triste.

51. Mostra D'Arte Cinematografica. Orain arte izana ez zuen Europa zahar/berriaren ispilu atsekabetua. Oraindik maisu, jaun eta jabe den zinema Hollywoodekoaren zserbitzari leiala.

Datorren mendeko maisuen guda-zelaia. Amets eta lokamutserako lur, ur eta hondartza. Horixe Mostra, horixe Venezia. □

#### DONOSTIAKOA, ZIRKUITUAREN AZKENAURREKOA

Badaude zinemaldietako esparruan soil-soilik bizi daitezkeen filmeak, handik kanpo seko hilko liratekeenak. Zine-festek, zine-azokek, zine-erakusketek eman diezaieketen bultzada barik ito, desagertu, deuseztatu egingo ziren arras. Ang Leeren «El banquete de bodas» ez litzateke deus izango Berlina joan ez balitz. Han, denon harridurako, Urrezko Hartza lortu zuen. Hollywood enteratu egin zen. Primeran jabetu, ederki konturatu eta han hasi zen Oskarretako atariraino eramango zuen bide leun eta atsegina.

Kontu bera Canneseko Urrezko Kamara eskuratu zuen «El olor de la papaya verde»rekin. Hiriburuetakoa aretoetara ez litzateke sekula iritsiko Kosta Urdinak eman zion musuagatik ez balitz.

Baina saririk gabe inklusio, Zinemaldiek bizitza luzatzen diete hainbat eta hainbat zeluloidezko lanei. Interesgarria, kuriozoso oso filme baten garapenaren lekuko izatea. Har dezagun kasu, «Red firecracker, green firecracker» txinatarra. Ber-

lingo merkatuan antzeman zuten Donostiako berriemaileek. Cannesekoan beste askorekin ibili zen amodiozko jokoetan. Azkenik, Sail Nagusi donostiarrean hartu zuen parte ohore osoz.

Aipa dezagun beste izenburu miragarririk. «The Adventures of Priscilla, Queen of the Desert»ek Australiako jaialdian erregin plantak egin zituen. Gero, Cannesek gonbidatu zuen. Hain zen pinpirin, xanfarin, goiz oilasko ezen denak liluratu baitzituen. Ekin zioten munduko zinezale/erosle/tratalari guztiek Priscilla eskuratzeari. Eta horrela hasi zen Priscilla bere bizitzako urterik gozoena bizitzen. Edimburgora joan zen. Donostiara etorri gauerdia eder batean. Sitgesen maitakeriaz jardun genuen berarekin...

Zinemaldiak. Dozenaka filmeen salbatzaileak. Donostiakoak Britainia Haundiko «Shallow Grave» beldurgarri horri eman zion bultzada. Eta «Natural Born Killers»ek Montrealean hasi eta Venezian jarraitu izan zuen lasterketa odoltsua luzatu zuen pittin batez areto komertzialetara jauzia egin aurretik.

Donostiako zinema-festa azkenurrekoetakoa da zinemaldien plangintzan. Vancouver da hurrengoa. Eta gero Chicago. Segidan Valladoliden. Varsovian ere bada. Valencian eta Birminghamen. Badakizue zer? Filmeak ez daude sobran. Festivalak bai, ordea. Horrexegatik faltan aurkitzen ditugu izenburu berriak ohizko festa jada edadetuetan. □

#### TELE MERKEALDIETAKOAK; EZ DEN ETA EZ DAGOEN ANTZERKIA

Bukatu den uda horretan festaz festa ibili gara eta kalerik kale egin dugu estropezu teatrero makina batekin. Lan nimitan zeuden sartuta. Edozein herritako edonongo izkinetan ahalik eta azkarren, ahalik eta errazen, ahalik eta merkeen eraiki, eskaini eta desegin daitezkeen lan xume, arin, bizkorretan murgilduta. Sos batzuen bila, txalo batzuen grinaz.

Jaietan aurkitu ez genituenak oporretara ziren joanak. Azken finean, lanik ez zegoen Euskal Herrian beraz... goazen penak zokoratzera zenbait teatro-feritan.

Oporretara joateko animorik edota dirurik ez zuten horiek Euskal Telebistak egingo dituen anitz telesail/folletoi/kulebroitan esku hartzeko hamaikatxo ahaleginetan galdu zuten esperantza.

Ez zirudien ona gure antzerkiaren sasoiak uda partean. Udazkenean, berriz, ba omen dator Eusko Jaurlaritzak sortu nahi zuen herriz herriko zirkuitu berria. Neguan, atzera, Azpeitiko Topaketak izango ditugu helburu. Bizpahiru talde lagunduko ditu diruz eta baliabidez, ekoizle bilakatuko zaigu Urolako hiria. Bitartean, eutsi kaleari, heldu telebistak eskainitako aktore izateko hainbat aukera txikiri.

Telebista gutxitan piztu dugu udan. Jazzarekin ari ginen dantzan Donostian, Getxon, Baionan eta Gasteizen. Handia ez da izan galera. Telesail ia guztiak errepikatu dituzte lotsa barik, joan zitzaigun maite genuen ezkontzagina, Isabel Gemio eta zorretan dabiltzan kate pribatuek kale gorrian utzi zituzten izarrik handienak ere.

Badator, bagaude udazkenean. Ongi etorri, urtaro malenkoniatsua. Zure eraginaz litekeena da antzokiak bete ahal izatea eta telebistan zeozer aurkitzea. Guk, behintzat, ez dugu amorerik emango. Ez zinean. Ez telean. Ez antzerkian ere. □

## SOZIOLINGUISTIKA

---

KIKE AMONARRIZ

TXEMA LARREA

Soziolinguistika-gaietan eta batipat euskararen historia sozialaz interesaturik dagoen edonork irakurri beharreko liburu bat aipatu nahi nuke: José María Larrea ren «Euskaldungoa erroizturik», hain zuzen ere.

Puzzle baten antzera egituratua, euskaldungoaren erroizpena ikuspuntu desberdinetatik aztertzen du Larreak.

Bere azterketa-ildoan nabariak dira Calvet, Aracil eta Txepetxen teoriaren eragina, haietan oinarritzen dituelarik sarri bere analisiak.

Historia horren zantzuak euskaldunen adierazpenetan eta mintzoan bilatu nahi izan ditu egileak. Lan horren frutu dira liburuan zehar eskaintzen dizkigun aitortza eta lekukotzak «mintzorik gabeko gizatalde baten historiaren egiteko arriskua» ederki asko gaindituz.

Hipotesi berri bezain ausart eta interesgarriak zabaltzen dizkigu euskaldungoaren eta euskararen bazterketa-prozesuaren inguruan. Euskara bazter-hizkuntza bilakatu bitartean jarraitu duen bidean «euskal letratuek» (apaizak gehienak gu reliteraturaren historiak erakusten duen bezala) izan duten eragin kaltegarriarena esate baterako: «euskal letratua, euskaldun izateagatik bere burua gutiesten eta gaitzesten duen lehen euskalduna bezala agertzen da (...)».

Egilearen iritziz, euskaraz idatzi duen oro ez da euskaltzale izan, orain arteko euskararen eta euskal literaturaren historiak baieztatu ohi duten moduan. Are gehiago, badirudi euskara idatzia landu dutenak (hegoaldean bereziki) izan direla egilearen ustez euskararen bazterketaren eragilerik nagusienetakoak: «Euskararen kulturarako bidea zatekeena, letratze prozesua, bazterkultura eta, finean, deskulturatze bidea izan zen», «euskara zokoratzen zutenak (...) elebidun izaten baitziren».

Aracilek «interposició» bezala izendatzen duen kontzeptua da Larrearen beste hausnarketa-iturri oparoenetakoa, erdararen artekamendu itogarriaren eragin anitz eta sakonak aztertzen dituelarik.

Diglosia, naziotasuna, euskaldunen gutxiespena, hizkuntzaren akabera,... dira beste batzuen artean liburuan jorratzen diren gaiak.

Barru-barrutik idatzitako liburua duzu berau: maitasun, pasio eta minez atonduriko idazkeraz.

Estilo oldartsuaren eraginez edo, atal desberdinen arteko lotura-falta somatzen da eta inoiz baita baieztapen batzuen arteko kontraesana ere (estatuek euskararen atzentzean izan

duten eraginaren garrantziaren inguruan ikuspegi desberdinak azaltzen dira liburuan zehar).

Baieztapen eztabaidagarriak (liburua bera da eztabaidarako gai) ez dira falta: «Arrazoia dute, beraz, euskararen aldeko zaletu amorratuengan joera isolazionista eta herrikoia nabaritzen eta salatzen dutenek» edo «Gipuzkoan, «intelektualen» artean, gertatzen den erdaltzaletasun patologikotik hasita».....

Hausnarketarako, informaziorako, gozamenerako eta eztabaidarako liburua.□

#### JUGOSLAVIA: EREDU GALDUA

Ez dira urte asko, hizkuntz aniztasuna errespetatzen zuten Europako estatuen artean Jugoslaviarena eredu modura azpimarratzen genuela Suitza, Belgika eta Suomirekin batera.

1985eko uztaillean Getxon burutu zen «Hizkuntza Minorizatuena Soziologia Biltzarrean» M. García Ripoll eta J. Bañeresek Jugoslaviari buruzko hainbat informazio azaldu zuten (Kosovo izan zitekeen Europa ekialdeko Ulster edo Euskadi!)

1988ko azaroan bertan (sei urte besterik ez), hainbat erakunderen artean Donostian antolaturiko «herri-administrazioan hizkuntz plangintzari buruzko biltzarrean» Serbiako Vojvodinan kokatuta dagoen Novi Sad hiriko alkatesa, S. Bajiko anderea, izan genuen gure artean. Elkartasuna eta nazioen eta gizabanakoen arteko erabateko berdintasuna aipatu zituen bere txostenean.

Sarraskia ustekabeen lehertu da (nork iragar zezakeen horrelakorik duela bost urte?).

Jasna Samicek Marko Versovici, poetak poetari, «Egunkarian» eginiko elkarrizketan ordea hizkuntza bakar apurtuare n elkartasun-nahia isladatzen da Versovicen hitzetan: «mintzaira bosniarra ez daiteke indarrez zatitu. Altxor kolektiboa da».

Jugoslaviaren ereduan bazegoen itxaropenik. Bagenekien (ikusitza genuen) ez zela eredu distiratsua, baina amesten zuen etorkizunak, helburu zuen eraikuntzak, erakartzen gintuen.

Sarajevon gurea den zerbaite egon da eta dago jokoan.□



## ITZULPENAK LIBURUGINTZAN

Miloi-erdirentzako telebista nola egin litekeen eztabaidatu da udan. Izan ere, gaur egun euskarazko telebista ikusten (edo euskarazko iratiak entzuten) ditugun euskaldunak kopuru horren inguruan ibiliko gara. Leialago irratiekin telebistarekin baino.

Ikusentzunezkoetatik idatzizkoetara jauzi egiterakoan berriz, kopuruak erabat murrizten dira, eta irakaskuntzarekin (haur nahiz helduena) zerikusia duten erosketak alde batera utzita, minimora murrizten dira irakurleak; erosle gutxi eta erosketagama murrizta.

Irakurle helduak oso-oso mantso ari dira ugaltzen (oso inkorporazio gutxi iritsi da azken urteotan, ez egunkarira, ez aldizkarietara, ez liburuetara), eta gazteen artean ez dirudi informazio egokirik dagoenik ekoizpen berriei dagokienez.

Itzulpenen kasuan arazo guzti hauek biderkatu egiten dira, euskara idatziaren inguruan dauden topikoak azalaraziz: zailtasuna, hizkera gogorra, astuntasuna, freskotasun-falta...

Gaur egun ordea, itzulpen-lanek, kantitatez eta kalitatez, gu reproduzio idatziaren multzorik garrantzitsuenetakoa osatzen dute, euskaraz inoiz izan ez dugun irakurketarako aukera ahalbideratuz: literatura, zientzia, filosofia...

Udan irakurri berria dudan Matías Múgicak itzuliriko L.F. Célinereren «Gauaren muturrerainoko bidaiak»k eragin dizkit gogoeta hauek, izan ere, horrelako itzulpen-lan bikainak izan eta ez baita normala duten zabalkunde eskasa izatea.

Euskal produkzio idatziaren eta batipat itzulpenen zabalkunde hobetzekotan iruditzen zait ezinbestekoa dela, oraindik ere, sozialki oso zabaldurik eta erroturik dauden topikoen aurkako eta produkzio idatziaren gaur egungo egoera, kalitate eta irakurgarritasunari buruzko argibideak eskaintzea eta irakurle potentzialak (gazteak batipat) irakurketa hauetara motibatzea (harrigarria da euskalgintzatik bizi den zenbat jende ez duen euskarazko libururik irakurtzen).□

## BOIKOT MEHATXUAK

ABC egunkari espainiarraren pentsakera atzerakoi eta zentralista ezaguna da. Ezaguna da baita ere Amando de Miguel soziologoak katalanerarekiko duen herra eta gorrotoa.

Joan den udan ABCk zabaldu dituen eztabaida eta sesioen artean ezkutuan pasa bada ere, gure gaiarekin lotura zuzena duenez, uste dut azpimarratzekoa dela abuztuaren 29ko alearen orri nagusian Amando de Miguelek botatzen zuen mehatxu hau: «Si no rebajan un poco sus pretensiones de erradicar el castellano del Principado, el resto de los españoles acabarán por rechazar el agua mineral proveniente de Cataluña. Hasta podría haber el rechazo de un producto de más difícil sustitución como es el cava».

Hau irakurri eta egun batzuetara Astuneko bidean kataluniar produktuen aurkako pintada bat irakurri nuen errepi-dean.

Insaluskoek ere «-ko ura» erantsi beharrean, nahiago izan dute «Agua de» kendu.

Su-emaile gehiegi omen dabil libre penintsulan zehar. Abisuka ari dira eta suterren bat eragiteko prest daude. «Su-moztaile»ak eraiki behar.□

## «A» EREDUA

«A» ereduaren inguruan ekimen, eztabaida eta deklarazio ugari sortu da iragan berri den uda honetan.

Aztertzaile eta profesionalen artean, aho batez onartzen da, gaur egun dagoen bezala, A eredu honetan eskolatzen diren jatorri erdalduneko haurrak ez direla elebiduntzera iristen eta ez dutela Oinarrizko Heziketa Orokorra bukatzean legez eskatzen den euskara-maila lortzen.

Zonalde erdaldunetako D eta batipat B ereduan dabiltzan haurren artean arazoak daude oraindik ikasketa-hizkuntza duten euskaran maila egokia lor dezaten. Maila hori eskura-

tzeko eta are gehiago erabilarazteko, familiako eta eskolorduz barruko ahaleginak, eskolorduz kanpoko iharduerekin errefortzatu behar izaten dira, bestela nekez lortzen delako euskara haurraren ohizko hizkuntza bihurtzerik.

A ereduiko haurren artean berriz, euskararen ezagupen ego-kia lortzen duten kasuak salbuespentzat jo daitezke. Kontuan izan behar da A ereduari ikasten ari diren haurren artean bi multzo sozial muturreko aurki genitzakeela (batipat zonalde euskaldunagoetan eta OHOn):

- ikastetxe publikoetan ikasten duten eta oso maila sozial bajuko familietan bizi diren ikasleak («lunpem» berri bat osatzeko arriskutan daudenak eta sarri zonalde industrialetako periferietan kokatuak)
- eta ikastetxe pribatuetan ikasten duten maila sozial altuko familietako seme-alabak: hiriburuetakoak nagusiki eta etorkizuneko «elite erdalduna» osatzera deituak.

Azken multzo honen defentsa sutsua egin du hainbat politikari ez abertzalek, A ereduaren aurkako jarrerak faszistatzat eta arrazistatzat jotz. UAK berak UNESCOren babes eskatu du A ereduaren aurka antolatzen ari diren kanpainak direla eta (euskal ereduaren aldekoak ere multzo horretan sartu ditu, behar bada ez baitu jakingo Nafar Gobernuak ere antolatzen dituela horrelakoak).

Egoera honetan, pentsatzekoa da sektore hauek kontrako joera erradikala agertuko dutela hainbat gune euskaltzale-tatik eskatu den A ereduaren desagertzearen aurka, gobernuaren inguruetatik iradoki den A ereduaren errefortzuaurrean.

Euskalduntze-prozesuaren etorkizuna zalantzan jar dezakeen arazo honi aurre egin ahal izateko eta gaur egun legeak eskatzen duena (OHO amaitzean euskara ondo menderatzea) lortu ahal izateko, Hezkuntza Sailaren aldetik erabaki ausartak eta sakonak beharko dira. Baina horretarako Hezkuntza Sailak eskuz aldatu beharko luke.□



# IBURUAK

---

IDAZKARITZA  
JASO DITUGU

# JASO DITUGU

- ALBERDI, Andres: **Agustin P. Iturriaga**. 2. ed. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 23,5 × 22 cm, 16 or.
- ARANA, Aitor: **Jainko Txikia**. Elkar. Donostia. 1994. 20 × 12,5 cm, 114 or.
- ARANA, J. Nestor; GUTIERREZ, F.J.: **Gazte-txartela. Gida / Guía carnet joven**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 21 × 10,5 cm, 198 or.
- ARANBURU, Pello Joxe; BIDEGAIN, Marian; IDIAKEZ, Antton; REZOLA, Iñaki: **"Klaudio Otaegi (1836-1890)"**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 24 × 17 cm, 256 or.
- ARANZADI-MIKOLOGI SAILA: **Euskal-Herriko Perretxikoak / Setas del País Vasco**. Serie 19. Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea. Donostia. 1993. 30 × 21 cm, 138 or.
- ARANZADI-MIKOLOGI SAILA: **Euskal-Herriko Perretxikoak / Setas del País Vasco**. Series 1-2. Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea. Donostia. 1993. 30 × 21 cm, 108 or.
- ARRUABARRENA GOIKOETXEA, Arkaitz: **"Migrazio-Mugimenduak Olaberrian"**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 24 × 17 cm, 96 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Bizkaiko euskera bizkaiera**. Bilboko Udala. Bilbo. 1994. 24 × 17 cm, 328 or.

- ASKOREN ARTEAN: **Cooperación Pública Vasca. Ayudas al Tercer Mundo. Jornadas Municipales sobre la cooperación Norte-Sur. La dimensión local de la solidaridad.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 24 □ 17 cm, 228 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Cooperación Pública Vasca. Ayudas al Tercer Mundo. Memoria 1988-1994.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 24 □ 17 cm, 252 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Diez Años de Detección Precoz Neonatal de Enfermedades Metabólicas.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 21 □ 15 cm, 150 or.
- ASKOREN ARTEAN: **EHAeko Unibertsitatekoen kanpoko Irakas-kuntzako Irakasleen Kidegoei Buruzko Legea / Ley de Cuerpos Docentes de la Enseñanza no Universitaria de la CAPV.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 17 □ 12 cm, 146 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Ekonomiaz-22. Innovación tecnológica y cambio económico.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 24 □ 17 cm, 408 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Ekonomiaz-23. Innovación y política tecnológica.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 24 □ 17 cm, 386 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Euskal Eskola Publikoari buruzko Legea / Ley de la Escuela Pública Vasca.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 17 □ 12 cm, 170 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Euskal girotze barnetegiak.** ORUE, Santiago; RUIZ, Jose Javier. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 21 □ 14,5 cm, 385 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria 2-1990. Arauzko erabakiak / Boletín Oficial del País Vasco 2-1990. Disposiciones normativas.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 27 □ 19,5 cm, 444 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Euskal Herriko Errepedeen Plan Orokorra 1993/2004. 1992 abendua / Plan General de Carreteras del País Vasco 1993/2004. Diciembre 1992.** Itzulka. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 30 □ 24 cm, 130 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Euskal Margolariak / Pintores Vascos. Vol. I: Academicismo. Realismo. Modernismo.** Bilbao Bizkaia Kutxa; Gipukoa Donostia Kutxa; Vital Kutxa. Bilbo. 1993. 29,5 □ 22,5 cm, 137 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Euskal Margolariak / Pintores Vascos. Vol. II: Impresionismo; Simbolismo; Postimpresionismo.** Bilbao Bizkaia Kutxa; Gipukoa Donostia Kutxa; Vital Kutxa. Bilbo. 1993. 29,5 □ 22,5 cm, 124 or.

- ASKOREN ARTEAN: **Euskal-Herriko Perretxikoak / Setas del País Vasco. 1.** Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea. Donostia. 1993. 31 □ 22 cm, 18 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Euskal-Herriko Perretxikoak / Setas del País Vasco. 2.** Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea. Donostia. 1993. 31 □ 22 cm, 22 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Euskal-Herriko Perretxikoak / Setas del País Vasco. 3.** Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea. Donostia. 1993. 31 □ 22 cm, 23 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Informática Judicial y Protección de Datos personales.** E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 24 □ 17 cm, 283 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Kondaira-Lurraldeei Buruzko-legea. Uztailaren 16ko 5/1993 legeaz aldatutakoa / Ley de Territorios Históricos. Modificada por la Ley 5/1993, de 16 de julio.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 17 □ 12 cm, 97 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Kontsumorako material Curricularrak. Haur Hezkuntza / Materiales Curriculares de consumo. Educación Infantil.** PARRA RUIZ, Rosa Nieves. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 30 □ 21 cm, 347 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Kontsumorako material Curricularrak. Lehen Hezkuntza 1. zikloa / Materiales Curriculares de consumo. Educación Primaria Ciclo 1º.** PARRA RUIZ, Rosa Nieves. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 30 □ 21 cm, 347 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Kontsumorako material Curricularrak. Lehen hezkuntza 2. zikloa / Materiales Curriculares de consumo. Educación Primaria Ciclo 2º.** PARRA RUIZ, Rosa Nieves. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 30 □ 21 cm, 451 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Kontsumorako material Curricularrak. Sarrera / Materiales Curriculares de consumo. Introducción.** PARRA RUIZ, Rosa Nieves. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 30 □ 21 cm, 137 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Menores en situación de riesgo. Mancomunidad de Servicios Sociales de Busturialdea.** E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 24 □ 17 cm, 51 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Ofiziozko Txandaren eta Doako Zuzentza-ren Araubidea / Normativa del Turno de Oficio y Justicia Gratuita.** E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 24 □ 17 cm, 185 or.

- ASKOREN ARTEAN: **Perspectivas de Desarrollo Territorial: La Economía de las Comarcas del País Vasco.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 24 □ 17 cm, 292 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Planificación de la Enseñanza Superior. Escenarios para el sistema público de la C.A.P.V.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 24 □ 17 cm, 160 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Premio Gonzalo Nardiz de Etología.** E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 24 □ 17 cm, 175 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Propuestas para una mejor gestión económica de la sanidad.** E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 24 □ 17 cm, 123 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Ribera. 1591-1652.** Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea. Donostia. 1993. 30 □ 22,5 cm, 261 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Salud Laboral: Protocolos Sanitarios Específicos de Vigilancia Médica de los Trabajadores (IV).** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 21 □ 15 cm, 188 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Turismo antolatzezko Legea / Ley de Ordenación del Turismo.** E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 17 □ 12 cm, 143 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Urruzuno. Literatur lehiaketa 1994.** E.J. Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 21 □ 15 cm, 199 or.
- BORDA, Itxaro: **Bakean ützi arte.** Susa. Lasarte. 1994. 20 □ 12,5 cm, 188 or.
- BYARS, Betsy: **Burbuila mila kiloko arraina.** ZUBIZARRETA, Patxi. SANZ, Araceli. Elkar. Donostia. 1994. 18,5 □ 13 cm, 195 or.
- CANO, Harkaitz: **Kea behelainoepen bezala.** Susa. Lasarte. 1994. 20 □ 12 cm, 84 or.
- CONAN DOYLE, Arthur: **Sherlock Holmes eta itsas trataua.** MENDIGUREN, Iñaki. PAGET, Sidney. Elkar. Donostia. 1994. 20 □ 12,5 cm, 80 or.
- DAHL, Roald: **Henry Sugarren ixtorio miresgarria.** BERRIZBEITIA, Luis. PARDO, Julio. Elkar. Donostia. 1994. 20 □ 12,5 cm, 110 or.
- DIEZ DE SALAZAR FERNANDEZ, Luis Miguel: **Colección diplomática del Concejo de Segura (Guipúzcoa) (1290-1500). Tomo II (1401-1450).** Eusko Ikaskuntza. Donostia. 1993. 23 □ 16 cm, 410 or.
- E.J. Euskararen Aholku Batzordea: **Udaletako Hizkuntza Politikarako Proposamena.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1991. 22,5 □ 16,5 cm, 20 or.



- E.J. Herrizaingo Saileko Hauteskunde-Zerbitzua: **Biltzar Nagusiak 1991 maiatzak 26 / Juntas Generales 26 mayo 1991**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 21 □ 30 cm, 364 or.
- E.J. Herrizaingo Saileko Hauteskunde-Zerbitzua: **Europar Legebiltzarra 1987 ekainak 10 / Parlamento europeo 10 junio 1987**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 21 □ 30 cm, 312 or.
- E.J. Herrizaingo Saileko Hauteskunde-Zerbitzua: **Europar Legebiltzarra 1989 ekainak 15 / Parlamento europeo 15 junio 1989**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 21 □ 30 cm, 312 or.
- E.J. Herrizaingo Saileko Hauteskunde-Zerbitzua: **Eusko Legebiltzarra 1990 urriak 28 / Parlamento Vasco 28 octubre 1990**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 21 □ 30 cm, 340 or.
- E.J. Herrizaingo Saileko Hauteskunde-Zerbitzua: **Hauteskunde Nagusiak 1989 urriak 29 / Congreso de Diputados 29 octubre 1989**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 21 □ 30 cm, 332 or.
- E.J. Herrizaingo Saileko Hauteskunde-Zerbitzua: **Udal hauteskundeak 1991 maiatzak 26 / Municipales 26 mayo 1991**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 21 □ 30 cm, 372 or.
- E.J. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila: **Unibertsitate arloan transferentziak. Euskal Autonomia Elkartearen izandako esperientziaren haztaketa / Transferencias en materia de universidad. Balance de la experiencia en la Comunidad Autónoma del País Vasco**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 24 □ 17 cm, 52 or.
- E.J. Kultura Saila: **Zehazki-Mehazki. Euskadiko bekak / Zehazki-Mehazki. Becas de Euskadi**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 24 □ 17 cm, 256 or.
- E.J. Lan eta Gizarte Segurantzza Saila: **Estudio de panel de los beneficiarios del I.M.I. 1990-1992**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 24 □ 17 cm, 122 or.
- E.J. Lan eta Gizarte Segurantzza Saila: **Lan Estatistikak. Urtarrila-abendua 1991 / Estadísticas Laborales. Enero-diciembre 1991**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 30 □ 21 cm, 108 or.
- E.J. Lan eta Gizarte Segurantzza Saila: **Laneko Lesioen Estatistikak 1992 / Estadísticas de las Lesiones Profesionales 1992**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 30 □ 21 cm, 168 or.

- E.J. Lan eta Gizarte Segurantzza Saila: **Las Pensiones Contributivas de la Seguridad Social en la Comunidad Autónoma del País Vasco año 1991**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 29 □ 21 cm, 100 or.
- E.J. Lan eta Gizarte Segurantzza Saila: **Plan integral de lucha contra la pobreza en Euskadi (Balance 1990-1991)**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 24 □ 17 cm, 210 or.
- E.J. Nekazaritza eta Arrantza Saila: **Euskal Arrantza-Flotaren Aurkibidea 1992 / Directorio de la Flota Pesquera Vasca 1992**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 27 □ 20 cm, 64 or.
- ELEXPURU, Juan Martin: **Alpeen itzalpean**. Elkar. Donostia. 1993. 19 □ 12 cm, 160 or.
- EMAKUNDE: **Demografia eta gizartearen aldaketa / Demografia y cambio social**. Emakumearen Euskal Erakundea. Gasteiz. 1994. 29,5 □ 21 cm, 201 or.
- ENRIQUEZ, Javier; HIDALGO de CISNEROS, Concepción; LORENTE, Araceli; MARTINEZ, Adela: **Colección documental de los monasterios de Santo Domingo de Lequeitio (1289-1520) y Santa Ana de Elorrio (1480-1520)**. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 1993. 23 □ 16 cm, 288 or.
- ESNAL, Pello; ZUBIZARRETA, Patxi; IZAGIRRE, Ander; URTEAGA, Joxemari; ARANGUREN, Ainhoa: **Tene lehiaketa 1994**. Elkar. Donostia. 1994. 19 □ 12 cm, 92 or.
- ESTRATEGIAS EMPRESARIALES EUROPEAS; MANZANO, Jesús; LAINEZ, Francisco: **Alternativas de financiación en divisas para la PYME de Gipuzkoa**. Kutxa Fundazio Sozial eta Kulturala. Donostia. 1994. 25,5 □ 19 cm, 105 or.
- ETXEBARRIA, Toribio: **Ibiltarixanak** 2. ed. Eibarko Udala; Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea. Donostia. 1993. 21 □ 15 cm, 495 or.
- EUSTAT: **Demografiako eta Balidazioko Inkesta 91. Familia, ezkonkortasuna, ugalkortasuna / Encuesta Demográfica y de Validación 91. Familia, nupcialidad, fecundidad**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1993. 25,5 □ 21 cm, 188 or.
- EUSTAT: **Estatistika Boletina 93. II. hiruhilekoa / Boletín de Estadística 93. II. trimestre**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1993. 25,5 □ 21 cm, 70 or.
- EUSTAT: **Estatistika Boletina I-94 / Boletín de Estadística I-94**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1994. 25,5 □ 21 cm, 84 or.

- EUSTAT: **Euskal Estatistika-Kontseilua. 1992ko Txostena / Consejo Vasco de Estadística. Memoria 1992.** Euskal Estatistika Erakundea. Gasteiz. 1993. 23,5  $\square$  21 cm, 64 or.
- EUSTAT: **Euskal Estatistika-Kontseilua. 1993ko Txostena / Consejo Vasco de Estadística. Memoria 1993.** Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1994. 23,5  $\square$  21 cm, 60 or.
- EUSTAT: **Euskal Urtekari Estatistikoa 93 / Anuario Estadístico Vasco 93.** Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1994. 25,5  $\square$  20,5 cm, 660 or.
- EUSTAT: **Euskara 81-91 / Euskera 81-91.** Euskal Estatistika Erakundea. Gasteiz. 1994. 21  $\square$  21 cm, 52 or.
- EUSTAT: **Hezkuntza eta Euskara / Educación y Euskara.** Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1993. 25,5  $\square$  21 cm, 268 or.
- EUSTAT: **Ikerketa Zientifiko eta Garapen Teknologikoko Ihardueri buruzko Estatistika (I+G) 91 / Estadística sobre Actividades en Investigación Científica y Desarrollo Tecnológico (I+D) 91.** Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1993. 25,5  $\square$  21 cm, 132 or.
- EUSTAT: **Ikerketa Zientifiko eta Garapen Teknologikoko Ihardueri buruzko Estatistika (I+G) 92 / Estadística sobre Actividades en Investigación Científica y Desarrollo Tecnológico (I+D) 92.** Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 25,5  $\square$  21 cm, 150 or.
- EUSTAT: **Industri Kontuak 92 / Cuentas Industriales 92.** Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1994. 25,5  $\square$  21 cm, 176 or.
- EUSTAT: **Irakaskuntza Publikoaren Gastu eta Finantzaketaren Estatistika 91 / Estadística del Gasto y Financiación de la Enseñanza Pública 91.** Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1993. 25,5  $\square$  21 cm, 160 or.
- EUSTAT: **Irakaskuntzaren estatistika 92-93 / Estadística de la enseñanza 92-93.** Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1994. 25  $\square$  21 cm, 293 or.
- EUSTAT: **Ospitaleez Kanpoko Estatistika Publikoa 92 / Estadística Extrahospitalaria Pública 92.** Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1994. 25,5  $\square$  21 cm, 90 or.
- EUSTAT: **Sektore Publikoaren Aurrekontuen Estatistikak 91-92. Likidazioak, aurrekontuak / Estadísticas Presupuestarias del Sector Público 91-92. Liquidaciones, presupuestos.** Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1993. 25,5  $\square$  21 cm, 152 or.

- EUSTAT: **Udal-Adierazleak 1994 1. tomoa / Indicadores Municipales 1994 tomo 1. Euskal Estatistika-Erakundea.** Gasteiz. 1994. 28 □ 21 cm, 790 or.
- EUSTAT: **Udal-Adierazleak 1994 2. tomoa / Indicadores Municipales 1994 tomo 2. Euskal Estatistika-Erakundea.** Gasteiz. 1994. 28 □ 21 cm, 756 or.
- EUSTAT: **Unibertsitate Irakaskuntza eta Euskara 92-93. UPV/EHU / Enseñanza Universitaria y Euskara 92-93. UPV/EHU.** Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1994. 25,5 □ 21 cm, 120 or.
- FERNANDEZ DE LARRINOA, Kepa: **Nekazal gizartea eta antzerki herrikoa pirinioetako haran batean.** Eusko Ikaskuntza. Donostia. 1993. 24 □ 17 cm, 195 or.
- GAMINDE, Iñaki: **Bilboko Larraskituko euskaraz.** "Xali". Bilboko Udala. Bilbo. 1994. 24 □ 16,5 cm, 176 or.
- GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan: **Jentilak sorginak eta beste. Euskal Pentsamendu Magikoa (II).** BASTERRETxea, Nestor. Elkar. Donostia. 1994. 21 □ 13 cm, 97 or.
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Departamentua: **Donostialdeko Industri Planoa / Plano Industrial de Donostialdea.** Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia. 1993. 24 □ 15 cm, 326 or.
- GIRALDEZ PIDAL, Elena: **Las Inversiones Extranjeras en el País Vasco.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 24 □ 17 cm, 478 or.
- GONZALEZ, Maitte; ESTIVIL, Jordi; HOZ, José María de la: **La inserción, a debate.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 24 □ 17 cm, 262 or.
- GRANJA PASCUAL, J. Javier: **Federiko Belaustegigoitia (1876-1947).** 2. ed. ALBIZU, I.. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 23,5 □ 22 cm, 20 or.
- HAEE / IVAP: **Bide Seinaleak.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 21 □ 15 cm, 74 or.
- HARITSCHELHAR, J.; KNÖRR, E.; UGALDE, M.: **Koldo Mitxelena (1915-1987).** 3. ed. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 23,5 □ 22 cm, 12 or.
- HAUGEN, Tormod: **Gautxoriak.** 3. ed. ARTOLA, Rosemiren; BARANDIARAN, Ane. OSES, Pedro. Elkar. Donostia. 1994. 18,5 □ 13 cm, 192 or.
- HELAN JAWORSKI, C.: **Cooperación Pública Vasca. Ayudas al Tercer Mundo. Hacia formas nuevas de relación con el Sur del Mundo. Economías populares y mecanismos europeos**

- de financiamiento alternativo.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 24 □ 17 cm, 268 or.
- HUXLEY, Aldous: **Bai mundu berria.** AMURIZA, Xabier. Elkar. Donostia. 1994. 19 □ 12 cm, 286 or.
- IGERABIDE, Juan Kruz: **Txokolatea basoan.** ZABALETA, Jon. Elkar. Donostia. 1993. 20,5 □ 15,5 cm, 58 or.
- Ikei: **Estudio de las drogodependencias en el mundo laboral.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 27 □ 21 cm, 126 or.
- Ikei: **Informe Social del País Vasco 1993.** AZURMENDI, Beñat. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 24 □ 17 cm, 272 or.
- INTXAUSTI, Joseba: **Euskara Araban / El euskera en Alava.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 23,5 □ 22 cm, 27 or.
- IZTUETA, Paulo: **N. Ormaetxea «Orixe».** 3. ed. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 23,5 □ 22 cm, 12 or.
- KAZABON, Antton: **Pelu.** REDONDO, Daniel. Elkar. Donostia. 1994. 20,5 □ 15,5 cm, 49 or.
- KINTANA, Xabier: **Imanol Berriatua (1914-1981).** 2. ed. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 23,5 □ 22 cm, 20 or.
- KORTAZAR, Jon: **Laberintoaren oroimena.** 2. ed. Erein. Donostia. 1994. 20,5 □ 13 cm, 184 or.
- LARRAÑAGA ZULUETA, Miguel; TAPIA RUBIO, Izaskun: **Colección documental del Archivo Municipal de Hondarribia. Tomo I (1186-1479).** Eusko Ikaskuntza. Donostia. 1993. 23 □ 16 cm, 240 or.
- LAUZIRIKA, Nekane: **Cooperación Pública Vasca. Africa en el corazón de la pobreza. El continente de las mujeres y los niños.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 24 □ 17 cm, 214 or.
- LECUONA LERCHUNDI, Lourdes: **Presencia de lo ingles en Pío Baroja (Prólogo de Julio Caro Baroja).** Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea. Donostia. 1993. 24 □ 16 cm, 406 or.
- LEKUONA, J.M.: **Manuel Lekuona (1894-1987).** 3. ed. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 23,5 □ 22 cm, 12 or.
- LETAMENDIA, Ander: **El dedo blanco del pelotari.** AMADOR, José Manuel; GARMENDIA, Juan Antonio (zaharrak). Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea. Donostia. 1993. 28 □ 21 cm, 260 or.
- LINAZAROSO, Karlos: **Ipuin arriskutsuak.** OLARIAGA, Antton. Erein. Donostia. 1994. 19 □ 12,5 cm, 80 or.

- LINDGREN, Astrid: **Pippi Kaltzaluze**. URBISTONDO, David. VANG NYMAN, Ingrid. Elkar. Donostia. 1994. 18,5 □ 13 cm, 158 or.
- MARTIN, Andreu; RIBERA, Jaume: **Postariak beti deitzen du mila aldiz**. UGARTEBURU, Iñaki. Elkar. Donostia. 1994. 20 □ 12,5 cm, 166 or.
- MIANGOLARRA, J. Ignacio; PUENTE, javier: **Seguridad práctica en la construcción**. E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 25 □ 21 cm, 380 or.
- MINTEGI, Laura: **Julene Azpeitia (1888-1980)**. 3. ed. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 23,5 □ 22 cm, 12 or.
- MUJIKA, Jose Antonio: **Bakarka 4**. TOQUERO, Julian. Elkar-G.I.E.. Donostia. 1993. 27 □ 20 cm, 288 or.
- MUÑOZ, Miguel; PERALES, José Luis; PEREZ, Montserrat; MARTINEZ, Gloria: **Estudio de las necesidades de formación de los trabajadores de las residencias de ancianos de Guipúzcoa**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 24 □ 17 cm, 140 or.
- MURUGARREN, Luis: **1813. San Sebastián incendiada. Britanicos y portugueses**. Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea. Donostia. 1993. 24 □ 16 cm, 353 or.
- NOËL, Emile: **Las instituciones de la Comunidad Europea (edición 1988)**. Oficina de Publicaciones Oficiales de las Comunidades Europeas. Luxenburgo. 1988. 23 □ 16 cm, 47 or.
- OLABARRIA, Iñigo; USABIAGA, Mikel; ZALBIDE, Mikel: **EIMA. Hezkuntza-Softwarearen Bilduma 1993**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 27 □ 20 cm, 300 or.
- OLAZIREGI, Ibon; BERASATEGI, Joxe Mari; ZALBIDE, Mikel: **Hezkuntza Administrazioako Hiztegia**. 2. ed. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 24 □ 17 cm, 291 or.
- ORMAZABAL, J.: **Esaera zaharrak eta txiste berriak**. 9. ed. ZABALETA, Jon. Elkar. Donostia. 18,5 □ 13 cm, 152 or.
- ORMAZABAL, J.: **Pernando Amezketarra**. 12. ed. LUCAS, Jesus. Elkar. Donostia. 1994. 18,5 □ 13 cm, 167 or.
- PLACER GALAN, Carlos; URKIA ETXABE, Jose María: **El Cuarto de Socorro de San Sebastián. Origen y desarrollo (1881-1936)**. Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea. Donostia. 1993. 24 □ 16 cm, 242 or.
- RODARI, Gianni: **Aitatxo bilin-bolon**. IGERABIDE, Juan Kruz. LUZZATI, Emanuele. Erein. Donostia. 1994. 15,5 □ 14,5 cm, 26 or.
- RODARI, Gianni: **Erregeak zergatik ote dira errege?**. IGERABIDE, Juan Kruz. LUZZATI, Emanuele. Erein. Donostia. 1994. 15,5 □ 14,5 cm, 26 or.

- RODARI, Gianni: **Hizketan bazekien katua eta beste istorio batzuk**. IGERABIDE, Juan Kruz. PEG, Gianni; MUNFORTI, Lorena. Erein. Donostia. 1994. 15,5 □ 14,5 cm, 24 or.
- RODOREDA, Mercè: **Diamantearen Plaza**. GONZALEZ ESNAL, Maite. Elkar. Donostia. 1994. 19 □ 11,5 cm, 258 or.
- RODRIGUEZ RANZ, José Antonio: **Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República**. Kutxa Fundazio Sozial eta Kulturala. Donostia. 1994. 24 □ 16,5 cm, 667 or.
- SAENZ DE GORBEA, Xabier: **Luis Otaegi**. AUZMENDI, Lourdes; MONTORIO, Begoña. Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea. Donostia. 1994. 30 □ 23 cm, 120 or.
- SANCHEZ BERNAL, Amador; RAMIREZ MARKULETA, Mikel; ABANCENS IZCUE, Alvaro: **Seguridad en los trabajos de zanjás**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 25 □ 21 cm, 105 or.
- SARASOLA, Ibon: **Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia (Orbaindu-Tolesdun)**. Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea. Donostia. 1994. 27 □ 20 cm, 152 or.
- SARRIONANDIA, Joseba; GARZIA, Joxerra; BELOKI, Joserra; ZURUTUZA, Imanol; EGAÑA, Andoni; ZABALA, Xabin; BERRIZBEITIA, Luis; ITURREGI, Patxi; AZURMENDI, Joxemari: **Ipuin bakarrak**. MENDIGUREN, Xabier (Auk.). Elkar. Donostia. 1994. 19 □ 12 cm, 204 or.
- SEMPE, Jean-Jacques; GOSCINNY, Rene: **Nikolas Txiki**. 10. ed. TAPIA, Imanol. Elkar. Donostia. 1994. 18,5 □ 13 cm, 200 or.
- SEMPE, Jean-Jacques; GOSCINNY, Rene: **Nikolas Txikiaren errekreoak**. 6. ed. AGIRRE, Ramon. Elkar. Donostia. 1994. 18,5 □ 13 cm, 150 or.
- SHAW, Frank; SZABO, Catherine: **Lagunekin baratzean**. GOENAGA, A./ Egok.: MATEOS, P.; MUGICA, R.; ORTIGOSA, L. LOPEZ ALTUNA, J. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 30 □ 21 cm, 139 or.
- SHAW, Frank; SZABO, Catherine: **Lagunekin baratzean. Irakasle eta Gurasoentzako Gida Liburua**. GOENAGA, A./ Egok.: MATEOS, P.; MUGICA, R.; ORTIGOSA, L. LOPEZ ALTUNA, J. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 30 □ 21 cm, 109 or.
- SHAW, Frank; SZABO, Catherine: **En la huerta con mis amigos**. MATEOS, P.; MUGICA, R.; ORTIGOSA, L. LOPEZ ALTUNA, J. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 30 □ 21 cm, 140 or.
- SHAW, Frank; SZABO, Catherine: **En la huerta con mis amigos. Guía para profesores y padres**. MATEOS, P.; MUGICA, R.;

- ORTIGOSA, L.. LOPEZ ALTUNA, J. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 30 □ 21 cm, 112 or.
- SUSPERGINTZA ELKARTEA: **Euskal Autonomi Elkarteko emakumeentzako elkartegintzari buruzko gidaliburua / Guía de asociacionismo para las mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi** . BIGURI, K.. EMAKUNDE, Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Bilboko Udala. Gasteiz. 1993. 24 □ 17 cm, 144 or.
- TWAIN, Mark: **Hiru kontakizun**. NAVARRO, Koro. Elkar. Donostia. 1994. 20 □ 12,5 cm, 74 or.
- UZEI: **Hrigintza hiztegia**. Elkar. Donostia. 1994. 24 □ 17 cm, 252 or.
- VILLA SANCHEZ, Aurelio; MORALES VALLEJO, Pedro: **La evaluación del profesor. Una visión de los principales problemas y enfoques en diversos contextos**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 24 □ 17 cm, 382 or.
- XARRITTON, Piarres: **J.M. Moulier «Oxobi»**. 2. ed. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 23,5 □ 22 cm, 12 or.
- ZABALETA, Patxi: **Ukoreka**. Txalaparta. Tafalla. 1994. 19 □ 12 cm, 409 or.
- ZUBELDIA, Iñaki: **Ipuin eroa**. ZABALETA, Jon. Elkar. Donostia. 1994. 20,5 □ 15,5 cm, 58 or.



TOLOSA HIRIBIDEA, 103-1.C  
TEL.(943) 21 80 92  
FAX (943) 21 82 07  
20009 DONOSTIA

